

# EVSKERAZAINTZA

## EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

**XII Zenbakia.**

1990  
Uztaila-Iraila

### AURKIBIDEA

	Orr.
Euzko Deia. L. Akesolo. ....	1
Euskerazko izenak Erdiaroko idazkeran. B. Latiegi. ....	4
Zuzendariari Idazkia. B. Medina. ....	10
Filosofi gaietarako iztegi txikia. L. Egia. ....	11
Goi Yakintza. Zentzun, Zentzu. Urrestarazu A. ....	23
Nemesio Otaño. Jose A. Garate. ....	26
Aetzen uskaraz. Josu Cabodevilla. ....	31
Sukia "Beltza" Kardenala. A. Arrinda. ....	36
Oyartzun, Oiartzun, Oiartzun. Y. Oñatibia. ....	39
Iraola tar Errupin jaunari. Gaztañaga J. ....	41
Garde tar Martzelino. Gaztañaga J. ....	42
Sabin Muniategi Astorkia. Aita Santi Onaindia. ....	46
Ipuin abestikor ariñak. S. Muniategi. ....	50
Bizitzan bi goiasmo. Jakakortajarena. ....	54
Aita Mokoroa eta Aita Santi Onaindia. A. Zubikarai. ....	55
Ortik eta emendik. A. Zabala. ....	57
Elbire Zipitria Sariketak. ....	63
Sabin Muniategi. A. Zubikarai. (Barruko azalean)	
Toki ixenen atzizkiak. M. Olazar. (Barruko azalean)	
Euskeraren besoetan jaio nitzan. M. I turbe (Kanpoko azalean)	

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA  
C. LARREATEGI 14 - BILBAO

# SABIN MUNIATEGI

Olerkari bat joan jaku.

Bake baketan.

Igandean Larraitz'en zan, ango aizea arnastu ta bazkaltzen. Ondezak jo, Tolosako gaisotegira eroan eta an

Astelenean, Errenderi'n egin zan bere illeta.

Muniategi Bizkaian jaio zan, Gautegiz Arteagako Portu Pantxikone baserri zabalean. Ba dira 77 urte.

Sasoirik onenean, inguru orretako bizi lagunak euki izan daben itxas deiari jarraituz, Filipinasetara joan zan.

Berezkoa da itsas miña. Erantzun ezik, bizi guztirako arrenkuraz menperatzen dauana. Itsas arrenkura euskaldunentzat, galiziarren saudade lakoa.

Eta itxas aizea dakarre bere lenengo olerkiak:

"Txipli-txapla uin ganetik  
oi, norarte elduko nazan!

Itxasoak sortzen dauan zabaltasuna, anditasuna. Ez arrotasuna.

"Lauaxeta"ren kritikaz agertu zan bere lenengo liburutxo samurra: "Goiz aize", 1935 urtean. Filipinas'etan ibili ondoren idatzia. Euki dabe zerbait Filipinas ugar-teak euskeraren maitaleentzat. J.M. Etxeita mundakarra Manila'ko alkate izan zan eta euskal nobela idazle biurtu. Ainbat euskal kapitán ibiltzen ziran alde aretan eta sekula sorterriko maitasunik baztertu ez.

Alaxe asi zan Muniategi be.

Gero gerratea eta ondorenak. Donosti'ko Herreran bizi zan... itxas merkatarit-zari begira. Eta olerkiak egiten.

Ez egoan olerti leiaketa eta sariketarik agertuko ez zanik. Ez egoan urterik, Aita Onaindiak Larrean eratutako Olerti egunetan bere zeregin berezirik eukiko ez ebanik. Edo sari artzen, edo saridunen kritika egiten, edo epai maiko. Baiña olerkia beretzat biozkada zan, une orotan tuku-tukuka ebillan biotzaren eskutatu eziñiko agerbidea.

"Lauaxeta"k olerkari bizi, alai, era barrikotzat etsi eban bere lenengo agerpe-nean.

Gero, 1970'n, beste olerki sail bategaz kaleratu zan "Bidean gora". Oraingoa S. Onaindiaren itzaurreagaz.

Aita Santi'k zeatz emon eban bere aburua: "Olerkaria, urtez urte, esperientziz eta biotz zirarraz azi, ugaritu ta edertu zaigula ezereen lotsa gabe autortu bear.

"Atera nadin gogoz, zintzotasunez,  
azkatasunaren bide nekagarritz..."

Azken urteetan gogamen orrek, kezka orrek ittoten eban. Euskalerrria barriztu naiak...

Sabin'en urteak orrelaxe joan dira. Gizon apal, baiña pentsabide sakoneko eta beti borondatetsu. Beti biotz zabal... azkenean be, biotzak berak azkatu dauan arte.

Bat bateko gogamen onetan ezin aztu bere goi-maitasunik. Len esana, mundu zabal batek sortzen dauan bizitzako ametsik.

"Izarrak sortzen diran erri  
ikusgarrira, elduko naz.  
Ta eun izar eta artizar bat  
sartuko ditut ixontzian".

Alaxe eldu be. Neke bako azken bidaian, baiña ez ustekabez. Berak ba ekiala-ko amets andiak egiten.

**A. Zubikarai**

EUSKERAZAINTZA

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87

Konponketa: Flash Composition. Bilbao



# EUSKO-DEVA (1916.1923)

EUSKERA UTSEZKO ALDIZKARIA,  
ORAIN IRUROGETA AMAR URTE SORTUA

Zazpi urte inguru joan dira ZER'en orrialdeetan EUSKALZALE (1897-1899) eta IBAIZABAL (1902-1903) aldizkariaren barri emon nebanetik. Aldizkari biok euskera utsezko lenengo aldizkaritzat emon nituen, gaiñera, biak Bizkaian eta bizkaitarren gogo beroak sortuak. Artean, ez zan sortu euskera utsezko aldizkaririk ez astero korik. izan zan, bai, Urtekari bat, Fedearen Hedamenekoa (1877-1920) Joanategik eta beste batzuk sortu eta zuzendua, mundu guztiko misiolariaren barri emotekoa zana; baiña frantzesezko ANNALES batetik euskeraturiko lan batzuek azornitzen zan; Eskualduna astekaria ez zan euskera utsezkoa; beti ekarren erderazko lanen bat, orain aren jarraitzaife dan HERRIA astekariak ekarten dauan lez.

Beste aldizkari euskera utsezko baten aitamena dakargu gaur, eta au be, Bizkaian eta bizkaitarrak sortua, 1916'tik 1923raiño iraun ebana. Au be, gure laikoak sorturiko aldizkarietan euskera utsezko lenengoa da. *Euskal-Esnalea* euskera-erderazkoa zan, eta *Jaungoiko-Zale* (1911-1931), eta *Irugarrengo Franziskotarra* (1913-1936) eleiz-gizonenak zirean, praille-abadeen eragiñez eta erlijiozko asmoakaz sortuak. Euzko-Deya sortu zanean ez zegoan Euskalerrri osoan, erri-gizonak aterata, beste aldizkarik ez astekaririk. Orain ainbeste sortu ta bizi diranean, ez dogu aitzu bear gure aurrelari izan eta euskal-aldizkariaren asikiñak emon ebezanen lana.

Euzko-Deya Euzkaltzale Bazkunaren ardurapean etorri zan. Bilbotar batzuen euzkaltzaletasunak eta abertzaletasunak sortua eta eutsia da, euskaldunen izkuntzari Euskalerrrian jagokan lekua eta arnasa barria emoteko kaleratua. Ortik begikoago eta maitagarriago egiten jaku, eta euskaldunon aldetik esker ohea zor jakolakoan nago. Euskal-aldizkariaren artean aurrelari izan doguzanen ospea izan bear leuke.

Oso zabal ibili dala uste dogu Euzkaltzale Bazkunaren aurkako marmarra, ganorabako lana egin ebala, ez ekiela euren euskal-eskola ta gramatikatik urtetan, ez zireala gauza euskereari kalean bizirik eta indarrik emoteko. Mar-mar ori ixiltzeko eta uste ori guzurtetako Euzko-Deya aldizkari au ez ete da naikoa? Aldizkari orretan idatzi eben idazleen izenak jakin ezkeru, baietz erantzun bearko dogu. Politika alderdi guztiak beste ainbeste egin izan balebe, beste giro ta egogera biziago ta osasuntsuago bat sortuko zan gure izkuntzarentzat. Urte batzuetan aldizkari au izan zan aldizkarietan bakararra (eleizgizonen aldizkariak kenduta) euskereari eskubide oso ta beteak autortzen.

Otsaillaren amaseian, 1916n asi zan plazaratzen. Neguaren biotzean` etorren, euskereari udabarri loratsua opa eutsala. Amabostean bein urtetan dau: Illaren lenengoan eta amaseian. Ale bakotxak amasei orri ekarten ditu. Bizkaian eta bizkaitarren eragiñez urten dauan arren, beste euskalkientzat orriak zabalik daukaz.

Gipuzkoatik eta naparroatik euren lanak bialduta, ainbat idazle datoz aren orrialdeetara, lenengo zenbakitik asita. Euskera ta Euskalerrria gogoan eta biotzean dabezala datoz, Jaungoikoa eta Lagi Zarra Ikurrintzat artuta, Euskalerrria euskalduntzen gogatsu lan egiteko gertu, Euskalerrria euskaldunentzat eta euskerea euskaldun guztien izkuntzatzat ikusi arte. Lenago egin ez dana orain asita egin nai dabe: "Erdera, eta erdal-gogua, euzkotaren gogo ta biotzetatik kenduta eurotan euzkerea sendo sendo jarri. Sailla gogorra da, baiña eziña ezta". Eurak alan diño.

Ez deuskue esan nor daben buru ta zuzendari: baiña maixutzat nortzuk artu dabezan, bai. Argazki ta guzti datoz euron lenengoko zenbakian: Arana Goiri, aita Arriandiaga, Eleizalde ta Kirikiño. "Eurei zor deutsegu, diñoenez, Euskaltzale Bazkunakuok dakigun apurra. Eurak izan dira ta dira geure Irakasliak". Lau irakase, lau maixu, bakotxa bere eskolakoak, eta bi Bizkaiko euskerea landu izan dabenak. Baiña beste euskaldunai eta beste euskal-eskolakoari ez jakez atek isten.

Aldizkari barri onek zelango gaiak urratu eta landuko ditu? Era guzietakoak. Batzuk alai ta atsegingarriak: ipuin, olerki, izkirimiri eta abar. Beste batzuk jakintzakoak, ekonomi-sailekoak, baserri ta nekazaritzakoak, itxasoko gizonen arazoak, osasungaiak eta abar.

Albistari be izan gura dau Euzko-Deya onek. Euskalerrriko ta mundu zabaleko barri batzuei euren lekutxo emoten jake noizik bein, beti ezpada be. Sail guztiak jorratu nai dituela argi dago, guztien gogoko, batez be abertzeleen atsegingarri izan gurez.

Euzko-Deyak aldikada bi izan zituen: 1916tik 1920raño bata, eta 1921 tik 1923rañoakoa bestea. Bien artean urtebete inguruko eten-aldia dau. Zek ekarrita etenaldi au? Bear bada, abertzaleen artean talde bi bata bestearen aurka sortuta, ABERRI'tarren eta besteen artean izan ziran eztabaidak ekarrita.

Euzko-Deya'n, Bizkaikoak bakarrik ez, giputzak eta naparrak be idazten eben. Bizkaitarretatik, idazle-mordotxo dabil: Amilgain (Altuna'tar Joseba), Arrugain (Mikel Arruza), Jadarka (Jemeindar Keperin), Aizkibel'dar (Bingen), Albizuri, Eleizalde (bergararra, baña euskalkiz Bizkaikoa), Zabala Arana (Mibusus), Enbeita'tar Kepa, Kirikiño eta abar. Lenengo zenbakiak bertsozko agur beroa ekarren, Enbeitak izenpetuta, eta gero sarritan dator bertsolari onen lanen bat. Kirikiño bere *Barriketak* sailla ia eten barik daroa, alkar izketazko lanetan.

Gipuzkoatik, beste idazle-mordo bat: Tene, Elzo-Azpiazu (asi ta lastertxo il zana), Zarautz-tar Sabin (geroagoko Lizardi), Ayerbe'tar P., Satarka (Sagarzazu'tar Kauldi), Zinkunegi osalaria eta abar. Azkenengo au Aian zan orduan osalari, eta andik bialtzen ditu bere lanak, osasungaiezkoak, aurrak zelan azi eta orretarikoak. Naparroatik Larreko (Irigarai'tar Permiñek) napar euskeraren otsak dakaz aldizkarira. Lenengo zenbakian Lapurditarren agur beroa be badakar.

Nik ez dakit zer dala-ta Lizardiren argitaratzailleak Lizardik *Euzko-Deyan* ateratako olerki bat bakarra emon deuskuen eta bera erderatik itzulia, dirudianez. Idazle onek bertsozko lan pillatxo dauka Euzko-Deya orretan, eta bai prosazko beste batzuk be. Euskaltzale-Bazkunak ba ekian beste euskal-eskola batekoak zireanen aldera askok uste daben baiño barru-zabalagokoa izaten. Eta, barriz, eztabaidako gairik ez aterateko jokabidea artuta eukala dirudi. Aldizkariak lenengo aldia, 1920rañoakoa, izan ebala esan geinke. Bigarren aldian, dotoretxoago agertuko da, papel obeaz, eta illeroko egiñik, baiña luma gitxiagok eskintzen dabe euren lanik. Zinkunegik, esaterako, lan bi baiño ez ditu aterako, eta Larreko bat baiño ez oso mamitsua, orraitio. Aldi barri onetan amasei orrialdeko aldizkaria da, len amabikoa zana. Idazle barririk bat agertzen da, beintzat, Legoaldi (Ipolito Larrakoetxea), Zeanuriko semea, Kalahorratik bere Grimm anaian ipuiñak bialtzen dituen.

Egun pozgarriak izan zituen *Euzko-Deyak*, 1918n abertzaleak Bizkaiko Aldun-

dian nagusi urten ebenean. Euskalerria euskaldun egiteko aukerarik ederrena ikusi eben orduan. Kirikiñok be, ordurarte politika usaiñik agertu ez eban arren bere lanetan, orduan gora bota eban bere santzoa, euskerarentzat etorkizun ohea ikusiz.

Pozik agurtu zituen *Euzko-Deyak* orduko jazoera batzuk be: Oiñatiko Eusko-Ikaskuntzaren Batzar andia, beste euskal aldizkarien, Jaungoiko-Zale ta beste batzuen aurrerakadak, euskerazko liburu batzuen agertzea eta olan. Bera be euskerazko liburu barri batzuen argitaratzaile eginda dabil. *Elenetxu eta* beste batzuk aldizkari onetan idazten ebenen idazlanak dira

Bigarren aldiko 27garren zenbakian, 1923ko iraillekoan, aldizkariaren asieratik lankide izan zan Luis Eleizalde zanaren il-barria ekarren, Amilgain'ek idatzia. Il-barri au ekartean, ez eben usteko Euzko-Deya'koak aldizkariaren azkenengo zenbakia izango zanik. Ur euken, illean berean, ainbeste neke ta buruauste eka-rrri eutsen aldizkariaren azkena. Illabete joan orduko jagi zan Primo de Rivera eta onek egunkarien euskal-atalak eta euskal-politika usaiñezko aldizkariak galarazo egin zituen.

Baiña ez da ori Euzko-Deya oni jausi jakon zoritxar bakarra. Ia ezbear andia-gotzat daukat euskaldunen gogoan izan dauan eriotzea. Nok dauka gogoan? Nok egiten deutso aitamenik?


Gaur Euskal-Bibliografia eder ugari baten jabe gara, Jon Bilbaori esker. Ikara-garrizko lana onek egin dauana gure liburu eta aldizkarien billa eta bakotxaren zeaztasunak emoten. *Euzko-Deya* aitatu, bai, egin dau; baiña bigarren aldikoa baiño ez. Jakiña: lenengoa be izan zalakoa ateraten da, baiña ez noz sortu ez nozarte iraun ebanik ez deusku ezer emon. Eta bigarren aldiko *Euzko-Deya'ren* barririk oso gutxi: 1921-22n amabi zenbaki atera zirala, besterik ez. Eta 27garrena izan zan 1923n azkena.

Or idatzi eben ainbaten izenak (Kirikiño, Eleizalde, Lizardi, Larreko, Sagarzazu, Elzo-Aspiazu, batzuk izentetearren), ez dira gure euskal pizkundetxoan edozelan-goak, eta ez daukaguz ate osterata botateko. Baiña, batez, be, gure pizkunde ori zelan sortu zan, nortzuk biztu ta lenengoz bultzatu eben eta nondik norako bideak artu zituen ikasteko, noraezekoa da aldizkari onen bizia ta lana ezagutzea

Bilboko Euzkaltzale Bazkuna'k, beste indar eta erakunde asko lotan egozala, eta erdereaz nasteko lanean eragoioela, erakutsi ederra emon euskun bere aldizkari au sortuaz, eta beronen orrialdeak Euskalerrri guztiko idazleari eskiñiaz.

Bizkaia, irugarrenez, aurrelari daukagu or euskera utsezko aldizkariak sortzen.

**Lino Akesolo**





# EUSKERAZKO IZENAK ERDI AROKO IDAZKERAN 867'KO LARRUKI BAT

(III )

Saia gaitezen, larruki onen azterketa gaur bukatzen. Ona emen oraindik ikertu ez ditugun toki-izenak:

ORBANIANOS	SAUCTO	AQUA FIERCO	NAVE DE COREGGO
BERCEIA	FRIDAS	BARCEIA	BARCENAS
LOPERUELA	GOINA	CORELLO	SABORITO
AVENTI	FELES	SEMPRUM	MARGALULI
BELLITI	FERRUZU	BEILA	GUISANDO
SAUTO	MOGESTO	FAINO	RIPA

Egia esan, zerrenda ortatik giza-izenak kenduta ere, gelditzen zaizkigun erri-izenak ez dute itxuraz beintzat euskal-usai aundieirik.

Alataguzti, ez dezagun burutik galdu erri oiek Bureba'n zeudela, larruki au bederatzigarren mendearen erdikoa dala, garai artan Bureba Araba'rena zala, Bureba'n —Araba osoan bezala— euskeraz itzegiten zala, bederatzigarren mendean gaztelera ez zala oraindik sortu, eta orregaitik larruki au lateraz idatzi zuala gure lumalari ez-ezagun arek, baiñan ez Bureba'n ez gaiñerako Euskalerrian erriko jende xeak ez zuala laterarik ikasi, euskeraz itzegiten zuala, eta, ondorioz, euskerazko izenak ematen zizkiela bere erri ta lurraldeei.

Ori orrela izanik, lumalari ez-ezagun ari galdetu bearco genioke, laterera aldatzean, euskerazko gure erri-izenekin zer arraio egin zuan.

\* \* \*

ORBANIANOS.—Orren antzekoak, beste iru izen ere badakarz larruki onek: Orbano, Obarenes, eta Orbanganos, gure "Euskerazaintza" onen X eta IX zenbakietan azterturik utzi genituan izenak.

**Obarenes'ek izen berezia dirudi. Beste iruek, nere ustez, **Orbano** dute oiñarri, eta ortik sortuak dira:**

Orbanganos. Itz orrek, nere iritziz, "orba" aurrizkiari alkaturik, "gain" atzizkia darama, eta laterazko "os" atzizki ugaritasun adierazlea. Ortaz, gure lumalariak lateraz eman zigun Orbanganos ori..., Orbangaiñeta ote zan?

Zaillagoa da Orbaniano'ren jatorria; baiñan, lateraz bait dago larruki au, lumalariak gure "ko" atzizki toki-adierazlea emateko baleiki laterazko "anus", —ugeri-keran "anos"—, erabilli izatea. Ala izan ba'litz, Orbanianos ori, Orbanekoak, izango litzake. Baña "ano" euskal atzizki toki-adierazlea ere bai bait da. "Orbanianos" seguruaski "orban-toki" dugu.

"Orbano", izen oien enbor-itza, zer izan daitekean esanik utzi genuan: "Orba" eta "no" atzizki urgaritasun eta toki adierazlea? Orba zer daitekean esatea ez da ain erreza, baiña bai anei toki-izenetan agertzen zaigun oiñarri-itza dala. Batez ere "Orba" "Orbe" eta "Orbi", naiz era ez berdiñean agertu, izen bat berdiña ba'dira.

\* \* \*

SAUCTO.—tzen au bera, SAUTO demaigu larruki onek beraxeago: "et alia vinea in illo Saucto in illa enzina iuxta limite de Severo", "ta beste masti bat Saucto artako arte artan Sebero'ren mugen ondoan". Ta, berealaxe: "alia vinea in Sauto iuxta limite de Goina", "beste masti bat Sauto'n Goina'ren muga-ondoan".

**Sautu, Araba'n abizen zarra da. Emen ordea toki-izena dugu. Bere esan naia? Ez, dakit.**

Mitxelena'rentzat Sautu, Sauto eta bere ondorengoak, —adibidez Sautaran—, eta Zaldu, Zaldua eta auen ondorengoak, esan-nai berdiñeko itzak dira, ta, —nola ez?, ori diona Mitxelena izanik, danak lateratik ornen datoz: "mendi", "mendarte" eta "larre" esan nai duan laterazko "saltus" itzetik. Esatea, edozer gauza esatea, arazo erreza izan oi da beti. Esandakoa egiztatzea izan oi da zailla. Nik beintzat ez dut uste Euskalerrian ain zabaldurik dagoan "Zal" "Sal" enbor-itza, (Salburua, Zalduendo, Saltarain, Salbarredi, Zalduaran, Salegi... lateratik datorki-gunik).

Bi atzizki oiek, "Sal", "Zal", atzizki bat bera dira. Fonetika edo agozkera utsezkoa da beren arteko ezberdintasuna, eta Lopez Mendizabal'dar Ixaka'ren ustez, "S" ala "Z" protetiku edo edertzaille baten atzeko "al" ori "ol", "olo"ren aldakuntza ornen da. Ta "olo" ori "larre" ere izan ornen daiteke.

\* \* \*

**BERCEIA.--Ez da Madoz'en iztegian agertzen. Errioxa Garaiean bada Beceo bat Gontzalo, gaztelerazko lenen olerkaria jaio zan erria ain zuzen. Gontzalo euskalduna zala badakigu, bere gaztelerazko olerkietan euskal-itzak ere sartzen bait ditu. Gontzalo, XIII mendekoa zan. Gu, larruki ontan, IX mendearen erdian gabiltz. Ura XIII mendean euskalduna ba'zan, zer izango zirala uste duzu 400 urte lenago, IX mendean larruki ontako erriei izen-eman zieten aiek?**

Bertzeia'k eta Bertzeo'k, enborra bat bera dute: "ber": Bernedo, Berguenda, Bermeo, Berriz, Berrostegieta, Berrueta, Berrotaran, Berrobi, Berruete ... eta beste ainbat euskal-izenetan ain sari agertzen zaiguna; Enbor-itz ugaria; batez ere, "bar", "ber", eta baita "bir" ere askotan, itz bat bera baldin ba'dira.

Goiko izen oietatik bat aipatu nai nuke gaur, beste guztien gaindik: Berruete; lumalari gazteler baten eraginez BERRUGUETE biurtua XV mendean. Arras eza-guna egin zaizu noski abizen ori, bi Berruguete ospetsu izan bait dira Españi'ko ertiaren edestian. Aita-semeak. Aita, Pedro Berruguete, (1450-1503), margolaria. Semea, Alonso, (1488-1561), irudigillea. Biak, eusko-jatorrikoak, beren egiazko

abizena, Berruete, edo Beruete bait zan, Pedro aitaren denboran Gaztelerriko idaztegi batean Berruguete itzulia. Imanol Lekuona'tarrak badu bere "Lan Guztien" bilduman arazo orri-buruz oso idazki polit bat.

**"Ber" ori "Bar" ote? Barnedo ere toki-izena eta abizena bait da.**

\* \* \*

Beste sustrai batzuk ditu, gure Iparraldean eta baita euskal-elertian ere ain ezaguna dan BERETERRETXE giza-izenak. "Berete-terra" "apaiza" da, eta itz ori, bai, lateratik datorkigu, Ameryk Picaud Konpostela'ko erromes prantziarrak euskaldunetaz erdiarohan idatzi ziguna egia ba'da bedintzat: "Presbiteroari belater-rra esaten diote, eta itz orrek lur polita esan nai du. Euskal-izenak idatzi bear izan dituzten lumalari arrotz guztiak oker ibilli oi diran bezala, oker ibilli! zan Picaud ere, "bereterra"ren "R" eta "E"ren ordez, "L" ta "A" ipiñiz, "belaterra" idatzi zuanean. Eta "bella" lateraz "polita" bait da, eta "terra", "lurra", etimologi txolin ori sortu zigun: "lur polita".

"Presbitero" "Bereterra"tik oso urruti dagoela? Baita "Eliza" "Eclesia"tik ere! Baiñan, alategutziz, laterazko "Eclesia"tik dator "Eliza". Ibaietako urak arrikozko-rra bezala borobiltzen bait ditu izkuntzak erderetatik jasotzen dituan itzak. Bena-parroa'n Santu Guztien egunari, "Omiainsandu" esaten diote. Bá, itz ori, laterazko "Omnes Sancti"tik dator!

Urruti joan naiz ordea-ta, gure Berzeia'ra biurtuz, izen ortako "ela" atzizkia zer dan ez dakidala esan bear ko dizut. Laterazko atzizkia dirudi, eta orrela balitz "Bertzeokoa" esan naiko luke. Bertzeo zer dan ordea ez dakit, azkeneko "o" ori euskal atzizki toki-adierazle bat dala izan ezik. Bertzeo = bertze-toki. "Bertze" ori zar daitekean jakitea da zailla. Lopez Mendizabal'entzat Bereterretxe ta Bertzeo'ren "Ber" aurreizkia, "Ira"ren aldakuntza bat besterik ez ez da; ortaz, Bereterretxe, "ira-etxe" edo "ira-ola" izango litzake: garoa edo ira gordetzeko etxola. Bai ote? Beitzat ez dut uste Bereziartua, Bereziabarrena eta auen antzeko ainbat eta ainbat euskal izenek laterazko "presbiterus" itzarekin zer ikusirik izan dezaketetik.

LOPERUELA.—Lope, garai artan, IX mendean, naitanaiez, oraindik gaztelararik jaio ez zan nean, euskerazko otsoa'ren laterazko itzulpena da. Abereen izenak erabiltzea, oitura bait zuten oraindik euskaldunek. Emen ordea izen ori diminutibu eran eta ema-keran, feminino-eran dator: Loperuela.

Otsoa'ren diminutiboa, Otxoa da euskeraz. Bere ema-kera berriz, gaur, Otseme. Eta diminutiboz dagoalarik, larrukiko Luperuela ura, Otxeme izango zan seguruaski, edo Otxakume.

Euskerak baditu "ume" esateko bi atzizki: "ko", arrentzat; "anda" emeentzat. "Ko" egaztiekin erabiltzen dugu, "oillasko", "belasko"; baiña balta lau ankekoe-kin ere: "otsoko", "zald!ko", "astoko". "Anda" egaztiekin bakarrik erabiltzen dugu gaur: "oillanda", "belanda". Len ordea badirudi lau ankekoekin ere erabilli zala. Gazteiz'en bada beintzat, len arresien gaiñean egona, "la torre de Doña Otxanda" beti esan oi zaion torre zaar bat. Otxanda ote zan ba gure larruki ontako Loperuela ura?

Larrukian ala're, Loperuela toki-izen bezala dator: "alia vinea in soto ad fonte in Loperuela iuxta limite de Feles": "beste masti bat zugaztian, iturriaren ondoan, Loperuela'n, Fele'en mugaren alboan". "Ad fonte in Loperuela" = "Loperuela'ren iturri-ondoan" itzultzea, gogorregi egiten bait zait. Toki baten izena toki artako gizakume bati ematea, ez da gure artean arritzeko gauza. Antziña artan toki bati gizakume baten izena ematea ere, oiturazkoa ote zan? FELES, agiri-agirian, giza-izena da.

\* \* \*



**GIZA-IZENAK** ditugu jarraian datozen auek danak ere, nere ustez baaintzat:  
**AVENTI.**—"alia terra iuxta limite de Aventi", "Aventi'ren mugetan beste alor bat";

**BELLITI.**—"de alia pars de vinea de Belliti", "Belliti'ren mastiaren ostean". Izen au jenitibu-eran damaigu larruki onek, eta euskaraz BELA'RENA esa nai du.

**EZIMIO.**—"mazanare iuxta limite de Eximio", "Eximio'ren mугen alboan sagastia";

**GOINA.**—"iuxta terra de Goina", "Goina'ren lurraren alboan".

**SABORITO.**—"una vinea in valle de Fridas iuxta limite de Saborito", "Fridas-arean masti bat Saborito'ren muga-ondoan";

**DEMENO.**—"alia terra in valle de Fridas iuxta vinea de Demeno", "beste masti bat Beila'ren mastiaren alboko zelai artan".

**MOGESTO.**—"una terra eta una serna in Margaluli iuxta limite de Mogesto", "alor bat eta larre bat Margaluli'n Mogesto'ren mугen alboan".

**FERRUZU.**—"alio agrum in Valleamplam, (izen ontaz mintzatuak gera), iuxta limite de Ferruzu", "beste alor bat Aranzabal'en, Ferrazu'ren mugetan". Ferrazu, "burni", esan nai duan laterazko "ferrum"dik dator. Eta "Valleampla" euskerazko "Aranzabal" edo "ibarzabal"en laterazko itzulpena dan bezala, euskerazko izen baten itzulpena dugu Ferrazu ori ere. Euskeraz burni-langilleari autrigoiek nola esaten zioten ez dakigu. Agian "arotz", gaur Baztan'go eta Iparraldeko euskaldunek bezala. Arotz?, Burdingille?, Olagizon?, Burdinlari? Zer ote zan IX mendean Ferrazu aren euskal-izena?

**FLAINO.**—"tertia vinea iuxta vinea de Flaino, de alia pars vinea de ipso Flaino", "irugarren mastia, Flaino'ren mastiaren ondoan, Flaino berroren mastiaren beste aldean";

**SENDINO.**—Naiz izen ontako erriak izan, emengo Sendino au, nere ustez, giza-izena daiteke, Severo ta Eximio bezala ziurki giza-izenak —masti ta alor-jabeen gizaizenak— diran beste batzuen artean bait dator. "Pomiferos iuxta limite de Sendino", "Sendino'ren mugetan, zugaitz zitu-emailleak".

**GUISANDO.**—Izen orako erriak ere badira; Abila'n bat, zezen batzuen arrizko irudi zaar batzuek, "Los Toros de Guisando", ospetsu egin dutena. Emen ordea, Guisando ori, giza-izena dugu: "alia terra in illa enzina, —eme izen onekin!—, iuxta limite de Guisando". Guisando zan larruki au idatzierazi zuan abataren izena ere: "Ego igitur Guisandus abba cum sociis meis aliis fratibus fabricavimus ecclesia nomine S. Johannis..." "Nik eta nere beste anai lagunek eliz bat egiña dugu, Donibane'ren izenean..."

\* \* \*

**ENCINA.**—"Izen orrekin eme", bi aldiz esan dugu. Zergaitik? Izen ori erderara itzulitako euskal-izen galdu bat dugulako.

Eman ere bi aldiz ematen bait digu larruki onek gazteletrazko izen ori:

"Alia vinea (...) in illa enzina iuxta limite de Severo", "Arte artan beste masti bat Sebero'ren muga-ondoan". Eta gero, "alia terra in illa enzina iuxta limite den Gisando", "beste alor bat Gisando'ren muga-alboko arte artan".

Gu ordea, egon gindezke ziur, IX mendean, euskera besterik ez zekiten burebatar aiek lur ari ez ziotela "enzina" esaten. Nola esaten ote zioten? Arteaga? Arteta? Arteitz? Artola? Artegi? Arteo? Nere ustez, ARTEAGA, eskierki. Zergaitik? Ikus: "Encina", euskeraz, "arte" da. Arte batean ordea ez daiteke alorrik egon. Alderantziz, artea egoten da alor batean. Zer-zala-ta idatzi ote zuan ba lumalari ark "alia terra in illa enzina", "beste alor bat artea artan", eta ez, bearrezkoa dan bezala, "alia terra in illo enzinare", "beste alor bat arte-leku artan"?

Berak ARTEA entzun zualako! Izan ere, euskaldunok, "Arteaga" itzean —eta "aga" atzizkia daramaten itz guztietan— atzizki orren "g" ori jan egiten dugu

izketarakoan, eta baita azkeneko "a" ber-bera ere, atzizkiaren aurreneko beste "a" ura luzatuz, Bi "a" k bateratuz, "a" luze bat egiten dugula esango nuke nik: "á". Adibidez, "Zumarraga'ko", "Zumarra'ko" biurtzen dugu, eta "Zumarraga", "Zumarra"; "Arteaga'ko", "Artea'ko".

Arteaga zan beraz, lurralde aren izena, eta Arteaga ori, "Enzina" itzuli zuan laterera gure lumalariak; baiñan "Artea" entzun zualako: "Artea'ko beste alor urá"...

Ori, itxuraz, orrela izan zala, edozeiñek uste dezaken gauza da. Baiñan, ez daiteke egia izan. Lumalari ark, IX mendean, ez zezakean "in enzina" idatzi. Zegaitik? "Enzina", —"encina" gaurko idazkeran—, laterazko itza en dalako. Gaztelerazkoa baizik. Eta... IX mendean, gaztelerarik ez zan!

Laterak iru izen ditu, beste orrenbeste arte-moeta adierazteko: "quercus", "aesculus" eta "ilex". "Ilex" ortatik sortu zan gaztelerazko "encina", eta 1124'ean agertzen ornen da aurreneko aldiz "encina" bezala idatzia, Corominas'ek dionez (1). Aburu berekoa dugu Martin Alonso, itz ori gazteleran XV eta XIII mendeen artan sortu zala bait diosku (2).

Gure lumalari zar arek, beraz, IX mendean "Artea" idatzi zuan, bearbada, eta gero, XII edo XIII mendeaz gero, bir-idazle berri batek "Artea" ura "enzina" biurtu zuan. Len ere askotan esan dugun lez, bai bait dakigu Kukulla'ko dokumentu auek bee-erdiaroan aldaketa eta okerketa edo faltsifikaketa asko izan zituztela.

Orra or, irakurle, euskal-izen jatorrak beren izaera galtzen eta erderetatik artutakoei beren lekua uzten nola joan diran jakiteko adigarri pinpirik bat: Arteaga'tik Arteaa'ra, Arteaa'tik Artea'ra. Eta, Artea'tik, azkenean, Enzina'ra; orrela, espanñazaleen pozamenerako, euskal-itxura guztia galduz.

\* \* \* \*

RIPA.—Emen, berriro, euskeratik erderara itzulitako toki-izen bat daukagu begien aurrean. Laterara itzulia oraingoan, ez gaztelerara, aipatutako "enzina" ura bezala. Orregaitik, baleike, itzulpen au IX mendean larruki au idatzi zuan lumalari ark berak egiña izatea.

"Ripa", euskeraz, "uraren ertza" da. Bedi itxasoko urarena, bedi erreka edo ibai batekoarena. Emen zalantzarik gabe, "ibarra" esan nai du, eta baleiki gaztelerazko "ribera" laterazko "ripa" ortatik etortzea, "b" eta "p", bai euskeran eta bai beste izkuntzetan ere, beren artean errez aldatzen bait dira.

"Alia terra in Ripa auta juxta terra de Orvano", "beste alor bat Ripa zabalean Orbano'ren alor-ondoan", idatzi zuan gure lumalariak. Nik "auta", "zabal" itzuli dut, bestela, berez "aundiagotua", "geiagotua" esan nai duan itz orrek ez bait du emen zentzurik. "Auta"ren ordez "alta", "sakona" idatzi nai izan ote zuan gure lumalariak? "Auta", gaiñera, ez bait da laterazko itza. Ez latera zarrekoa ez erdiaroko latera baldarrekoa. Laterazko "alta" k berriz, ez du gaztelerazkoak bezala "beetik-gorako" neurria, ots, garaitasuna, adierazten, "goitik-beerakoa" baizik, sakontasuna; gaztelerazko "en alta mar" esaeran bezala.

Ripa bai; "ripa" laterazko itz jatorra da, baiña Bureba'ko autrigoiak ez ziran sekulan lateraz mintzatu, euskeraz baizik, eta bere lurraldeei euskarazko izenak ipiñi zizkieten ez laterazkoak.

Nola esaten ote zoioten, gure larrukiak "Ripa auta" esaten dion toki ari? IBAR-ZABAL seguruaski; IBARRAUNDI, agian; edo IBARRONDO, edo orrelako zerbait. Ez noski, Ripa auta!!!

\* \* \* \*

(1) "Diccionario Crítico Etimológico de la Lengua Castellana".

(2) "Enciclopedia del Idioma".

AQUA FIERCO.—"Alia vinea in Aqua fierco", "beste masti bat ur zugarian? "Fierco" ez da beiñere laterazko itza izan, ez Erroma zarrean ez erdiaroan. Uts egin zion beraz lumak gure lumalari ari; edo, aren atzetik, batetik bestera bein baiño geiagotan larruki au berridatzi zutenei. "Ferta" idatzi ote zuan aurreneko arek? "Ferta", "ugaria" da; latera zarrez "asea" esan gura duan "farta" ren aldakuntza.

Esan bearrik ez da beste itzulpen batekin egin dugula emen topo. Bureba'ko euskaldunek nola esaten ote zioten "Aqua Feria" ari? URETA, nere ustez, zuk beste izen egokiago bat aurkezten ez ba'didazu.

\*\*

BARCENAS.—"una terra ad illa Nave de Coreggo ad Barcenas". Bureba'ko Barcenas au, Naparroa'ko BARDENAS toki-izenaren aide da eta agian orixe izan zan lumalari ark idatzi nai izan zuan itza: guk len aztertua dugun itza: Bardenas. Denbora aletan, seguruaski, euskeraz, BARDENETA.

\*\*

CORELLO, COREGGO.—"in Corello uno ortu", "Korello'n baratz bat", eta, "una terra ad illa Nave de Coreggo ad illas Barcenas", "alor bat Korego'ko aran artan Bartzena aietan". Neretzat, bi itz oiek bat bera dira, seguruaski: Korella'ren aldakuntza. Koreaga abizena badugu gaur bertan Euskalerrian. Kerexeta'ren ustez Korella uri naparraren izena Orella'ren aldaketa dugu, aurretik "K" protetiku edo edergarri bat daramala. Orella, Aralar mendiaren azpian dagoan Araitz araneko Arribe'n auzo baten izena da. Lopez Mendizabal'ek berriz, Orella ta Orexa itz bera dirala dio. "Oro", edo "olo", eta "xa", "Ila" atzizki ugaritasun adierazle osoa.

\*\*

SEMPRUM.—"una terra in villa Semprum", "alor bat Semprum unan". Baiñan "villa" nekazaritzako etxe dotoreari ere esaten bait zioten, baleike emen "Semprum" giza-izena izatea"; Sempronio'ren laburketa; izen ori, jenitubu eran, "in vinea Monnio Simpronii", 1009'ko larruki batean agertzen bait da. Danadala, Semprum orrek euskal-kutsu aundia dakar. "Senper" enbor-itzez eta "um" atzizkiz osoa dala bait dirudi. Senper, 1625'ean euskal abizena zan Gipuzkoa'ko Goyerrin. Eta "senper" sustrai duten beste abizenak ere baditugu an bertan: Senpere, Senperegi, Senperena, Senpertegi...

"Senper", "Sent Peter", "Sent Pere" edo "San Pedro" ornen da, Pere esan bait zitzaion Pedro'ri erdiaroan.

"Un" atziakia berriz, ugaria dugu euskeran: Untzurrun, Unzurrunzaga, Aizpun, Irun, Irurtzun, Larrun eta abar. Nik, "un" ori, "tza"ren kideko atzizki ugaritasun adierazle bat dala esango nuke. "Larr-un", adibidez, "Lar-tza" edo "Lar-aga" dela: toki lartsua.

FRIDAS.—"una vinea in valle de Fridas", "Fridas aranean masti bat". Ez dut jakin aal izan Fridas au zer izan daitekean. Ez da Fridas erria, au Bureba'tik urrutixamar bait dago. "Erri" esan diot Fridas'i, baiñan gaizki; naiz berreun biztanle baiño geiago izan ez, "ciudad" baita legez: Españi'n txikiena.

\*\*

MARGALULI.—"una serna in Margaluri", "Margaluli'n larre bat". "R" oso errez eta maiz "L" biurtzen dalako, seguruaski Margaluri, genuan erri aren izena. Erdaldunentzat errezagoa bide da "L" agoskatzea "R" baiño. Orrela biurtu dute

"Albina" len Arbina zana; eta Albenitz, Arbenitz; Albaina, Arbaina; Albelda, Arbel-da, eta abar. Ikus, esan dedan orren adigarri bat:

Casalarreina, Errioxa'ko erri bat da. Erri ori, 976'ko larruki batean Naharruti agertzen zaigu. Geroagoko beste batean, Nafarru-uli. Eta geroxeagoko batean berriz, Nafarruri (3).

"Marga", izen askotan aurkizen dugun enbor-itza da: Marzana, Margoitio, Margaltza, Margarita, Martioda (Araba'ko erriak, azkeneko bi auek). Lopez Mendizabal'en aburuz, "marga" ori, "alga" da: "larre". Esan dezadan, alare, Lopez Mendizabal'ek ateratzen dizkigun itzetatik, geienak, gure iztegieta ez dirala agertzen. Ez da arritzekoa. Askotan idatzi izan dutan bezala, gure iztegiak, biologi edo bizitiari dagozkionetan oso-oso-oso murrizak bait dira.

Gaur, Araba'ko Bujanda'n, an ugari diran aitz-arteeri, "marga" esaten zaie. Agian ortik atera leike, aitzintxe aipatutako toki-izenen etimologiarako ari-mutur egoki bat. Margaltza ere Butron'go mendi baten izena ornen da ba.

**Latiegi'tar Bixente**

(3) Joxemari Artzailus'tarra. "Errioxa ta Burgos'ko euskera" Saski-Naski, zenbakin.

# ZUZENDARIARI IDAZKIA

Euskalduna izatea ori ote da? Galdera sakona auxe, sakonik bada. "Euskera-zaintza" edo aldizkari au, audaberriko lore eta atea alegia, euskeraren ederra izan bear dutelakoan nago. udaberrikoa beraz.

Pozik agur dezaioگون eta txalo, euskeraz idazteko sena dutenei edo degunoi eta oraindik geiago, bera mintzatu eta Euskalerra ohea egiten alegintzen direnei. Nik, susmo auxe daukat barrenean. Euskalduna gizabide atal bat degula euskerari buruz ari danean, bera zaindu sakondu eta izkuntza askatuagoa egiten ari geralako. Alaere, euskera soila zaintzea euskalerra-maillan, txiki gertatuko litzake, ondorio bezela beste auek alboratuko bagenitu.

Lenbizi euskalduna edo gizona, eta kristau erri bezela, doan kaltegarri gerta ez dakigun artu degun azia jorratu eta lantzen aleginduaz gure egin-bearra danekero, eta askatasuna degu ortarako ere, ainbeste aldiz aipatzen degun askatasuna bera.

**Pozaren pozez salto egin bear genduke, ori ala dala dakigulako, baña, atxili-purdi!...**

Gure euskalerra ontan sentzun falta nabarmen zaigu, geigizko egarriak jota goazelako, "zoriogintza jator baten bearra alegia". Era ontako bizikera berekoi ontatik irtetzeko ia ezaguera izaten degun PAKEA ETA ONA aal ditugula, —ori bai, alegindu—, eta ez litzake gutxi: itxaropengintza ere bearrezko zaigu, bestela gure "EUSKERAZAINTZA" eta alegin apurrak zer balio dute? ikasi bai baña era-kusteko, euskalduna eta aditzera emoteko, erlijioa ere, askatasuna degu, onartu ala ez...

**Madina'tar Benino  
19-IV-1990 Oñati**



# FILOSOFI GAIETARAKO IZTEGI TXIKIA (IV)

## PARADIGMA (Paradigme/Paradigma) ITZ-BIKOTE

Itz-bikote asko dira izkuntzetan, elkar katigaturik aoz ao dabiltzanak. Bata bestearekin etorri oi dira izlariaren burura. Dala ABOTS beretsu dutelako, dala ESAN-NAI berdintsuko diralako. Euskerak ez ditu gutxi bere alorrean. Bakan bazuk esango: "itza ta pitza", "aundi maundi", "saski naski", "argi ta garbi", "usu ta azkar", "irri ta parra", "urru-murru". Zenbat onelako BIKOTE gure euskeran!

## PATOLOGIA (Patologie/Patology) ERI-IZTIA

"Patologia" itza griegozko "pathos" (eritasun, gaitza, ondoeza) eta "logos" (izti, liburu, jakintza) itzatatik dator, eta ERI-IZTI (gaitzak aztertzen dituan jakintza) esan nai du. Jakintza onek, gaixoen ondoezak aztertuz gaiñera, makal-aldiko goraberek eta giza-soñean nabaitu ditezken aldakuntzak ere adierazten ditu. Ortaz, "patológico" dala esan leike, gaitzarekin gutxi-asko elkartzen dan guztia. "Leyes patológicas" GAITZ-LEGEAK esango genduke; "síntomas patológicos" ITZ-ZANTZUAK.

## PERSONALISMO (Personnalisme/Persolalism) NORTASUN-ESKOLA

Emmanuel Mounier (1905-1950) filosofu prantzitarra izan zan NORTASUN eskolaren sortzallea. Idaz-lan asko egin zituan bere bizi laburrean. Libururik famatuena: "Révolution personaliste communautaire" (Aubier, Paris 1935), "Introducción a los existencialismos" (1947) eta "Le personalisme" (Paris, 1949). Oso ezaguna da, 1932 garren urtean jaiotako "Esprit" aldizkaria. Mounier'ek aiseria eman, eta laguntzalle asko izan zituan bere aldamenean. Idazle oien laguntzaz gañera, eskola ortakoak ere dira garai bereko pentsalari ugari, geienak kristau zintzoak: N. Berdiaeff, M. Buber, Jean Lacrix, Etienne Borne, Paul Ricoeur, Mikel Dufrenne eta abar.

## PLURALISMO (Pluralkisme/Pluralism) ASKOTZAKERIA

William James (1842-1910) sendagille, sikologi-maisu eta filosofo goi-amerikarra degu eskola onen buru izana. Idatzi dituan liburu famatuena "Précis de psychologie" (Paris, 1921), "La volonté de croire" (1916), "Les formes diverses d'expérience religieuse" (Paris, 1906) eta "El pragmatismo" (tr. 1989).

Gizon sutsua izan zan. Biotz aundikoa. Biziari buru belarriz eusten ziona. Eta bizi-pozaren atzetik egunik egun ibillia. Bañan, ala berean, osasun gutxikoa, oso barrunkorra eta pentsamodu lasakakoa. Ez dio egiari begi garbiz begiratzen.

Komeni zaitena, dio berak, ori da egia. Nere onerako dan guztia, naiz eta bes-teentzat kaltegarri baldin ba'da ere. Zenbat buru, dio James'ek, ainbeste egi dira. Bakoitzarentzat berea. Egi mail asko dirala, dio. Ontasun mail asko. Zuzentasun mail asko. Orregatik, onen filosofoi eskolari "MAIL ASKO ZALEENA" esan oi zaio. Probetxua lege, ori da itz batean James jaunaren pentsakera. Segitzalle asko izan zituan bere denboran, Ipar-Amerikan eta Europan; bañan gaurko egunean filosofo zabartzat jo oi da.

### **PLUSVALIA (Plus-value/Surplus Value) GAIN-BALIOA**

Marx jaunaren "El Capital" liburuan agertzen danez, gizonaren lanari eman bear litzaioke tokirik oberena ekonomo gaietan. Giza-lana da, izan ere, berak dionez, ondasunik geienak sortzen dituan indarra ekonomo kontuan. Bañan toki ori, diruari (Kapitalari) eman ornen zaio, eta diruak daramazki irabazi geienak, "plus vaiia" deritzan sasi legearengatik. Diruak diruari bati-arazten dio, kapitalak kapitalari etekin edo errenta ematen; eta, justiziz gaiñeko balio orren erruz, kapitalari gañeratzen zaizka lanaren frutu diran irabaziak. Ori da, esate baterako, Carl Marx'en iritzia, "plus vaiia" edo GAIN-BALIO deritzan legeari buruz.

### **POSITIVISMO (Positivism/Positivism) IZADI-JAKINTZAKERIA**

"Positivismo" deritzan mintzatzean, Augusto Comte (1798-1857) prantzitar filosofo irauitzallea datorkigu gogora. Onek zionez, gizadiak iru egonaldi ezagutu bear ditu. Aurrenekoari "teoloji-aldi" deitzen dio. (garoa ornen da. Eta, militarrek eta tecioji-gizonak agintzen zuten garai artan, EGI OSOA jakiteko fedea ornen zuan gizonak, "fetiche" ugarien bidez lendabizi, "jainko askokiko" sinismenez geroago, eta "jainko bakarrek" errelijioz azkenik. Bigarrenari "metafisika-aldi" derizkio. Goi-filosofi zaleen garaia. Gizadiaren aldi ortan, metafisika-maisuak eta lege-gizonak buru diralarik, zenbait gogapen uts artzen dira egitzat. Bat, izadia; eta bestea, espiritua. Aldi oien ondoren, dio Comte'k, benetako salbazio eguna dator. Gizadia bere buruaren jabe egingo dan garaia. Gertakizunen azken erroak billatzen aritu gabe, gizonak beroien legeak ezagutuko; eta, beste munduko erlijio gauzak zokoraturik, jakintza bideetan aurrera joko. Garai artako "apaiz buru" jaunak, jakintsu eta industri-gizon aurreratuenak izango. Sei ikasgai nagusi onartzen ditu Comte'k: matematika, izarriztia, fisika, kimika, bizi-iztia (biologia) eta gizarte-iztia. Azken oni, ala berean, bi zati edo alderdi ikusten dizkio: "sociología estática" (GIZARTEAREN BARNE EGOERA) eta "sociología dinámica" (GIZARTE KEMENA). Kemen orri esker burutuko ornen da, gizadiari txit bearrezko zaion iraulketa.

### **PRACTICO-INERTE (Practico-inerte/Practico-Inert) ERAGINKOR-GELDIA**

"Práctico-inerte" bikotea (itzez itz ERAGINKOR-GELDIA) Sartre'k sortua da bere "Critique de la raison dialectique" liburuan. Berarekin zer esan nai duan adierazteko, irudi au jartzen digu: Txina'ko nekazariak "Imperio" aldian bere lur puska itxi eta mugatzen zuanean, zalantzarik gabe, bere etxeko onari bakarrik begiratzen zion. Bakoitzak bereari. Bañan, oso sakabanaturik zeudelako, noski, eta iñoiz elkarterik ez zutelako, ain zuzen ere, ur-ekartze, ur-biltze eta beste erri-lan aundiak egiñazi zituzten, eta Txina'ko Gobernuak berak ere lege bereziak eman bear izan zituan, txinar guztien onerako. Irudi ontan, nekazarien sakabanatuta egoteari INERTE (indarrrik gabeko GELDI) deitzen dio Sartre'k; eta GELDI orrek sortarazten duan ondore onari (erri-lan aundiak egiñari) PRACTICO (benetako ERAGIN indar). Bai eta ezko itz-joku ortan ertetzen da, nunbait, Sartre'k "práctico-inerte" izendatzen duan bikotea.

## **PRAGMATISMO (Pragmatisme/Pragmatism) EKINTZAKERIA**

"Pragmatismo" edo EKINTZA-ESKOLA (ekintzaren aldeko eskola) deitzen zaio, William James sendagille ipar-amerikarrak (1842-1910) eraturako irizbideari. Beratzaz mintzatu gera, "Pluralismo" itza aipaturakoa. Filosofo onen ustez, egiak (egi izateko) ekintzarako egi bear du izan. Ez ornen da egi, probetxurik ez dakarren egia. Eta giza-adimenaren ekinkizun nagusia ez ornen da EZAGUTZEA, EKINTZARAKO ezagutzea baizik. Oñarri sendorik gabeko pentsakera auxe! Indarkeriari zabaltzen bait dizkio atek.

## **PRAXIS (Praxis) ARIKETA**

Griegozko "praxis" itzak "zerbaitetarako alegiña" esan nai du. Zerbait iristeko jarduketa, edo berdin dana, ARIKETA. Gauzak ARIANARIAN iristen bait dira. Itz onek leku aundia artzen du Marx jaunaren filosofo barruan. Gizonak presa aundia ornen du bere inguruko mundua eraberritzeko. "Orain arteko filosofoak (dio Marx'ek) mundua ezagutzen saiatu dira itsu-mustuan. Guk berriz menderatu egin nai degu mundua. Lanaren bidez eraberritu". "Praxis" edo lanean aritze orrek biurtzen ornen du gizona gizon bete, eta orrek oñarritzen langilleen bizi-mailla. Lan-egite ortatik ornen dator giza-maillen arteko burruka ere, iñoiz amaitu eziña, eta, azken frutu bezela, langilleen garaitza.

## **PRELOGICA (Prélogique/Pre-logical) LOJIKA-AURRE**

"Prelógica" edo LOJIKA-AURRE esan oi zaio, Lévy-Bruhl'en eskolako zoziologi-zaleen artean, antziñako erri txit atzeratuen pentsa-moldeari. Auek, jakiña, ez dituzte lojika elduaren arau-legeak zeatz gordetzen; bañan bai, nolabait ere, beren jakin-maillako arrazoi bideak eguneroko bizitzan, eta sorgin-oituren arteko goraberatan. LOJIKA-AURRE edo "lojikara dijoan bide" deitzen diote eskola ortako gizarte zaleek, erri ikas-gabeen pentsakerari, oiek lojekarik ez balute bezela.

## **PROBLEMATICO (Problematique/Problematic) ZALANTZAZKO**

Baietza iru eratako izan ditekela dio Kant jaunak: EGITAZKO, zerbait gertatu dala aitortzen degunean; NAITANAIEZKO, matematikaren antzeko zerbait aipatzean; eta DUDAZKO, zerbait zalantzarri edo kolokan egi ote dan ikusten degunean. Erderaz "asertivo" esan oi zaio EGITAZKO baietzari, "apodíctico" NAITANAIEZKOARI, eta "problemático" DUDAZKOARI.

## **PROGRAMACION (Programmation/Programming)**

### **ARAUKUNDE: ARAUKUNTZA**

Electronikak ekarri digun teknikaren mundua, dana arau-legez gobernatzen da. Arau-legeak, "mággquinas filosóficas" deritzaien tresnak zuzen "agindu" dezaten; eta arau-legeak, "servomecanismos" edo morroi-makinek artutako "aginduak" bete ditzaten. Elektro-makina zertarako antolatzen dan, au da, nolako arau-bideetan sartzan dan, ala lan egingo du. Makina itsua da, agindu zaiona egiten du, bañan berez millaka bideen zuzentzalle ereiki da. Orregatik, naiz eta elektro-makina gizonaren seme izan, asko lagundu dezaioke giza-adimenaren argitasunak eta indarrak gainduaz. Une batean egin dezazke makinak, gizonari egun osoak artuko lizkioteken kontu-lanak. Eta ori, ARAUKUNDE edo "programación" deritzaion elektro-makina prestatzeari esker.

## PROSPECTIVA (Prospective/Prospective) IKERKUNTZA

Oraingo aldia (oraiña) ez ornen da lenaldiaren frutu; eta, ongi eratu nai izate ezkeroz, geroari begiratu bear ornen zaio. Orrela mintzatzen da Gaston Berger, filosofi eskola onen sortzallea. "Iker dezagun geroa, gaur zer geran jakiteko, dio berak, eta ez oraiñari begiratu, biar zer izango geran sumatzeko". Alde-erantzizko pentsa-modu onek ba-ditu jarraitzalleak, aldi ontako filosofoen artean; eta 1957 garren urtean jaio zan, ain zuzen ere, Nazio Arteko Ikerkuntza Etxea, "Centro Internacional de Prospectiva".

## PROYECTO (Projet/Project) XEDE

Ba-leike "proyecto" itz au izatea, Sartre jaunak erakusten duan filosofiaren muiña. Eta, oso illun zale degunez, "gizona bere izatean koloka dabillen izakia" dala esaten digu. Zerbait izateko xedea ornen du, eta izan-xede orrek ematen ornen dio izatasun. Dana dala, gizona ez ornen da xede, gogo, asmo ta gura besterik. Korapilloz josirik eta samintasun dariola dator Sartre'ren libururik zabal-duena: "El ser y la nada" gazteleraz itzulia (1950).

## PSICOANALISIS (Psychanalyse/Psycho-Analysis) GOGO-AZTERPIDE

"Psiquis" deritzaion giza-barrenaren azterkuntza, Freud'ek sortua da, eta zenbait buru-gaixotasun sendatzeko asko erabilli oi dana. Esnai oartzen ditugun gauzaz gaiñera, beste asko ere ba-omen ditugu gure baitan, erdi oartuak batzuk, eta oartu gabeak besteak; eta, oiek guztiek osatzen bait dute gure gogo-barrena, guztiak arakatu, gogoratu eta, nolabait ere, ostera bizitu bear ornen dira, zenbait gaixo-erien buru-kezkak arindu aal izateko. Ba-leike Freud'ek garrantzi aundiegia emana izatea seksu-griñari, Jung eta beste jarraitzalle askok diotenez; bañan, gogo-sendagintzak egindako aurrerapenei esker, "psico-analisis" bera indarberritu egin da, buru-eri askoren onerako.

## PSICOLOGISMO (Psychologisme/Psychologism) SIKOLOJIKERIA

"Psicologismo" izeneko filosofi eskola onek asko urritzen du, eta aultzen, giza-ezagueraren indarra. Gure ezagutze eta pentsatze guztiak, izan ere, ezer gutxi omen dira buruz kanpoko egia atxikitzeke. "Psiquis" barrenean sortu eta burutu bear duten jardun-ariketak besterik ez ornen dira. Orregatik, dana "sikoloji" kazkar biurtzen eskola oni SIKOLOJIKERI dei genezaioke.

## PSIQUE, GOGO

Aipa dezagun grezitarren mito-kondairako ipuia. PSIQUE (emakume) eta EROS (gizon) elkar-maitale ornen ziran. Neskak ez zeukan mutillaren aurpegia ikusterik; eta gau batean, maite miñez, krisaillua piztu zuan, EROS nolakoa ote zan jakitearren. Itxura gaiztokoa zala esaten bait zioten bere aizpek. Bañan orra, krisaillua piztean, olio tantoa erori irakiten Eros'en aurpegira, eta onek igesiari eman. Arrezkeroz, Afrodita'ren inbirizko ziztadak eramanez, PSIQUE zora-bearean ornen zebillen maitearen billa, azkenik betiko elkartu ziran arte. Orreraño grezitarren ipuia.

Griegozko "psique" itzak "ats" esan nai du. Bizi-arnas. Giza-barruko biziaren kabi dan "gogo" edo "anima". Esate baterako, gizonon sentipen, griña, irrika, irudi-indar eta gogoeta guztien sorburu. Sikoloji-zaleen artean, Sigmund Freud (1856-1939) eta C. Gustav Jung (1875-1961) geienik mintzatzen dira "psique" dalakoari buruz, beren iritzi desberdiñak agertuaz. Freud'ek iru mailla ikusten



ditu "psique" orren bizikeran. Lenengo bizi-maillan, norberak oartu gabe bere baitan darabilzkian joerak eta kemen-bultzadak; bigarrenean, nor bakoitzaren izaera (ni, neroni; zu, zerori...) eta nor orrek kanpoko munduarekin dituan arrenak, oarkizunak, arrazoiketak eta abar; eta irugarrenean, "super-ego" izendatzen duan "gain;ortasuna". Onek, utsik egin gabe, norberaren kultur-ereduari jarraiki, berezko joerak eta griñak batzutan zapaldu, eta bestetan indartu egin oi ditu. Ori dio Freud'ek.

Jung'ek, bere aldetik, "animus" eta "anima" bereizten ditu. Arra bat eta emea bestea. Biak elkaturik orren dabilta, bai gizona, bai emakumezko soin-korputzetan. Freud'en ikaslerik kutunena izanik, Jung ez dator bat bere maisuarekin, "psicoanalisi" egite kontuan. Ez bait dio seksu-indarrari, Freud'ek ainbat garrantzi ematen, gogo-barrenaren aldarreak aztertzean.

### **PULSION (Pulsion) BARNE-ERAGINA**

Laplanche eta Pontalis'en Iztegia datorrenez ("Diccionario de Psicoanálisis", Labor, Barcelona 1971), "pulsión" eta "impulso" ez dira berdin. "Impulso" kanpo aldera egiten dan bultzada dezu, "pulsión" berriz bizidunak bere barruan darabilkian mugi-indarra edo ERAGIÑA. Eragin mota asko dirala dio Freud'ek, eta guztiak bi sailletan banatzen ditu: BIZI-ERAGIÑAK (bizirako irrika altsuak) eta ERIO-ERAGIÑAK (eriotzarako alegin larriak). Batzuk eta besteak giza-suin biziaren osagarri dira, eta ortxe sartu ditezke jaiotzetik il arterañoeko barne-mugida guztiak.

### **RACIONALISMO (Rationalisme/Rationalism) ADIMEN-ESKOLA**

"Racionalismo" deritzaten eskola guztiek, ADIMENA ipintzen dute giza-ezagupenen oiñarri bakar. Descartes'ek adimenari, "instrumento universal" ("tresna orokar") deitzen zion; adimen-zaleek berriz, "gizonarena bakarrik dan almen-birtute". Ba-dira, arrazoi-zaleen artean, giza-adimen utsez jakiten ez dana ezin ditekela egi izan diotenak. Sinismena ez orren da egiazko jakite iturri; eta ezin konponduzko asarrea jarri nai lukete giza-adimenaren eta goi-fedearen artean. Alperrik ordea. Liburu ontan "absurdo" itza aipatzean genionez, egi guztiak ez dira mail berekoak, guztiak egi izanik. Saio-jakintzak ("experimentalak"), metafisika (benetako filosofi lanak), matematikak (edo "ciencias exactas", jakintza zeatzak deritzaienak) eta Erljioa (goi-sinismenes dakizkigun egiak) mail banako jakin-gaiak dira. Guztiak ez dira era berean ikasten, bañan guztiak EGI BERBERA dan Jaungoikoarengandik datozkigu, dala zentzuen, dala arrazoiaren, dala fedearen bidez. Ez da eziñezkorik, batasun arrigarri baikik, adimenaren eta teolojiaren artean.

### **REALISMO (Réalisme/Realism) EGITASUN-ESKOLA**

"Realismo" latinezko "realistas" itzetik dator, eta "res" edo GAUZA gogorazten digu. Egitasun eskola onek, GAUZAK diranez dirala aitortzen du. GAUZAK berez ez dirala, guk pentsa, ez pentsa. Eta, zerbaitetan oker irizten ba'degu, gu okerbideratzen gera, GAUZAK beren izatean dirautelarik. Zuzen oldoztea, DAN uraxe ezagutzea da. DAN gauzarekin batean joatea. Eta zer da ori egia besterik? Askotxo dira tamalez filosofoetan, "idealismo" txar batera jo dutenak; eta, Jaungoikoa izaki guztien EGILLE dala ukaturik, beren azalpena eskeintzen digute munduari buruz. Eta zertara datoz? Munduaren egitasuna ukatzera. Gizonaren ezagumenari indar guztia kentzera. Burutik eroenak esan ez dituan bezelako itxuragabekeriak esatera: Jaungoikoaren, gizonaren, munduaren eta pentsa ditez-

ken gauza guztien ezereza. Guztia UTS dala aitortzera datoz, Jainkoaren izena zokoratzen asi ziran gizontxo sasi-jakintsuak. Azken negargarria, orratiok.

### **REDUNDANCIA (Redondance/Redundance) GAINDIDURA**

"Cibernética" edo "makin-gidaritza" deritzaion jakintzak, asko ugaritu ditu munduko berri-bideak. Gaur inñun zer gerta, segundu gutxitan jakiten da lur-bas-ter guztietan. Bañan albiste zabaltze ontan ere, kontuan artzeakoak dira sortzen ari diran aurrerapen galantak. Ba-da teori bat, albisteak arreta aundiagoz entzun ditezen, ikur-señalez ornitu bear dirala diona. Alik eta señaile ugarienez ornitu ere. Adierazgarri oien ugariari, erderaz "redundancia" eta euskeraz "gaindidura" deritzaioke. Claude E. Shannon eta Warren Weaver dituzu teori onen sortzalleak. Zenbateko albiste daraman mezu bakoitzak, ainbateko zabaltze aukera duala diote; eta, aukera ori zeatz neurtzeko, matematika-lege arrigarriz baliatzen dira.

### **REIFICACION (Réification/Reification) EZABATZEA**

"Reificación" itzak "giza-nortasunaren ezabotzea" esan nai du. Nortasun duan gizona jostallutzat ertzea. NOR dana GAUZA UTS biurtzea. Giza-barrengo nortasunaren akitzea. Ori gertatzen bait da, gizonari kanpotiko bultzadak eta animalie-ri bazelako eragin gogorrek gainera botatzen zaizkionean. Ez izan, lan azkarre-giak, lan astunegiak, lan neurriak gabeak oso EZABATZEN du gizona.

### **RELATIVIDAD (Relativité/Relativity) ARREMAN-LEGEA**

AlberTo Einstein degu "relatividad" izeneko teori aipagarriaren sortzallea. Odo-lez judutar, Alemani'ko Baviera'n jaio zan 1879'ko epiillaren 14'an, eta Suiza'ra aldatu ogei ta bat urtekin, gero 1940'an Ipar-Amerikara igesitu zan. Fisika'ko irak-sle izan zan zenbait Unibersidadetan: Berna'n (1908), Zurich'en (1909), Pra-ga'n (1911), eta Berlin'en (1913). Mundu guztiko lenen gerra bukatzean, Txina, Japon eta Ipar-Amerikan ibilli zan ikastaldiak zuzendu eta elkar-izketak ematen. Fisikako Nobel Saria eman zioten 1921 garren urtean. Nazitarren beldurrez, Ipar-Amerikar egin zan, eta 1934'tik 1945'ra Princeton'en ari da erakusten. Antxe il zan 1955'ko apirillaren 18'an.

Einstein jaunaren pentsakerak iru aldi berezi agertzen ditu: Aurrenekoan (1905), "relatividad restringida" edo "arreman-lege laburra" sumatu zuan. Ordu-rarte izkutupean zeuden fisikako gertapen asko argiraten ditu lege onek. Izakien GAIA ("materia") INDAR biur ditekela dio, eta INDARRA berriz GAI ("izagai"). Ortan, "ekuazio" edo berdintza (gaur fisikari guztiek ontzat emana) sortu zuan. Argiari buruz ere, lege au agertzen du: Argiari ezin dakiokela arintasunik erantsi edo gaindu; bañan ezta urritu edo gutxitu ere. Beti arintasun bera daramakila, segunduko 600.000 kilometro.

Bigarren aldian (1914), "relatividad generalizada" edo "arreman-lege nagusia" igertzen du. Izadi osoa (ezin konta aala izar eta guzti) bere joanean dijoa, arriga-rrizko erakar-idarrak eraginda. Gure "geldia" (lur ontan geldi gaudela iruditzen bait zaigu) eta izadi osoaren "ibillia" ezin ditezke aldebanatu. Gure lurak (bere fisika'ko lege guztiekin) eta izadi osoak elkarren arteko arremanak dituzte. Elkar-zerikusi ugariak. Orri deritzaio "arreman-lege nagusia".

Einstein'ek, irugarren aldian (1950), izadiari buruzko ezagupen guztiak batera-tu nai izan zituan, eta "ekuazio" nagusi baten billa ibilli zan, fisikako arazo larrie-nak argitzeko: "izadiko erakar-indarra" edo "gravitación universal", "ondulato-rioa" eta "cuántica" deritzaian teori-legeak, "elektro-indarra" eta abar.

Mende ontako jakintsurik aundienetakoa Einstein izan zala esan genezake; bañan ez degu aaztu bear gai oietan beretan jardun ziralda beste fisikari ospetsu ere: Poincaré, Lorentz, Planck eta abar.

## **SEMANTEMA (Sémantème/Semanteme) ELE ARRUNT**

"Linguística" edo izkellaritza deritzaion ikasgaiari, "semantema" deitu oi dira iztegiako ELE ARRUNT geienak: izen, aditz-erro eta izen-lagun (adjetivo) guztiak. ELEAK batzutan beren abots doñuen berdintsutasunez elkartzen zaizkigu (egi, begi, segi...); eta bestetan beren esan-naiaren antzaz (itzegin, mintzatu, esan...).

## **SEMANTICA (Sémantique/Semantique) ADIERAZ-LEGE**

"Semántica" itza griegozko "sema" (ADIERAZ) errotik dator; eta, itzen doñu edo abotsa alde batera utzirik, beroien ESANA artzen du kontuan. Itz bakoitzak ZER ADIERAZTEN duan, eta ESAN orrek izan dituan aldarteak. Michel Breal jaunak erabili zuan izen ori aurreneko aldiz 1883 garren urtean; eta bi alderdi banakatzen ditu izkellaritzaren barruan: "fonética" edo itz abotsen iztia eta "semántica" edo itzen ADIERAZ-LEGEAK (esan-nai legeak) biltzen dituana. "Semántica" barruan bi bide ditugu: "via sincrónica" (garai jakin batean itz batek nolako esan-naiak izan dituan gogoratzea) eta "via diacrónica" (garai desberdinetan eta histori-zear itzak izandako goraberak aztertzea). Ferdinand Saussure izkalaria ere era ortan mintzatzen zaigu.

## **SEMI OLOGIA (Sémiologie/Semiology) IKUR-IZTIA**

"Semiología" griegozko "semeion" eta "logos" (IKUR eta IZTI) itzez osatzen da; eta ikur edo aztarrenen izti edo jakintza esan nai du. Ortaz, "semiología médica", gaitzen aztarrenak antz-ematea izango; "semiología marítima", itxas bide-tan erabiltzen diran ikurak ezagutzea; "semiología social", gizarteko iritzien aldarteak nabaitzea. Esate baterako, giza-jakintzarik geienek beren "semiología" dute. Izkellaritzak ere bai.

Nolako itzak erabiltzen diran (motzak, luzeak, gogorak, legunak...) kontu artzen du, zer esan nai duten "semantirako" utziaz.

## **SIMBOUCA (Symbolique/Symbolic) IRUDI-MAILLA**

"Símbolo" itzak bi zentzu izan dezake erderaz. Bata IKUR edo "signo" (orrela matematika-gaietan "signo positivo" BAIEZKO IKUR eta "signo negativo" EZEZKO IKUR esan oi da); eta bestea IRUDI edo "semejanza" (orrela "La bandera es símbolo de la patria", "Ikurriña erriaren irudi da" esango IRUDIAK beraz berekin du antzadun izatea. Zeren IRUDI izan, aren antza adierazten. Aztaga (pixua) zuzentasunaren IRUDI dala diogunean, aztagaren erdi-erdiko orratz orrek, nolabait ere, zuzentasunaren oker-eziña gogorazten digu. Erri-ipuiak, eta batez ere aoz-ao zabalduak, IRUDIZ josirik etorri oi zaizkigu; eta, IRUDI oien barren zentzua dala bide, erriaren pentsakera igerri genezake, bai filosofi, bai erlijioari buruz. Levy-Strauss jaunak oarratzen digunez, munduko gizarte guztiak IRUDIZ baliatzen dira beren oiturak eta erakundeak adierazteko. IRUDIAK, zerbaitezko antza besterik ez dan ezker, toki aundi uzten dio irudimenari, norañoko esanaia ote duan asmatzeko. Eta irudimenaren lan ortatik sortuak dira erri-ipui eder ugariak.

## **SINCRONIA (Synchronie/Synchrony) ALDI BERA**

"Sincronía" izkellaritzan erabiltzen dan itza da: Edozein izkuntza aztertzean, ALDI BEREAN agertzen dituan zertzeladak neurtzen ba' ditugu, "sinkroni" bidean gabilta. Eta, denboretan geiegi luzatu gabe, onelako erriak zer-nolako izkuntza darabilkian jakiteko, "sinkroni" moduko iker-lanetan sartzen gera. ALDI EZ

**BEREKO** aldarreak, berriz, eta izkuntza baten esakerak histori-zear izan dituzten goraberak, "diacronía" deritzaion alorrean biltzen dira. Oso da aipatua, gai oni buruz, Ferdinand de Saussure (1857-1913) jaunaren "Curso del lingüística general" (Buenos Aires, 1945).

### **SINTAGMA (Syntagme/Syntagma) ZATIDUN ITZA**

Izkelaritzan "sintagma" deritzaio, zenbait zatiz osatutako itzari. Itz batek izan bait dezazke beregan bi ta iru osagai. "Derizkio" itzak, adibidez, iru osagai ditu: IRITZI aditzaren erroa, NORK irizten duan ("arek") eta ZERI irizten DION ("ari"). Bi ta iru zatikiko itzak "sintagma" dituzu: "argizagi", "illunabar", "illargi", "baizabal", "mendiburu", "sorginkeri", "ollategi"... "sagarmendiruntz", "arpauso-kale", "igarondora", "sagardotegitik" eta millaka orrelako. "Sintagma" ere dira, itz bakar bezela erabili oi diran esakuntzak: "eskerrik asko", "gutxi gora bera", "ez da zeri", "Jainkoa lagun"...

### **SOCIALISMO (Socialisme/Socialism) GIZARTE-POLITIKA**

Azken berreun urte auetan, zenbait politika-talde sortu dira, "social" edo GIZARTE izenez jantzita. Emeretzi garren mendean, aurrenik "utópicos" deritzaienak ikusten ditugu. Beren "sozialismoa" aberats jendeen borondate onez eta gizon birtutetsu batzuen eredu zatorriko zala uste bait zuten. "Anarkistak" edo LEGE GABEAK, berriz, aginte eta lege kutsu duan guztia indarka irauli, eta erriaren garaitza gañean zala zioten. Irugarren zozialismoa Hegel eta Marx indarzaleek eraturakoa. Giza-maillen arteko burruka gogorrean, "kapitalistak" (dirudunak) galduta zeudela zioten, eta langilleentzat izango zirala aurki, berak beren lanez sortzen zituzten ekonomi-ondasun geienak. Ikus "Anarquismo" eta "Marxismo" itzak liburu ontan bertan. Marx'en politika eskolak beste bideak artu ditu XX garren mendean. Vladimir Ilitch Ulianov (1870-1923) jauna, goitizenez Lenin, Marx'en erakutsiz baliatu zan aurreneko Gobernu Komunista eraikitzeko. Soviet'tarren Alderdi Komunista, Errusi guzian zabaldua. "Social-demócratas" deritzaien politikalarientzat, "Kapitalismoa" zenbait aldaketa egokien bidez "sozialismo" bihurtuko da. Onez onean eta elkar-burrukan ari bearrik gabe. Nazitarrak ere "social" izenez jazten dira, "Nacional Socialismo" deritzan politika dala bide. Munduko bigarren gerra aundia bukatu ondoren, "sozialista" izenez azaltzen dira, beren artean kontra dabiltzan jendeak: Errusi, Txina, Cuba, Suezia, Yugoslavia Albania eta Afrika'ko zenbait nazio. "Socialismo" itzak ez bait du gaurko egunean gauza jakin bat (politika berezi bat) adierazten.

### **SUBJETIVIDAD (Subjetivité/Sucjetivity) NORBERATASUN**

NORBERA, orra or aditz-joku guztietan nolabait sartzten dan itza. "Nolabait" diot, sei eratan sartu ditekkelako. Iru (ni, zu, ura) bakarraren einean; eta beste iru (gu, zuek, aiek) askoren einean. Ni NOR, zu NOR, ura NOR, gu NOR, zuek NOR eta aiek ere NOR bait gera. Bakoitzaren NORTASUNA sartzten da, beraz, aditz-joku guztietan. "Joan", "egin" aditz-izen uts ditugu. Mugatu gabeak. Eta ba-dirudi aditz oien esan-naia aidean geratzen dala, NORTASUNAREN laguntzarik gabe. Ala berean, aditza edozein eratan jokatzen degunean, NORBAIT'en bearra izaten degu. Orrela, "nago" esatean, NI NERONI jar dezaiokegu aurretik; "zau-de" esatean, ZU ZERORI; "dago" danean, URA BERA; "gaude" diogunean, GU GEROK; "zaudete" esatean, ZUEK ZEROK; eta "daude" esatean, AIEK BERAK. Bañan aditzak bi sailletan ipiñi ditezke. Batean, "transitivo" deritzatenak, au da, beren "zuzeneko osagarria" ("complemento directo") duten aditzak; eta beste saillean "intransitivo" diranak, au da, "zearkako osagarri" ("complemento indirecto") dutenak.

to") besterik ez dutenak. Euskerak erabat bereizten ditu bi saillak, bakoitzari bere aditz-laguna erantsiaz. IZAN aditza bitara erabiltzen bait da. "Ni naiz, zu zera..." diogu "intransitivo" diran aditzetan; eta "nik det, zuk dezu..." beste guztietan. Azken auetan, NOR bakoiza K izkiarekin bat eginda agertzen zaigu. Izan ere, K izki orrek berak adierazten bait digu, nolako aditzen artean gabiltzan.

#### SUBLIMACION (Sublimation) SEKSU-OKERKERI

"Sublimación" itzak GORALPEN esan nai du berez; bañan, Freud'ek erabiltzen duan eran, ez da seksu-indarraren okertze besterik. Benetako "neurosis". Freud'ek EROS deitzen dion kundetasuna (sexualidadea), zenbait gaixoetan oker-bideratu egiten da, eta seksu-gai ez diran gauzetara saiestu. Freud'ek, bere ikasle kutun Carlos Gustavo Jung'ek berak aitortzen duanez, geiegiazko garrantzi eman oi zion kuntze-indarrari, gaixo-erien sendabideetan. Dana dala, berak "sublimación" izendatzen duan "neurosis" ori, egiazko SEKSU-OKERKERI dala esan genezake.

#### **SUPER-EGO (Surmoi/Super-ego) GAIÑEKO NI**

"Psico-análisis" edo GOGO-IKERKETA egiterakoan, Freud'ek iru mail ikusten ditu giza-gogoaren barruan. Aurrenik, oar-gabetanikan darabilzkigun sentipen-griñak, kutixi-irritsak eta bizi-eragiñak. Oien sail osoari URAXE deitzen dio. Gure baitan dagon URAXE. Uka eziñezkoa, alegia, eta kontuan eduki bearrekoa. Bigarren maillan NORBERA dabil. NOR bakoitza bere IZATEAREKIN. Eta nortasun ortan, bakoitzak bere iritzian bete nai lituzken xede-asmoak: gora-naiak, atsegiñak eta gose-egarriak. Mail oni NI deitzen dio. Neronen egi. Eta, azkenikan, GAIÑEKO NI ipintzen du. Ori ornen da, garen barruan darabilkigun EPAILARI edo "jueza". Ez berez gurea, kanpotik erantsia baizik. Gizarteko oi-legeek eratu eta agindua. Txikitatik inguru-giroan ezagutua. Pakean uzten ez gaituan "epailari" orri SUPER-EGO deitzen dio, GAIÑEKO NI. Eta iru mail oien artean sortzen ornen dira millaka barne-iskamil eta ondo-ezari gogorrenak. Ala dio beintzat Freud jaunak.

#### **SUPERESTRUCTURA (Superstructure) GAIN-ERAKUNDE**

"Superestructura" itza, Marx'en liburu nagusi batean bakarrik agertzen da, eta Federico Hengels berak (1820-1895) oso gutxitan erabiltzen du. "Materialismo dialéctico" aitortzen duten Marx'tarrek ordea maiz darabilkite. Bi mail ikusten dituzte gizartean: erriaren ekonomiak osatzen duan azpi-oiñarri edo BE-ERAKUNDEA (ikus itz au "infraestructura" aipatzen degunean), eta "kapitalismoak" erriari jartzen dizkion GAIN-ERAKUNDEAK: gobernu-era, gizarte legeak, filosofi pentsaketak, kultura eta elerti maillak, erlijio oiturak eta abar. Oiek guztiak arras aldatu bear dirala diote, eta GAIN-ERAKUNDE berriak ipiñi, benetako erri "sozialista" jaio dedin. Erlijioa batez ere kendu bear ornen da, lo-zorro guztien sorburu dalako. Pentsa-modu doillorra Marx'en jarraitzalle purrukatuek dakartena!

#### TAUTOLOGIA (Tautologie/Tautology) BERRESATE

"Tautologia" itza griegozko TAUTOS (gauza bera) eta LEGEIN (esan) bi itzeta-tik dator; eta, bai narrats xamar idaztean, bai batez ere ala-olako itzaldietan maiztxo egiten dan ajea da. Bein ta berriz gauza berbera alper-alperrik esatea, alegia. "Zuek denok etorri zerate (au eta ura egitera), zuek denok etorri (nere itzak entzutera), zuek denok etorri (jaialdi ontan alaitzera)... Izkera itxusitu egiten bait da, alperrikako BERRESATE oien erruz. "Tautoloji" ere dala diogu, pen-

tsamentu bera era berdintsuz eta tajurik gabe, naiz beste itzekin, bein eta berriz agertzen danean.

### **TECNICA (Technique/Technics) EGIKERA**

Gizona berez da trebea ("tecnico"). Eta beti billatu izan du, bere aginkizunak burutzeko modu alik egokiena. Ots, "tecnica" edo EGIKERA alik onena. Jakiña, gizona jakintsu egin dan neurrian EGIKERA gero ta bikaiñagoak aukeratu ditu. Trebetasunez (teknikaz) aurreratu da. Liburu ontan ikus zenezake ("cibernética" edo MAKIN-GIDARITZA aipatzean, adibidez) nolako aurrera-bidetan gabiltzan gaur, "tecnica" dan mundu arrigarri ontan.

### **TECNOLOGIA (Technologie/Technology) EGIKERA-IZTIA**

Aspaldi du gizonak asmakizun egokietarako zaletasuna (Babel, Icaro, Arquimedes...); bañan XX garren mendean asten da teknika aroa. "Tecnologia" itza griegozko TEKNE (lanbide, eginkizun) eta LOGOS (jakintza, izti) itzetatik dator. Giza-lan guztiak aztertzen ditu, bakoitzak zer tresna bear dituan, zein eratan ondoenik erabil ditezken, eta industri-bidez irabaz-frutu ugarienak nola eman dezazken ikusiaz. Iru laguntzalle nagusi ditu EGIKERA-IZTIAK: matematika, fisika eta kimika. Asmakizun egokien jakintza da, eta giza-lan guztietaraño zabaltzen zaigu. Benetan arrigarriak ditugu azkenaldi ontan burututako aurrerapenak: "elektro-indarra", "millaka kimika-gai berriak", "atom-indarra", "satélites" izeneko mezugaiullak, "kosmos zearko ibilli-aldiak eta abar. "Supersónicos" deritzaien "soñuz-gaiñeko ontziak, orduko 3000 kilometro dagizkiten egazkiñak, eta orduko 10.000 km. egiteko prest dauden egazkin berrienak teknika-aro ontako aurrerapenik miragarrienak dirala esan ditek.

### **TEMPORALIDAD (Temporalité/Temporality) ALDIKORTASUN**

Leena, oraiña eta geroa. Orra or gizonari buru-austerik pranko ekarri oi dioten iru itz gogoangarri. Leena izan zan (igaroa igaro), etorkizuna ez da etorria (geroa gero), eta oraiñaldia une auxe besterik ez da. Laburrik laburrena. Gogora orduko, igaroa. Eta unerik une, egunik egun, or dijoa gure bizia. Or, gure apeta, gure amets, gure ardua eta alegin guztiak. Errekako urak itxasora bezela, ala dijoaz gure guzti-guztiin egunak. Noruntz ordea? Gerenezko igaro bear onek zearo atsekabetzen gaitu. Ala zion euskal olerkariak: "Bai dala ituna beera bear au, nik ez nai eguna biurtzerik gau". Goi-sinismenik ez izatera, ezin eramanezko kupigarri izango litzake giza-izaera. Eta ezin ulertuzko illuntasun uts izadi osoa. Negar-bide txit saminetan galtzen dira Sartre, Heidegger, Bergson, Hegel, Nietzsche eta izadiz gaiñeko federik ez duten pentsalari koskor guztiak, egi sakon oien aurrean jarritakoan. Aldikortasuna etsipen garratz biurtzen zaie. Avila'ko Teresa Donea berriz kantari ari oi zan geroari begira: "Y tan alta vida espero, que muero porque no muero". Betikotasunak poztien du gure biotza. Eta Kristogan degu aldar-terik gabeko zorientasun betea. Alleluia!

### **TRANSFORMISMO (Transformisme/Transformism) GIZA TXIMU ESKOLA**

"Evolucionismo" (ALDA-LEGE) eskolak, erakutsi ere, izaki guztiak (bizidunak eta gabeak) izatez aldatu egiten dirala erakusten du. Denboraren denboraz, leen era artako izaki zana beste onelako biurtu omen ditek. Eta izadian diran izaki guzti-guztiak omen daude alda-lege orokarraren mendean. Ikus zenezake liburu ontan, "evolucionismo" orri buruz geniona. "Transformismo" deritzan eskolak, berriz, gizonaren sorrera dala-ta itz egiten digu. Eta zer esaten? Giza-korputza

tximuagandik datorrela. Zimino, matxango eta tximu deitzen degun animalia-gandik. Au diotenak ez daude iritzi orregatik Goi-Fedearen kontra, baldin eta Jainkoa izaki guztien Egille Bakarra dala, eta gizakiaren anima Jainkoak bere antzera zuzenean utsetik sortzen duala, argi ta garbi aitortzen ba'dute. "Transformismo" eskolak bi aldi izan ditu bere lanetan. Aurrenik oraingo ziminoei begira aritu dira, zer-nolako antza gizonarekin ote duten billatuaz. Bañan, nolabaiteko berdintsutasun batzuen ondoan, ezin-ukatuzko alde aundiak agertzen dira (askok uste baño aundiagoak) beroien soñean, eta buru-barruaren antolakeran batez ere. Oraingo tximuen azter-bide ori utzi, eta "paleontoloji" aldera jotzen dute zerbaiten ustez, aspaldi artako gizonak eta gaurkoak ez dirala neurri berekoak, ezta orduko tximuak eta oraingoak ere esaten bait dute. Dana dala, gizona matxangotik datorrela esate ori ez dago jakintza-legez ongi oiñarriturik. Ezta gutxiagorik ere!

### **TRASCENDENCIA (Transcendence/Transcendence) GAINTEZE**

"Trascender" edo GAINDU aditzak "gorago egin" edota "aruntzago joan" esan nai du. Norberak bere burua GAINTZEN duala esan ditekete, bere iñoiz ez bezelako indarrez alegintzen danean. Ala berean, "trascendente" esan oi zaio besteen gainetik dagonari. Euskeraz ain zuzen ere GOIKO JAUN derizkiogu gauza guztien Egille Bakarrari. Eta, erria mintzatzen danez, "trascendentes" edo GAIN-GAIÑEKOAK ditugu jakintsu aundiak jakite kontuan, santuak Jaungoikoari serbitze arloan, eta edozein giza-lanetan guztien eredu diranak.

### **UTILIZABILIDAD (Ustensilité/Utilisability) ERABILGARRI IZATEA**

Esan dezagun aurretik, "util" itza era askotara erabiltzen dala. "Util" dezu ONERATSU (on egin oi duana), ONGARRI (probetxuzko dana, adibidez Lur-ONGARRI), EGOKI (serbaitetarako ederki datorrena), GAI (zerbait egiteko gauza dana), eta esate batean ZERNAITARAKO (ontarako, ortarako, artarako) KOMENIZKO GAUZA dana. "Utilizable" berriz ERABILGARRI dezu, eta bi motatako erabilgarritasun omen dira. Tresnarena eta erremintarena. Tresna, erabil ditekete gauza da, bañan ez eginkizun artarako egiña dalako. Makilla, adibidez, milla laguntzarako egoki dator (astoa jotzeko, koltxoia arrotzeko, zerbaiti eusteko, mendian ibiltzeko...) naiz eta berez lan oietarako egiña ez izan. Erreminta berriz artarakoxe egiña dezu, eta ongi erabil ditekete, berari emen zaion egokitasunez. Liburua, irakurtzeko egiña da; luma, idazten aritzeko; tren-makina, burnibidean korri egiteko; kosmos-ontziak, illargira joan eta etortzeko. Oiek guztiak ERRE-MINTA dituzu, ots, bakoitza bere eginkizunerako era egokiz antolatua.

### **UTOPIA (Utopie/Utopia) AMESKERI**

"Utopia" esan oi zaio amets utsezko gauzari. Marx jaunaren jarraitzalleek, "utópicos" edo AMES-ZALE dirala diote, "sozialismoa" zenbait aberats borondatsuen bidez etorriko zala uste dutenak. Ameslari purrukatua izan zan, eta segitzalle pranko izan zituana, Claudio Enrique de Royvroy (1760-1825) Saint-Simon'go frantzitar konde jauna. Kristau fedetik okertu, eta erlijio berria eraiki nai izan zuan, iru liburu idatziaz: "Nuevo Cristianismo", "El sistema industrial" eta "Catecismo del industrial". Aipagarriak ere dira garaitsu ortan Founier sasi-profetaren igarkizun sutuak. Ameskerien zulora amiltzen dira, zuzenean, beren irudimen arroari geiegizko toki emanik, geroaren jabe diralakoan geitxo mintzatzen diranak.


## VITALISMO (Vitalisme/Nitalism) BIZI-ALDEKO ESKOLA

"Vitalismo" deritzan filosofi eskolak dionez, bizidunen baitan gertatzen diran goraberak (eme, azi, garatu, indartu, auldu, zaartu eta abar) ezin ditezke fisika eta kimika legez bakarrik ulertu. Fisika edota kimika ez dan beste zerbait (BIZIA) aitortu bear da, gorabera oiek ulertu aal izateko. Dala landare, dala animalia, dala gizaki, bere gai berezia du bizidun bakoitzak. Gai egokia eta jakinduriz eratua. Gai, milla fisika eta kimika legeen menpean dabilena. Bañan, gai orretzaz gaiñera, berari eragiten dion beste mailleko indar bat arkitzen degu: BIZIA. Hipocrates, Aristoteles eta antziñako pentsalarietatik asita, giza-edestiko mende-aldi guztietan onaturik izana da BIZIAREN ALDEKO irizpide au. Eta XIX garren mendean indar berria artu zuala esan diteke, orduan ezagutu bait ziran lenengoz izaki bizien ezur, giar eta kirio-eunak ("tejidos óseo, muscular y nervioso"). Arrezkeroz, BIZI-ALDEKO teoria utsunerik gabe dabil bioloji-zaleen aotan.

## ESCEPTICISMO (Scepticisme/Sceticism) FEDE-EZA

"Escepticismo" esan oi zaio, zerbait egia danik ez sinisteari. Baita egi ori dudan jartzeari ere. Berez ditu gizonak egi zaletasuna eta zalantzarako joera. Beren neurri egokian gorde ezkeru, biak dituzu giza-animaren apaingarri balioitsu. Biotz garbiak asko esan nai du siniste kontuan. Arrokeria eta zitalkeria, berriz, giza-itsumenaren eta kaska-gogorkeriaren sustrai pozoitsu dituzu. Filosofi gaietan, "escepticismo" deritzan eskolak egirik ez dala dio. Dana itxurapen ornen da. Dana lillura. Dana gezur. Eta, iñun ezer egiazkorik ba'litz ere, gizonak ez ornen luke egi ori ezagutzerik. Antziñetako filosofoen artean ezezik, gaurkoetan ere ba-dira, fede-ezezkoan jarri, eta zapuzkeriz dana ukatzeari ematen diotenak. Goi-Sinismenik gabe ez dago zerura joaterik; eta, gizakien arteko federik ez ba'gendu, ezin biziko giñake mundu ontan.

**Luis Egia**







# GOI - YAKINTZA ZENTZUN, ZENTZU

Au eko atalean esan dugunez, zentzuna ta zentzua zentzumenetik sortzen dira, onen egipenak bezela, zentzuna adiña bezela ta zentzua oarmena legez.

Bai noski, zentzuna zentzumenaren egipen bat da, adiñaren ondo-ondoan egotean eta onen antzera jokatzean, baña biak, adiña ta zentzuna gauza bera izan gabe. Beste atal batean esan genuenez, adiña ta zentzuna gauza bera izan gabe. Beste atal batean esan genuenez, adiña gogo-egimena egiña dugu, geron baitan buruturik dagoen egimena; ta zentzuna egimen ofen jokatzera bezela ikus dezakegu, bide batez zentzumenaren egipena izanik. O ela zentzuna jokatzean gure ikus dezakegu, bide batez zentzumenaren egipena izanik. O ela zentzuna jokatzean gure iritziak egiten ditugu, gogarte, gogapen eta gogaketak burutzeko, oro geron baitan gertatzen dalarik.

Zentzua dato gero, oarmena legez esan dugu lentxoago, baña bai ta oarpena bezela; beraz zentzua geron baitan eta guregan, bi galga oyetan batera agertzean edo agertu al-izatean; ots, zentzuak guregan agertzen dira, gure soñean, baña bai ta gure baitan ere, gure gogoan; eta zentzuak guregan eta gure soñaren ataletan kokaturik ditugu, bakoitza berean; atal bakoitzean bere lan berezia egiteko.

Bai, gogai bat gure adiñaren barnean kokaturik ere ikus dezakegu ta bereala, zentzunaren bidez, gogai ori begiratzeko eta aztertzen ari gera, azkenez zentzuak oartu ta zeribait buruz eramateko. O ela nonbait gogai baten eratorzea, geron baitan gertatua, ta ondorioaz gugana ere eltzean, gure baitan eta guregan dagozen bost bideetan barna edaturik.

Bost bide bereziak dauzkagu zentzua age erazteko, bai gure baitan bai guregan, bost zentzu bezela ere ikus ditzakegunak; eta bostak ditugu galga bi oyetan agertzen diralarik, bakoitzarentzat bere bide berezia izanik, bi azpegietan begiratu bea ditugula. Ona emen bost bide edo bost zentzu oyek zeintzuk diran:

Ikusmena ta ikuspena; entzumena ta entzupena; -usaimena ta usaipena; txastamena ta txastapena; ikumena ta ikupena. Bikote bakoitzean -men eta -pen atzizkiak ditugu bi bide oyek alkafengandik bereizteko; lenengoa gogaya geron baitan dagoenean eta biga ena guregan eltzen danean, biak noski egipen baten bi egokera ez berdiñei dagozkienak.

Eta bi egokera oyetatik zein da lenengoa ta zein ondorioa?, o ela agertzen baitira naiz eta biak agertze bat bakafik bezela begiratu. Ikus dezagun zeatze agertze ori nola burutzen dan: Gauza bat ikusten badugu, guregan dagoen ikuspenak artu ta bereganatzen du ikusitakoa, baña berealaxe, aldi berean esan ditekera, gure baitan dagoen ikusmenak gauza bera oartzeko du, ikustearen egipena

baraturik uzteko; o ela ikuspen eta ikusmen anai bikiak legez begira ditzakegu, ziñez gauza beraren azpegi ezberdiñak izatean, bat gugan eta bestea gure baitan, baña gauza edo egipen berbera diralarik.

Ez da gertatzen orain, len itzaz gertatzen zana, ta egiz esan dezakegu alde-rantziz agertzen dala. Itzaren asiera gure baitan dago, gero, guregana eltzeko; zentzua, aitzitik, guregan asten da izaten, guregandik at dagoen zerbaitek so e-raztean, eta gero gure baitara igarotzen da, artutakoa zentzunari eskeintzeko. Ofa zentzu ta zentzunaren artean gertatzen dan jokoa, zentzumeneren almena nabaritzeko.

Ikusmenaren zentzun eta zentzuari buruz esan duguna berdin gertatzen da beste lau zentzun eta zentzuetarako ere: Soñu edo otsen bat egiten da gugandik lekorean, eta bereala gure entzupenak oartzen du, berealaxe gure entzumenera eltzeko, entzutearen egipena buraturik gera dedin, eta beti bezela zentzumeneren baranoan gertaturik izateko.

Orobat esan dezakegu usaipena ta usaimenari buruz, eta txastapen eta txastamenaz, eta ikupen eta ikumenaz. O a gure bost zentzumen eta bost zentzupen gure gogo-biziari, gure adimenari nola ematen dizkieten ari-izateko gayak, gure gogo-almenak gai guzti oyek bereganatzen eta oyen bitartez bere jokera nabaritzen.

Eta aipatu ditugun berezitasunak, zentzun eta zentzuai dagozkienak, euzkerak dauzkan -MEN eta -PEN atzizkien bidez oso egokiro adierazten; of ikus dezakegu atzizki oyen ga antzia, edo beren bitartez gure izkuntzak duena. Eta ortxe be ongi egiztatua dago izkuntza itzegiteko bidea baka ik ez dala, oldozmena ekitean jartzeko ere baño, ta aipatu ditugun beste egipenak azaltzeko be, geron baitan eta guregan dauzkagun almenak ongienik nabarierazten, bai ta gogoen eta soñekoenak nola alkartzen zaizkigun eta gizonaren izatean nolako bizi goitua dagoen.

Esan al genezake zentzun eta zentzua gauza bera dirala?, ala gauza baten aba ak bezela ikus ditezke?, zentzumenerenak apika? Noski ezin ikus ditzakegu almen berak gauza bera bezela, len argi ikusi baitugu beren jokerak bereziak dirala; baña bai zentzumeneren aba ak dirala. Beraz, berdin ez baña bai alka betetzekoak edo zentzumeneren elburua burutzeko ditugula.


Zentzun eta zentzua aztertzean, emen egin dugun bezela edo beste edozein eraz, ezin utzi dezakegu alboan eta begiratu gabe, guregan dauzkagun zentzua-ren azpegiak, ots, soin-zentzuak besteengana eltzeko be ezko ta berezko bideak diralako. Bost ditugu soin-zentzu oyek, guziok ondo ezagutzen ditugunok jayotzetik eta gure bizi osoan barna eten gabe darabilzkigulako, auetxek: Ikuspena, entzupena, usaipena, txastapena ta ikupena; bakoitza gure soñean bere toki berezian ja irik eta beti bere lana betetzen biziaren unealdi guztietan. Eta bost soin-zentzu oyen bitartez oartzen dugu ongienik egitan bizi gerala, ta beste lagunai ere orixe bera jakinerazten diegu argiro. Ta soñiztiaren aldetik ongi ezagutzen dira ain a iga ia dan beren antolabidean eta beren egituran be, baña gure elbururako eztugu be o ezaz geyago begiratzea.

Beste aldetik, bai, oso egokia izan beat gure lanerako oyetan oa ditekena, auxe: zentzu oyen bitartez gugandik at dagoena gureganatu egiten dugu lenen-goz eta berealaxe gure baitan ipiñi-erazteko, ta ortan agertzen zaigu ederkienik gure soña ta gure gogoaren artean dagoen alkartasun a iga ia. Ta alkartasun ori onela betetzen dalarik: guregan dagoen zentzu bakoitzak ba-du gure baitan zuzen dagokion beste bat, egitan biak zentzua bera osotzen dutelarik; o ela guregan dugun ikuspena gure baitan ikusmena da, ta orobat besteak ere: entzupena, entzumena; usaipena, usaimena; txastapena, txastamena; ta ikupena, ikumenena; bigatenetan zentzuen egipena burutzen dala ikusi bea da; egitan zentzuek geron baitan dute bereziki beren egipena burutzeko bea -beata dan almena, egipen guzti oyek zeintzuk eta nolakoak diran ikusi al-izateko.

Gure izkuntzak bi azpegi betega i oyek adierazteko, bi atzizki oso egokiak ditu, len esan dugun bezela: -men eta -pen, goi-yakintzaren aldetik oso aintzatzat artu beat diranak, eta oyen bitartez ondo alkartzen dira bi egipen ezberdiñak, baña batera datozenak zentzuen izaera egokiro betetzean, eta bi atzizki oyen asmoak alkartasun ede ean agertzen zaizkigu gure baitan eta guregan gertatzen diran egipenak alka ekin gertatzen dirala ongi azaltzen digutelarik.

Baña ba-dago beste azpegi bat ikusteko egokía dana, gure baitan eta guregan betetzen diran gogayak eta egipenak beti betega iak bezela aurkezten zaizkigula. Len ikusi genuenez, itza zan alkartasun ori erakusten ziguna, geron baitanetik guregana igarotzean; orain -men eta -pen atzizkiak, aitzitik, beste zentzunaz ikusi ditugu, guregandik gure baitaneraño eltzean, baña naiz ura naiz auek egokienik adieraztean gure izaeran dagoen batasuna ederkienik oartu al-izateko, ots, gogo ta aragia dan giza-izakia goi-goyeneko galgan eratua dagoela, izatean eta yardutean, bide batez bere duintasuna ere egiztatzean.

### **U estarazu'ta Andoni**



Aita Mokoroa "Ortik eta Emendik" azken liburuari ikutuak egiten.



# NEMESIO OTAÑO

## II

(Jarraipena)

### 1947-1950. Azkoitin egun bereziak

Aita Otaño Madrid-en bizi dan binbitartean, Azkoiti-n egun berezi-bereziak izan ditugu. Esate baterako, torre berria bedeinka zaneko ura, 1947-ko martxoan. Egun zoragarri artan, zortzi kanpaiak, dun-dun zaar ta berriak, eman dizkiguten joaldi luzeak, erria alaituz eta ballara osoa dunbaots gozoz gañezkatuz, Aita Otaño Madrid-tik ederki espirituz entzun ditu. Gogo ta pentsamentuz Azkoiti-n igaro bai-du eguna. Musika pozgarriagorik bai ote?

Beste egun aipagarria: Don Domingo beneragarriari, erriak "eskerrik asko" aundi ura, agertu zioneko aaztu-eziñeko eguna, 1948-ko iraillaren 12-an. Aita Otaño "telegrama" bidez, zorion-agurra bialtzen dio, omenaldi artan biotz-biotzez eta maite-miñez bat-eginda dagola oartuaz eta adieraziz.

Urrategi-ko Andre Maria koroatu zaneko artan ere, Otaño presente dago bere "Ave Maria" parroki abesbatzak kantaten dualarik. Guztiok gogoan degu, ta eukiko ere, 1950-ko azillaren 17-garren eguna; baita aurretik izandako Bederatziurrena ere.

Ta, azkenez, urtero-urtero Andre Mari Jain bezperan Otaño, korputzez ez bada ere, bere "Ave Mari" (lau abots, desberdinetan) kantuarekin aurrez-aurre ta errian dagola, ta berak abutzuko jai alaiei asiera ematen diela, esan bearra dago.

### 1951. Jubitazioa. Donosti

Irurogeita amaika urte daduzka, ta nekatua dago. Osasunez ez dabil ondo. Madrid-ko eginkizun zail eta gogor aietan, erreleboa eska du, ta baita lortu ere. Donosti-ra dator bizitzera, azken-urteak gaixorik igarotzera. Idazle batek dionez: "Gaitz luze ta mingarri batek eldu zion, eta santuki eraman kurutze gogorra. Donosti-ko Lagundi-etxean bost urte luzeetan iraungo du oraindik samin tartean". (5)

Alaz ere, 1954-ko azileean nunbaitetik kemena aterako du Madril-era joateko gurdixka edo karro txiki batean, Bosgarrengo Musika Batzar Nagusia ospatzen dala-ta. Gentetzak goraka ta txakola abegi-gorazarrea agertzen dio. Itzalditxo bat ere zuzentzen du, agure zaartxo baten erara, azken-agurra emanaz.

Donosti-ra itzuli, ta musika-apostoladutzari jarraitzen dio biziki ta etengabe. Oraindik urtebete iraungo du.

(5) Ikusi "El perfil humano del Padre Otaño", Trino Uria Uriak argitaratua "La Voz de España" egunkarian, 1956-ko maiatzaren 13-an. Idazki aparta, ederra ta mamitsua

## 1956. Eriotza

Aita Nemesio jatorra, fedean Izarraitz-mendia bezin sendo, legepean Aita San Iñazio bezin zuzen, santuki iltzen da. Musika tartean bizitakoa, ixil-gabeko ainguruen soinu zoragarriak entzutera dijoa orain.

### Apirillak 29 egun ditu, 1956 urtean. 76 urte daduzka.

Egunkariak ezer gutxi dakarte itzali dan izar artaz. Izan ere, beste bost euskaldun jator eta musikari ospetsu iltzen dira urte berean. Alaz ere, Bilbo-ko "La Gaceta del Norte", zerbaitekin azaltzen da, Jose Artero kritikariaren goratzerrea ekarriaz. Donosti-ko "La Voz de España" egunkariak Trino Uria Uria-ren idazlan mamitsu ta biotz-biotzekoa dakar. Euskal-aldizkariak ixildu egin dira, azken-urteetan irristaka ikusi dutela-ta. Au da, politikan geiegi sartu ta naastua. Ez dute ez begiko ta ez gogoko.

Aldiz, Izurategi-ri eta Elizegi-ri (Loioako organujolea) kazetarien zapuzketa au bidegabekeria iruditu zaie. Ta udaran amasei musikari ospetsueneei bildu-azi ta Otaño-ren OBRAS COMPLETAS imprimatzera bultza dituzte. Billera oien berri txosten onen bukaeran dijoa.

## BERE gizatasuna

Gizon izan dan aldetik, beste bi anaiak bezin "Otaño" izan da Nemesio ere. Korputzez aundi ta mardula, emankorra, oparotsua, laguntzeko eskua bereala zabaltzen duana. Begira, Don Jose apaiz anaia. Eskura zetorkion xemeikoa pobreentzat bear du beti izan. Gero sotana berri bat beretzat egiteko, diru presatua eskean billa bear du. Bestalde Don Josek zenbat asmakizun erria eragin eta poztu-erazteko. Nolako Aste Santuak! "Manaren Ataba Kongregazioa" aitziki, jostura, sukaldelaritza. Bordaketa, gau-eskola, solfa ta abar, erakutsi, eliz-aurreko Kantzel zaar aietan. Une guztietan biotza urtutzen, erriaren ona billatuz.

Eta ze esan Don Rikardo-tzaz? Erria amets, kezkatu beti. Leen adierazita gauden onoko au: erriak dadukan plangintza berari zar diogula. Alkatedalarik, erri-lan auek dagizki: Estaziorako abenida iriki, ibai-gaiñean berdura-plaza luzetu, Urola dragatu, Floreaga-ko eskola berriak jaso, kale ta espaloiak eraberritu, "bariantez" gisara metal-bidean (Olimpia) kamiñu zabala iriki, Plaza berria apaindu, Santa Klara kalea lasaitu (ibaia estutuaz) ta, bereziki, San Martin Auzoa (Ciudad Jardin) antola, etxegintzatu ta erria lasaitu.

Alatsu izan da Nemesio ere. Eragillea, asmatzaillea, on-egillea, musikaz bada ere. Konferentzietan norbait kulturaz aberastu dala jakitean, pozez dago. Otaño-tar guztien antzera "on-egiñaz" aitu ta gasta izan ditu bere bizitzako indar guztiak. Gauregun Azkoiti-ko erriak dadukan "Escuela Profesional" ikasetzeta jolas-tokiak ere, Nemesiori esker gure eskuetan daude. Doña Kontxa koñetari berak eskatu bai-zizkion azken-naia agertzean, "Villa Zubiarrre" ta inguruak erriaren probetxurako izan zitezela.

## Azkena. irItzi-ateak

Idazle batek onoko au diotsa: "Jesusen Lagundiko musika-legortegian, Otaño bestelako aundizki bakar-bakarra da". (6) Izan ere, Lagundiak sortu zanetik —tau gizaldi ta erdi—, musikari en bat ez dula izan, esan liteke; arte-alor au, edo baratza au, landu gabe, eduki du Otaño etorri arte. Bera izan da azken-gizaldi ontan fruituz betetako zuaitz bakararra, mota guztietako musikan baloreak dizdiran

(6) Ikusi "Música Vasca", 242 orrialdian. Egillea: Jose Antonio Arana Merla.

ipiniiaz, ezin esan-ala era guztiak ikasi ta erakutsi dituna, erti-bide danetan ziur ta zuzen pausoak erabili dituna.

Izurategi jaunari ale mamitsu, aberats eta pixudun auek jasoko dizkiogu: "Ertilanean, seguru asko, gizonik elduena, goitikoena, estetikoena Espainian ezagutzen ez dan bezelakoa". "Abesbatzaentzat Espaini-n idatzi diran polifoni-lanik balioetsuenak, sendoenak eta miresgarrienak, naiz 6, naiz 8 abotsetara, organu ta orkesta lagun, Otaño-renak dira" "Extranjerin neurtu-ezinezko mezulari bezela ezagutzen dute bere lan ikaragarrietatik, baiña guk emen, gure artean, musikagille pizkor, zuzen ta jakintsu aundi baten doai guztiok ez dizkiogu beñere ukatu". "Espaini-n musika lo-zorro batetik esna ta argiz jositako egun-senti dizdiratsu batera ekarri gaituna, Otaño izan da". (7)

Beste izlari batek, musikastek zuzendutako konferentzi ederrean, itz auetxek aitortu ditu: "Ogeigarren gizaldi ontan eleiz- musika berrizte-ekiñaletan, Otaño-ren biotz-muñetan izan dira indarra, kemena ta adore osoenak". (Izlaria: Jesus Maria Museta, musika-turolense Instituto, zuzendaria).

Olaxe, Aita Otaño "norbait eta zerbait" miresgarria izan da, musikan buruzagi, gidari ta ikurrinduna, Europa osoan ibilli ta ezaguna, "txapeldun" bat gure pozarako ta Azkoiti-ren aintzarako.

### OTAÑO-REN MUSIKA-IDAHLANAK

**Aurre-itzak.** 1) Otaño-ren lenengo lanak Pedrell-ek "Salterio Sacro Hispano" liburuxkan plazaratu zituan, 1905 urtean. 2) Ondoren, Otaño bi aldizkari aundi bere esku-esku eduki zituan: MUSICA SACRO HISPANA eta REPERTORIO MUSICO; bi aldizkari oien zuzendari izan zan, eta musika-lanik geientsuenak ber argitara ematen zituan. 3) Guk orain emango degun zerrendan Egilleak ezari zizkien izen-buru edo tituloak ipiniako dizkiegu au da, erderaz, ala euskeraz, ala latinez, ala prantzesez, euskerarekin naastu gabe. 4) Iru sailletan azalduko ditugu: a) Elizkoiak, b) Mundukoiak, c) Teorikoak.

Zerrenda au zearo oso-osea danik, ezin gindezke ausarditu esaten. Alaz ere lanik geientsuenak aipatzen ditugula, bai.

#### a) Elizkoiak

12 Cantos al Sagrado Corazón (1909)

8 Cantos a la Santísima Virgen (1910)

12 Cantos para la Comunión (1912)

Ave María, a 5 voces mixtas (1911)

21 Cánticos a la Virgen Santísima (1917)

Venite populi, (1918)

Himno a la Virgen de Covadonga

Tres Misereres (Uno, a 5 v. mixtas) (1918)

O Sacrum Convivium

4 Tantum Ergo

Himno a Santo Cristo de Lezo

Cantantibus organis

Veni Sancte Spiritus

Himno a San Pedro Canisio

Beste zenbait gabon-kanta, litani, eliz-leloak ere argitara zituan. Baita oiekin eta goian aipa ditugun ederrenekin ere, BILDUMAK (colecciones) plazaratu.

(7) Ikusi "**Padre Nemesio Otaño**", idazkia Don Jose Izurategik egiña, 1944, "Sacerdotes, religiosos y religiosas de Azcoitia" liburuxkan.

## **b) Mundukolak (profanoak)**

Remembranzas (1911)  
Basa chorichu (1911)  
Suite Vasca, a 6 v. mixtas (1912)  
Negra sombra (1913)  
Montaña (1914)  
Canción del carretero (1914)  
Danza de brujas (1915)  
El Calanjero (1915)  
6 Canciones montańesas (1916)  
Marcha de San Ignacio, a 6 v. mixtas, orquesta y banda  
Piezas de piano  
**Kun-Kun. Canción vasca de cuna, y piano.**  
**Elegia, a piano y violoncelo.**  
**Andre bat ikusi det, a 6 voces mixtas**  
**La canción del olivo, a 8 v. mixtas**  
Serenata ronda, a 8 v. mixtas  
Molinera, asturiana, . a 6 v. mixtas  
Danza de gigantes, a 6 v. mixtas  
Rondeau de soges (Rameau) de Dardanus, arreglo a 6 v. mixtas  
**Menuets de Plantée (Rameau), a 6 v. mixtas**  
**Les Monssennurs (Couperin), a 6 v. mixtas**  
**Baldako, himno a S. Ignacio (Azkoiti-rako idatzia)**  
Himno Pontificio, a 4 v. mixtas, y coro, banda (motivo Vaticano)  
Ya se murió el burro  
Cortejo que cortejas  
Esta noche ha llovido

## **c) TeorIkoak**

La Música Sacra y la Legislación eclesiástica (1914)  
Manual del canto gregoriano. En colaboración con BAS (Ital.)  
Música popular montańera (impresa)  
Música del pueblo vasco, ; y música en el pueblo vasco (Conferencia en Tolosa, 1913, impresa en "Euskalerraren Alde").

## **BILDUMAK (Colecciones)**

Antología moderna orgánica española (Unos 30 organistas)  
Antología litúrgica práctica de organistas españoles contemporáneos (2 volúmenes)

Zeatz-Itza


Otańok baditu beste ereski ta idazlan politikaz zearo kutsutuak. Zerrenda ontan, jakíñez eta naita ixildu ditugula, adierazten dizugu, irakurle maite.

## **OTAÑO-REN BIZITZA, KRONOLOGIAZ**


1880 Azkoiti-n jaio, abenduaren 19-an  
1885 Aita, Jose Luis Otańo, iltzen da  
1891 Eskoriotzan, eskola ta musika ikasten  
1894 Baliarrain errixkan, latińak ikasten

- 1896 Loiolan, Lagundiko Nobizioa, Organista  
 1898 Azkoiti-n, Cavailli-Coll organuaren estrena  
 1900 Burgos-en, Irakaskintza jardunetan  
 1903 Valladolid urian, kantu batzuek argitara. "Motu propio"  
     **Goikoetxearen ikasle. Musikalari ospetsuen lagun**  
 1905 Eliz-barrutiko musika-billera. "Boletín"
- 1907 Valladolid-en, Lenengo Batzar Nagusia  
 1908 Oña-ra, apaizgintza osatzera  
 1908 Sevilla-n, Bigarrenengo Batzar Nagusia  
 1910 Komillas-en. Fruitu ugari oparotsuenak  
     **"Schola cantorum" eta "Música Sacro Hispana"**
- 1912 Barzelona-n, Irugarren Batzar Nagusia  
 1919 Gasteiz-en, ama D.º Mercedes Egino, iltzen da  
 1919 Burgos-en, Kardenal Beulloch otsegiten dio  
 1921 Azkoiti-n, Orfeoa eratu, Burgos-era joateko  
 1922 Donosti-n, Soziologu-ekintza  
 1923 Azkoiti-n, Don Joakin Erretorearen "urre-etzaiak"  
 1926 Azkoiti-n, "Gau-gurtze" (adoración Nocturna) estrena  
 1927 Azkoiti-n, "Mixio-jaiak"  
 1928 Gasteizen, Laugarrenengo Batzar Nagusia  
 1929 Azkoiti-n "Ongi-etorria" Egino Gotzai berriari  
 1929 Azkoiti-n San Martin-go etxegintza. Alfonso XIII  
 1936 Azkoiti-n, gerra zibilla  
 1939 Madril-era deitzen diote. Ipar-Amerikara gira-bira  
 1939 Madrid-en, Konserbatorioko Zuzendari eta beste  
 1941 Azkoiti-n, berealdiko goratarrea bere errian  
 1947 Azkoiti-n, Torre berriaren bedeinkapena  
 1948 Azkoiti-n, Don Domingo beneragarriari omenaldia  
 1950 Azkoiti-n, Urrategiko Andre Mariaren koroazioa  
 1951 Jubilazioa. Donosti-ra gaisorik  
 1954 Madrid-en, Bosgarren Batzar Nagusia. Karro batean  
 1956 Donosti-n, eriotza, apirillaren 29-an
- 1956 Loiolan, udapartean, amasei musikalari ospetsuak bildu, ta Otaño-ren idazlan guztiak argitaratzea erabakitzen dute, OBRAS COMPLETAS izenarekin, amalau liburuetan. Dagoneko, sei bakarrik plazaratu dira. Bildu ziranak: Guridi, Valdes, Urteaga, Almandoz, Jose M. Beobide, Añero, Ruiz Aznar, Massó, Massana, Prieto, Olaizaola, Zubizarreta, Usandizaga, Izurategi, Unanue ta Elizegi.**

**Jose A. Garate**







# AETZEN USKARAS

## Norkiak

ní, yí, gu, zu, zek

Hirugarren pertsonetako norkiak erakusleak ditugu: gau, gori, gura.

ni	yi	zu	gu	zek
nik	yik	zuk	guk	zek
niri (eni)	yiri	zuri	guri	zei
ene	yire	zure	gure	zien
enedako(TAKO)	yiretako(dako)	zuredako(TAKO)	guredako(tako)	ziendako(zeen)
enegatik	yiregatik	zuregatik	guregatik	ziengatik
eneki(n)	yireki(n)	zureki(n)	gureki(n)	zieki(n)
enetaz nitaz	yitaz	zutaz	gutaz	zietaz
enegan	yiregan	zuregan	guregan	ziengan
enegana	yiregana	zuregana	guregana	ziengana
enegeneino	yiregeneino	zuregeneino	guregeneino	ziengeneino
eneganik	yireganik	zureganik	gureganik	zienganik
enekikako	yirekikako	zurekikako	gurekikako	zeenkikakako

baita nitaz, nigan, nireki... eta zeengatik, zeeki...

## Norenkiak

ene, enea	naure, naurea
yire, yirea	yaure, yaurea
garen, garena	bere, berea
gure, gurea	gauren, gaurena
zure, zurea	zaure, zaurea
zien, ziena (ZEENA)	zauen, zauena
gaen, gaena	beren, berena

Naurok	zaurori	berori
nauronek	zaurorrek	berorrek
nauroní	zaurorri	berorri
naurea	zaurorren	berorren
nauretako	zaurorrendako	berorrendako
nauregatik	zaurorreatatik	berorreatatik
naureki(n)	zaurorreki(n)	berorreki(n)
naureta	zaurorretaz	berorretaz
nauregan	zaurorregan	berorregan
nauregana	zaurorregana	berorregana
nauregeneino	zaurorregeneino	berorregeneino
naureganik	zaurorreganik	berorreganik

Aditzaren egintza egilearengana doanean; naure, bere gauren, zauen, beren era-  
biltzen dira.

Horrela: ni zien etxera lan nintze eta ni naure etxera lan nintze.

Elkar

Aezkoan Elkar eta baita ere Erkal erraten da.

elkar	erkal
elkarri	erkali
elkarren	erkalen
elkarrendako	erkalendako
elkarrengatik	erkalengatik
elkarreki(n)	erkaleki(n)
elkarrez	erkalez
elkarrengan	erkalengan
elkarrengana	erkalengana
elkarrengeneino	erkalengeneino
elkarrenganik	erkalenganik

**Elkar ikusten dugu edo ta erkal ikusten dugu.**

**elkarri erron dakogu edo ta erkali erron dakogu.**

**elkarren ondoan edo ta erkalen ondoan.**

elkarrekin lein gira edo ta erkalekin lein gira.

Elkar artu edo Bat egin.

bera	berak
berak	berek
berari	bereri
<b>beraen (beraren)</b>	<b>beren</b>
<b>beraendako (berarendako)</b>	<b>berendako</b>
<b>beraengatik (berarengatik)</b>	<b>berengatik</b>
beraekin (berarekin)	berekin
beraz	berez
bereko	beretako
berean	beretan
berera	beretra
berereino	beretreino
beretik	bereteik

gauza bera erran gindue.

**ene zaldiari berdina ze baia ez ze bera.**

**orei berean etxera gaza.**

**gen berean gor berean gonberean**

**gen beretik gor beretik gon beretik**

Erakusleak

gau	gebek
gonek	gebek
goni	gebei
gonen	geben
gonendako	gebendako

gonengatik  
goneki(n)  
gontaz  
gontako  
gontan  
gontra  
gontreino  
gontarik (tik)  
gonen(gan) beitan  
gonengana  
gonengeino  
gonenganik

gebengatik  
gebeki(n)  
gebetaz  
gebetako  
gebetan  
gebeta getra  
gebetreino getreino  
gebeteik  
geben(gan) beitan  
gebengana  
gebengeino  
gebenganik

gori  
gorrek  
gorri  
gorren  
gorrendako  
gorrengatik  
gorrekin  
gortaz  
gortako  
gortan  
gortra  
gortreino  
gortik  
gorren(gan) beitan  
gorrengana  
gorrengeno  
gorrenganik

goiek  
goiek  
goiei  
goien  
goiendako  
goiengatik  
goiekin  
goietaz  
goietako  
goietan  
goietra  
goietreino  
goieteik  
goien(gan) beitan  
goiengana  
goiengeno  
goienganik

goek  
goek  
goei  
goen  
goendako  
goengatik  
goekin  
goetaz  
goetako  
goetan  
goetra  
goetreino  
goeteik  
goen(gan) beitan  
goengana  
goengeno  
goenganik

gura  
garek  
gari  
garen  
garendako  
garekin  
gartaz  
gartako  
garla  
gartreino  
gartik (GARTARIK)  
garlan  
garen(gan) beitan  
garengana  
garengeno  
garengandik

gaiek  
gaiek  
gaiei  
gaien  
gaiendako  
gaiekin  
gaietaz  
gaietako  
gaietra  
gaietreino  
gaieteik  
gaietan  
gaien(gan) beitan  
gaiengana  
gaiengeno  
gaiengandik

gaek  
gaek  
gaei  
gaen  
gaendako  
gaekin  
gaetaz  
gaetako  
gaetra  
gaetreino  
gaeteik  
gaetan  
gaen(gan) beitan  
gaengana  
gaengeno  
gaengandik

**Hauxe, horixe, haraxe hitzen ordeztu:** gau bera, gori bera, gura bera.

### **Erkaketa**

Kualitatezkoa.

**Berdintasuna ...** goin, ein. (tal)

bezein, bezin, (tan como, tan que)

Desberdintasuna .	ao, ago (MAS)	beino ... ao. (mas que)
	en (ena, enak) (el mas, los mas)	egi, sobra (demasiado)
Adjetiboak ...	on, onago, onena	
	geisto, geistoago, geistoena	
Adbervioak ...	ongi, obeki, oberena	
	geizki, geizkiao, geizkiena.	
	usu, usuago, usuena.	
	emazteki ederrena.	
	etxeik politena.	

Kontitatezkoa

Berdintasuna ...	goinbertze, geinbertze	bezanbat, adina (tanto como)
	(tanto, tantos)	

Desberdintasuna	geio (mas)	beino geio (mas que)
	gutiao (menos)	<b>beino gutiao (menos que)</b>
	geien, geiena, geienak	<b>geiegi</b>
	gutien, gutiena, gutienak	<b>gutiegi</b>

El comparativo COMO:

**Bezalako:** seguido de un nombre o del verbo izan.

**Bezala:** seguido de cualquier otro verbo.

ni ez niz gori bezalakoa  
ez da zu bezalakorik  
erran bezala ein gindue

nora zaza goin emeki?  
zerengatik zaude ein triste?  
Miren txikiao da, baia zarrao  
zu bezein ona niz. Ni bezin ona zira  
yi beino gazteago nuk. Gura beino txikiagoak dira  
soka gori luzeena da. Gori luzegia da  
zerendako biar duzu goinbertze txakur?  
gorrek duen bezanbat duk nik  
zuk adina dakit nik  
geinbertze egur erman zue?  
zuk beino geio daki gorrek. Nik beino sosa gutiao duk yik  
gizon gori da ardi geien duena  
ardo geiegi edan nue

## Adberbioak

Denboratasunezkoak

arel	orei berean	aistian	len, lanao	sarri
gero	atzo	erenegu	bart	biar
etzi	etximu	egu	eguna	gaur
artsea	gaba	beti	ioiz	ioiz ez
sekula	biramunean	jon den urtean	eldu den urtean	
denbora	tenore	beranta	ondorean	
ondoan	altzinean	eguerdi	gaberdi	artsalde
bein	batzutan	anitzetan	gutitan	usu
ardura	beti	laster	jite	galere

### Lekutasunezkoak

gen	gor	gan
gena	gorra	gara
geneino	gorreino	gareino
gendik	gortik	gandik
gengo	gorko	gango

urran	urbil	u rrun	ondoan	geinean
pean	azpian	erdian	aitzinean	gibelean
ezkerrean	ezkuian	goitian	beitian	goian
beian	goiti	beiti	artean	inguruan
barnean	kanpoan			

### Moduzkoak

aufferrik	bakarrik	kitoik	gootik	aldiro
gendik altzinerak		noizapenka	bein edo bertze	
gisa	antza	gola	gala	gonelako
golako	gorrelako	galako	aldioro	aski
ausarki	aisa	nekez	geiegi	sobra
anitz	biziki	guziz	arrun	arras
guti	abantzu	agitz		

...ki	geizki, aski, ausarki, poliki, emeki erreposki, ederki, laburki, biziki, ongi...
...ka	arrika, arrukaldika, lasterka, estalika, aldizka erdizka, bulkaka, bulkazonka...
...ez	erranez, gogoz, nekez, einez, autsiz, argituz ..z hau batzutan ..s, ahozkatzen dute.
...ra dae.	iltzera dae.
...an dao	
...eko ein	ondarreko ein du gorrek

### Juntaginak

eta	oro	orobat	edo	baia
berriz	galere	beizik	gutierrez	geinez
ba	bada	ezik		

### Menturaz

menturaz etorko da. (tal vez vendrá)

Biar bada

biarbada etorko da (si es necesario vendrá)


Agian

agian etorko da (a lo mejor vendrá)

Alegia

alegia eztuela ikusi (haciendo como que no ha visto)

**Josu Gabodevilla**



# SUKIA "BELTZA" KARDENALA

ZALDIBIKO SEMEA, OLERKARI-SARIA IRABAZITAKOA, MADRID'KO GONGOTZAI ETA EUSKERAZAINTZA TALDEKOA

Gazteiz'ko Seminarioan, gerra-aurreko urteetan bazan beste Sukia bat ere, Zaldibiko Errekalde baserrikoa, Joxe Mari izenez eta gaurko egunez "Oncologico"an kapellau eta KARDABERAZ bazkunaren idazkari dana. Orregaitik edo, Sukia Anjel'eri, zaldibitarra au ere, Sukia "beltza" esaten giñun.

Filosofia zan Seminarioaren zati bat eta filosofoek bazuten beuren kapilla ere eta bertan zegoen armonioaren jotzaille Sukia "beltza" zan. Nere anai Donatok, filosofoa ura ere, eurok ateratzen zuten aldizkaritxo baten kronista zan eta egun batez txiste au atera zuan erderaz:

—En qué se parece Sukia ante el espejo y ante el armonium?

—En que en los dos se ve negro.

\* \* \*

Euskal errietan apaizgai asko zegoen garai artan eta udarako oporretan maiz biltzan giñan Zaldibi eta Lazkaoko apaizgaiek. Txirindua zan gure ibilkari-tramankulua. Txirindulari ona zan Sukia "beltza"; baita mendigoizale iaioa ere.

Gazteiz'ko apaizgaitegian, Seminarioan alegia, 600 mutil gazte bizi giñan eta bagendun, D. Manuel Lekuona eta D. José Miguel Barandiaran'en eskuetan, gidaritzza ederrik. Giro aretan sortua zan Kardaberaz Bazkuna, euskerea gure artean lantzeko.

1936'garren urtean, Ekainaren (Bagillaren) 28'an, igandea, 18 egun gerra sortu aurretik, Euzko-Olerti Eguna ospatu gendun Azkuetarrai goratzarre egiñez Lekeition.

Olerki-Sailllean iru sari zeuden: lenengo biak Gazteizko Apaizgaiek irabazi zuten. Eta, Poema-sailllean, euren irakasle zan D. Manuel Lekuonak, lenengoa.

Ona Olerki-Sailllekoak:

Lenengoa, Otamendi'tar Iñaki, ordiziatarrak, irabazi zuan.

Bigarrena, Sukia'tar Gotzonek. Auxe da gure Sukia "Beltza".

Iruugarrena, Iraizoz'tar Polikarpak, euskera-arloan, kaputxino famatua izango zana.

Iru urteko guda zitalak eta bere ondorenak, ondatu zitun giro eder aiek eta uste genduan, betirako izango zala. Baña betirakoa, zorionez, Jainkoa bakarrik da. Eta emen berriro lanean.

Ona emen Sukia'ren olerkia bere lenengo zatian:

"EUZKO APAIZGAIARENA"

Baserri bidean  
Maite diat Baserri Bidea  
biurrika dirudin suega!  
Intxaur esne-zur bi  
alkarren begira.  
Erreka urdiñak  
agortzen ez dira.  
Soro, zelai; sagar  
kimuak ortzira...  
Arnariak, berriz,  
nere Baserrira!

Baserri-Bide.  
Baserri!  
Zeru-baztarra  
iduri.  
Ire oroimen  
eziñen  
aantzi...

Urrundu nitxoan  
noizpait iregandik.  
Egun-senti eme,  
gogoan oraindik...  
Sukal-bazterrean  
amona larririk...  
Gaixo! Sarri nere  
galdezka geroztik.  
Ama, nire dena (?)  
ixil antolatzen.  
Begiak noizean  
nire gain ezartzen.  
Ezer utzi ote?

Ez du gogoratzen...  
Amonak gordeta  
gaztaia giltzapen.

Atzetik badator  
aitona alderoka.  
Nir-nirrez begiak,  
ezpaiñak dar-darka.  
Ba al aoakit, utzik  
baserria utzita...?  
Orbelak basoan,  
sagarrak elduta...

...Atera zorian  
odolak zaiñetik.  
Malko bi urrena  
atera begitik.  
Jarrai zak, jarraitu  
Jaunaren bidetik.

Laztan niñun gero  
negarrez,  
neguak galtzeko  
ikarez.  
Larogei urteak  
beleak/zituan enara-garaiez...

\*\*\*

Baztar guztiak ondatuta gero, bukatu zan gerra azkenean; baña, ondamendi artatik irtetzen ez zan erreza izan. Guda ondoren bakoitza bere lanera, alzuanak beintzat. Sukia ere Seminaria berrira bere lanak amaitzera, apaizgaien lanak, alegia. Apaiztu zan eta bere asierako ekintzak, erriz-erri gogojardunak edo "ejerzizioak" ematea izan zan Rufino Aldabaldetrekua apaizaren gidaritzapean.

Bizi-biziak izaten ziran Sukiak emandako gogojardunak eta kristau jendea zorutzen egon oi zan, ao zabalik, aren izkera gozoa entzuten. Gogoratzen ditut urte aietan Sukiak emandako saioak: amabi illabete barruan 50 talde emana ditu, aste betekoak, urte batek 56 aste besterik ez dituelarik. Kontuak atera zer-nolako kemenak zitun apaiz gazte arrek.

Urte batzuek lan orretan emanik, Erroma'ra joan zitzaigun jakintza-berrikuntza baten bila Teoloji-doktoradutza eskuetan zuelarik eldu zitzaigun berrira Euskalerria

\*\*\*

Laister egin zuten Gazteizko Seminarioaren erretore eta buruzagi. Amaika urtez iraun zuan lan orretan eta ez zan lan batere erreza izan. Kanonigo ere egin zuten Gazteizen. Ondoren, berriz, Almeria'ko Gotzai; andik Malaga'ra; emendik Santiago'ra Gongotzai eta azkenik, Kardenal ere bai eta Madrid'eko Gongotzai. Aitasantu izateko zaartxoia onezkeror; baiña, zaarragorik ere izan da Eleizaren historian zear.

\* \* \*

Euskal-senik galdu ez duen seiñalerik onena Kardaberaz Bazkunean tarteko izatea da. Baita Euskerazaintzan ere ala da. Bi erakunde auek lanean diardute. D. Manuel Lekuona izan da, bizi zan artean, Kardaberazko lendakari eta Lino Akesolo da Euskerazaintza'rena. Kardaberaz Lekuonaren garaian sortu zan Gazteiz'ko Seminarioan 1924'garren urtean. Euskerazaintza, berriz, Euskaltzaindiak Euskerari buruz, aizken urte auetan artutako erabaki negargarrien ondoren bat, besterik ez da. **BATUAK EGINDAKO KALTEAK ZUZUENDU NAI.**

Euskerazaintza Legeak onartuta daukagu, eta lan onetan asko lagundu zigun Sukia "Beltza" Kardenalak. Eskerrik asko eta segi, aztirik ba'dezu, olerki-bidean.

**Arrinda'tar Anes**





# OYARTZUN, OIARTZUN, OIHARTZUN

Gure erriaren izena idazteko iru era daude:

- 1.—Erriak berea dun fonetikaren arabera, OYARTZUN.
- 2.—Y kentzeko gaurko joerari jarraituz, OIARTZUN.
- 3.—Euskaltzaindia'k emandako ortografi arauen esanetara OIHARTZUN.

Orain bi urte, Sanixteban erriko jaiak zirala ta Oyartzun'go Udalak urtero argi-tara eman oi duan aldizkaria irarkolara eraman aurretik, bertako idazle-laguntzalle zan talde batek, andik aurrera, aldizkariaren izena, OIARTZUN izango zala eraba-ki zuen.

Billera artan ni ez nintzan egon; beraz, gaia aztertu ta nere iritzia ematerik ez nuan izan, baña erabakiaren berri jakindakoan, noizbait nere iritzia arrazoitu ta agertzeko erabaki zeatza artu nuan.

Ara emen, Y izkia erabiltze aldekoa zergatik naizen:

- 1.—Euskal-ots JATORRA DALAKO.
- 2.—Era batera edo bestera, Euskaljerri osoan BIZIRIK dagolako.
- 3.—B izkiak bezelaxe, ERRESKAN IRU BOKALEN jarraia kentzen duan berez-ko otsa dalako: au, gure izkuntzaren berezitasun bat da. Orrela, BE-YA, BE-I-A'ren orde; DE-YA, DE-I-A'ren orde. Era berean, GA-BON, GAU-ON'en orde eta GA-BON GA-BA, GAU-ON GAU-A'ren orde.

Argi ta garbi ikusten da-ba, Y izkia EUSKAL AGOTS-LEGEAREN (sistema fonético) ZATI OSAKAIJA dala.

Antziñako elertizko liburueta jotzen ba'degu, Y izkia, historian zear nun-nai aurkituko degu; baita 1545'an Bernard D'ETCHEPARE'k, LINGUAE VASCONUM PRIMITIAE euskeraz idatzitako lenego liburuan ere.

Y izkia kentzeko gaurko zoraldia, onartu eziñezko ekintzetara doa. Adibidez, Oyartzun'ko karrien izen-aldaketa egin bear zala eta, oyetako bat nere adiskide miñ izan zan Antonio Valverde'ri eskeñi zioten. Onek, bere idazlan eta ertilan guztiek AYALDE izenordearekin izenpetzen zituen. Ba, Oyartzun'go Udalak, Y izkia orde I jarri ta AIALDE agertu du. Begiramenik eza nabarmena, bera.

Euskaltzaindiak Arantzazu'n idazkera arau berriak eman zituanetik, era ontako eztabaidak erabat gaindituta daudela uste dute askok. Baña gogora dezagun, zenbait erri-izenen idazkera aldatu egin zuala erakunde orrek berak; adibidez, OÑATI orde OINATI ta MALLABIA orde, MAILABIA, baña amar urte luzetan gogoz eskatuz, atzera egin eta berrito len zituzten idazkera berekin idaztea era-baki du: OÑATI ta MALLABIA.

Batzuen iritziz, bear danean, Y orde, J izkia idatzi diteke. Era ontara jokatzeak, bikoiztasun-eragozpenak izan ditzake. Ala, Bidasoaz aruntzko euskaldu-nek, gogo txarrez ikusten dute guk AGUR JAUNAK esatea, baña ez da arritze-koa, J'rekin idazten bai dute; ez zan orrelakorik gertatuko, oguzten duten eran AGUR YAUNAK idatzi izan ba'lute.

Ezbairik gabe, eztabaida oiek leloriak besterik ez dirala, askok esango dute. Ala ere nere ustez, fonetika ele-jakintza edo linguistikaren garrantzi aundiko zati bat izateaz gain, ttikikeri askok, funtzezko oker aundi batean biur ditezke, zori-txarrez gaur egun gure euskerarekin gertatzen ari dan bezela. Or degu, eleizetan eta irratetxeetan ain gaizki erabiltzen dan kutsu, doñu edo ezentoa. Adibidez, eleizako abestietan, "goazen aldaREra" entzuten degu, "goazen alDARera" orde eta "zure espirituaREkin", "zure esPlrituarekin" esan bearrean. Eta itz egitera-koan, "arTZAzute", "ARTzazute" orde eta "eGIN deZAgun", "eGIN dezaGUN"en orde. Irratetxeetan berriz, "jaKIN", "BILdu", "zerGATik", "DAgo" eta "ba-DAkit",

"JAKin", "biLDU", "ZERgatik", "daGO" eta "BA-daKIT" orde. Guzti oiek, euskeraren benetako maskalketa adierazten dute.

Gaurko UIN berriak idazten duana irakurriz berriz ...Ara emen adibide batzuk. Euskalerrri'ko Araudi edo Estatutoaren egitasmoaren itzulpenaren zati batzuk dira: "Bere autogobernu instituzioen funtzionamendu errejimen eta antolamendua

"Domeinu publikozko, patrimoniozko eta nullius ezko ondazunak mostrenkoak, itsas iztingak eta zerbitzu publikoak".

iErabateko zorigaitza! Eta txunditu zaite irakurle, Euskaltzaindiak oniritzia emandako itzulpena da-ta!

Egoera larri onen aurrean zer egiten degu eta batez ere gaztediak, ekolojia ta egurats garbiataz ainbeste itz egiten dutenek, IZKUNTZA AIN KUTSATUA ikusirik nolatan ez dira asaldatzen?


Eta Y izkira itzuliaz, Oyartzun'go Udalak, nik jakin dudanez, izki au aginbidez erabat baztartzeko asmotan da. ¡Eta ori, bidegabekeria da! Len esan bezela, fonetika ele-jakintza edo linguistikaren garrantzi aundiko zati bat da eta ERRIAREN ONDAREA; ezin-ba lau urtetarako aukeratuak izan diran ziñegotzi batzuen kasketaldien esku egon; ondoren etorri ditezkenek, batekoz beste joka dezateke ta ori benetako naspilla izango litzake. Beraz, Udalak ez luke era ontako erabakirik artu bear; erria bera, berez etorriko da bere erriaren izenaren idazkera erabakitzera. Nere ustez, ori izango litzake jokaerarik egoki ta argiena.

OYARTZUN izenarekin egin nai dan kirtenkeria zenbaterañokoa dan jakiteko, erriko toki-izen batzuek bi idazkeretan idatziak jarriko dizkitzuet eta zuek zuen iritzia emango dezute:

A-I-A'KO ARRIA	—AYA'KO ARRIYA
A-I-ENDOLA	AYENDOLA
O-I-ANTZABAL	—OYANTZABAL
GO-I-ARA	GOYARA
O-I-ALEKU	OYALEKU

Eta bukatzeko, ni ez naiz JON eta ezta ION ere, YON baizik.

**1979'ko "oyartzun" aldizkaritik  
Oñatibia'tar Jon'ek**





# IRAOLA'TAR ERRUPIN JAUNARI BEARTUTAKO ERANTZUN BAT

Ekainillaren 10'eko D.V. egunkarian Iraola'k isekaz idatzi zuanari erantzunez, egunakari berean ekainillaren 20'an argitaratua da idazlan au.

Illaren 10'ean argitaratu zenuan idazlanak, zenbait aldiz izendatzeaz gaiñera, beartu egiten nau erantzun bat bederen ematera.

1'go: Jolas-giro alaiz artzea eztabaidak, ez da bide txarra. Aserre artzea baiño obea, noski. Baiña norbait bere iritzietan ongi oiñarriturik dagoanean, ez da bearrrezkoa, —eta ez da egokiena— besteari isekarik egitea. Beste batzuen bizkar irri egitea, beste norbaitzuk parregarri utzi naiz, ez dira biderik egokienak nork bere egiak eta iritziak argitsu azaltzeko. Baiña.. tira!

2'gn: ..."eskerrik asko, gauzak nola ez diren egin bear esateagatik". Gauzak oker, nola ez ditugun egin bear jakitea, ez da naikoa. Ortan egia diozu, borobilla egia. Baiña... lenengo beintzat, zer dagoan oker edo gauzak nola ez ditugun egin bear, ori jakin bear dugu. Ori jakin ezik, oso nekez egingo ditugu zuzeneko eran.

Ez dala naikoa? Ba dakit ez dala naikoa, eta zuzeneko eran egiten ikasi bear genukeala ere ba dakit, baiña oso zaila dala ere bai. Baiña lenengoa lenengo: aalik oker gutxien lenengo, eta urrena... aalik ongien egitea lortu bear.

3'gn: "Humanismo" nola esaten dan euskeraz jakitea. ez duzula lortu. Iztegiaren III'gn zatiaz ari zeranez, eta "Idealismo" itza jorratzen duanez egilleak orri orlan, jakingo duzu nun aurkitu.

4'gn: Jo dezagun orain akats ala ez-akatzetara. Oso egoki erabil genezake "lodi EDO gizen" esateko. Baiña "Urtaroa, Eguraldia, Ingurugiroa" neretzat beintzat ez dira ain berdiñak, tartean berdintasunezko EDO idatzi aal izateko. Azkue ta Altube'ri jarraituz, iru itz oien artean, egokiagotzat jarriko NAIZ itza, eta ez EDO.

5'gn: Ona emen beste esaldi baten muiña bere osoan, ariari jarraituz: "Gure konstituzio fisiologiko eta psiko-somatikoAk badute zerikusirik" Zuzeneko eran begira, "psiko-somatikoEk", bear zuala idatzi nuan eta orlan nago. Eta zuk ezetz diozu, ain juxtu ere "bi singular dira `eta' juntagailluaz loturik". Zein dira "singular" oiek? Bat dan, ala geiago diran, zerk erabakitzen du: izen-lagunak, ala IZENAK? Or dago koxka. Eta zuk IZEN BAT ipiñi duzu eta EZ BI SINGULAR, ez orixe! BI ipiñi dituzu, baina IZEN-LAGUNAK dira. Adibide batek argitzen du ongienik: "Lagun alai ta jatorrak badu zerikusirik"... "Lagun alai ta jatorrek badute zerikusirik". Aditza "badute" jarri zenuanez, ez dago beste bide egokirik. Gaurkoz naikoa izango da. Agur terdi.

**Gaztañaga'tar Jesus'ek**

# NAFAR-IZKUNTZA

DIARIO DE NAVARRA

1990'ko Jorriaik 28. Larunbt ta

## **GARDE'tar MARTZELINO, APAIZ NAPAR EUSKALTZALEA**

### **Zuzpertzaille gartsua izan da Naparroa'n**

Naparroa'ko Erribera'n jaio zan, ain juxtu ere Karkaztulu errian 1925'eko urri-liaren 2'an eta Iruña'n il zaigu 1990'eko loraillaren 6'an, 64 urte baiño geiagorik gabe, bera baiño biziagoko gaitzak menperaturik. Goian bedi betiko atsedeen zoriontsuan.

Iruña'ko Apaiz ikastegian iraun zuan 1938'tik 1950 arte eliz-ikasketak burutzen. Eta bitarte orlan ikasi ba'zuan ere euskeraz, erdaldundurik dagoan Karkaztulu'tik zekarren euskerarekiko gar berezia, ain zuzen ere aitak biotzean ezarria. Eta aitak nundik ote zuan euskerarekiko ardurarik? Gudaidiz aurreko urteetan Agirre'tar Joseba Andoni ta Irujo'tar Manuel Karkaztulu'ra ta beste errietara joan oi ziranean, oso trebeak ornen ziran abertzaletasuna pizten. Erriberatarren biotz askotan bai piztu ere garai urruti aietan.

"Zuen abizenak, Azkuntze, Garde, Larramendi, Iturralde, Ezpeleta, Etxegoien, Agerri, Apestegi, Erdozain, Iriarte, Mugeta, Zubiria... eta emengo toki-izenak, Larrate, Arzalete, Torreko, Mugarria e.a. zer dira? Nola ulertzen dituzute? Egoki ulertzeko, bide bakarra daukagu, eta bide ori, Euskera da. Euskerak adierazten digu, itz oiek eta beste askok zer esan nai duten. Euskerak, beraz, dei egiten dizue guztioi bera ezagutzera ta maitatzera"...

Eta Martzelino mutikoak itz auek eta antzekoak entzutean, eta aitak aurrera eragiñik, beti biotz-barnean zeraman euskerarekiko maitasun berezia. Aldi aietan Karkaztulu'ko apaiz-buru zan Argaia'tar Jazinto apaizak ere asko lagundu zion giro artan, eta Apaizkastegira joaten ere bai.

Oroimen aundia ta iraunkorra zuanez, aixa ikasi zituan euskerazko gauza asko: berak bakarrik eta 1940'gn urte inguruan izateko, benetan asko ikastea lortu zuan. Apaiz egiñik irten zanean, erri euskaldun batera bidali izan ba'lute, ongi ikasiko zukean. Baiña urte aietan euskaizaletasunaren kutsurik zuan guztia, auskalo nora bidaltzen zuten. Eta gure Garde apaiz-berria, Castillo Nuevo errixkara bidali zuten, ez berri ta ez zaar, gaztelurik ez daukan errira: Leire ta Nabaskues mendien arten dagoan erri txiki ta menditsu batera, Iruña'tik eta euskalgirotik oso urruti, zigorturiko apaizak bidali oi zituzten tokira.

Lanik aski egin zuan erri artan eta ingurukoetan, baiña bereala, bi urte barru beste toki batera aldatu zuten eliz-agintariek, Uztarroza eta beste bi urte barru Garde'ra: Erronkari arana bete-betean, beraz. Urte aietan zearo galtzeko zorian zegoan euskera Erronkari'n, ain bitxia zutena. Bizirik zeukaten gutxi aien aotatik jasotzen asko saiatu zan, Erronkari'ko euskeraren azkeneko aztarna biziak noski. Berezitasun asko ikasi ta jaso zituan urte aietan.

Erronkariarren euskal-zaletasuna piztu ta zuzpertzu nairik, gogotsu saiatu zan giroa egiten, itzak eta esaldiak argitaratzen; baita ango euskeraz olerkiak egiten

ere. Erronkari'ko euskera ezagutarazteko ta Garde zanaren goralpenerako, orri auetara aldatu dut olerki bat, 1954'ko ikainillaren 13'an "Pensamiento Navarro" egunkarian eta gero "EUZKO GOGOIA"n urte bereko Dagonillean argitaratua. Onela dugu, bada:

Erronkari-Txoriño  
(Erronkariar euskaldun txikier bigotzez)

Urantzien tartean  
abia izarturik,  
txoria duk kantetan,  
Bedatsia sarturik.

Zer egun epel duk, txoriñotxo,  
zeuri dundupean!  
Magal xabalik —goixa da goxo!-  
Gore bedatsia lasterka doa  
eta unrustoian, bai zer onki!  
Ai, txoriñoa,  
negu gorrian, nora yoa yi?  
—Eltan denian Einzlari Xuria,  
beste lurretra xoaieten txoria.

Gore Uskara —txori gaxoa—  
abi bellorik erden ezik,  
otzez daldardar erraiten doa:  
—Erkin beino len, nai dut ilik!

Erronkari guziaren txoriak  
ekunen tei bero ta argía  
urrinko bazterretan.  
Baia Uskara —ene gaxoa!-  
kain otzagatik, iltra bayoa  
Deusez'aren eskietan.  
—Ez il kaien fite! Sart adi kan.  
-Etxeño ba-duk bigotz batean.

Erronkari lerdoietan  
argia ullunik..  
bigotzak, elurretan..  
Keben, zer otz betik!

Ontan amaitzen da olerkia, eta Zaitegi'k "Euzko-Gogoa"n idatzia, opa dezagun guk ere: "Ez al da Erronkari'ko uskara txanbeliñaren azken-txinta izanen. Erronkari, Erronkari, gizon sendoen kabi: Eutsi Euskerari!"

Beste olerki batzuk ere argitaratu zituan, "Anaitasuna" eta "Onki xin gore apez moitia" euskeraz, eta "El último roncalés", "Roncal ha resucitado" "Roncalesa celestial" gazteleraz. "Euzko-Gogoa"n eta "Agur"en ere idatzi izan zuan.

Erronkari aldean bertarakoturik, jo ta ke lanean ari zanean, andik Naparroa'ko beste muturrera bidali zuten: Araba'ko mugetan dagoan Uxanuri edo Genebilla errira. Jauntxoen jokabide makurrei aurpegi emanez, Kooperatiba sortu zuan bertako nekazari geienekin. Ekintza ura ta euskalzaletasuna barkatu eziñik, —eta 1960'an 339 apaizen eskutitza— ostera ere beste bazterrerara: Lumbier edo Irun-

berri'tik gertu dauden Ripodas eta beste bost-sei errixketako apaiz bidali zuten eliz-agintariek, politikarien zirikadaz eta eragiñez.

Urte aietan asi zan Iruña'ko Unibersidadean ikasketa bereziak egiten, ain zuzen Filosofia ta Kondaira-gaietan. Euskaldunentzat ain arrotza dan Unibersidadean ere euskal-pentsakera kutsutu ta zabaldu nairik jokatu zuanez, bereala izan zituan eragozpenak ugari. Ikastegi Nagusiko arduradunek gogor artu ba'zuten ere, trebeki aurpegi ematen jakin zuan.

Lau urtez iraun zuan ikasketak egiten, ikastaroak aixa gaudituz. Baiña orduantxe ziran Ikastola berriak sortzeko ta bideratzeko kinka larriak... Lasai ta errez ikasten jarraitzeko ordez, bere buruarentzat ain atsegin eta goresgarri ziran ikasketak uztea erabaki zuan, eziñean zebiltzanen serbitzuan.

Ikastolak sortzea ez zan, ordea, naikoa: irakasle ta ezitzaille asko ziran bearrrezkoak, baiña nola lortuko? Gure adiskide bi oso ederki elkartu ziran lan aundia burutzeko: Garde'tar Martzelino ta Oñatibia'tar Jon, biek elkar artuta, eta Erbiti'tar Bakarne laguntzaille zutela, 1973'gn urteko udaran Ikastaldi berezi bat eratu zuten. Etxetik euskeraz zekiten maisu ta maistrak bildu zituzten Iruña'n, euskera lantzer ta obeto ikastera.

Urte aietan eta Iruña'n orrelakorik lortzeko, lan aundiak egin eta eragozpen latzak gaudituz bear izan zituzte iru ekintzaille oiek. Euskera aipatzea bera ere gorratagarri zan garai aietan, eta Iruña'n antolatu zituzten bost-sei urtez. Gero ikastoletan "Andereño" ta "Irakasle" izateko bidean, asko izan ziran urte aietan euskal-giroan sartu ziranak. Eta zeñen pozik eta gogotsu lantzen zuten euskera, batez ere naparrek!

Baiña orduan ere bereala sortu ziran arerioak, eta gogorrenak, ez eskubitar eta "españolisten" aldetik: ain juxtu ere nolabaiteko "abertzale" ziranen aldetik, lenengo antolatzaillak —Oñatibia illik zan— uxatu arte. Naparroa'k zor aundia dio Garde zanari orduan beste biek in batean burutu zuan ekintza emankorra ain jatorki eratu zualako, bera izan ez ba'litz, bestek ezin izango bai-zukean urte aietan.

Urrena, 1973'ko Epailletik asi zan "Príncipe de Viana" aldizkariaren euskerazko geigarriaren ardura ta zuzendaritza eramaten, aalik eta 1983'ko urtarrilla-otsaillako atea atera zuan arte. Bitarte ontan zenbat buruauste ta eragozpen! Itzez agindu arren, iñolako diru-laguntzarik eman ez, eta gaiñera irarkolan ez ba'zan beste nunbait, beti oztupoak ugari jarri zizkiotenez, amaitu zan arte. Ale bat baiño geiago ba-zituan osorik eratuak, baiña irarkolan eragozpenak jartzen zizkiotelako aldundikoe, ezin atera. Irarkolan irartzea lortu, eta ala ere irakurleen eskuetara zabaldu-eziñik gelditu ziran aleak nunbait ba-ziran. Eta ... erruak Garde zanari leporatzen zizkioten kanpotik, eta orain bertan ere leporatu dizkiote.

Azkenik 1984'ko iraillaren 1'etik asi zuan "Diario de Navarra" egunkarian "NAFAR-IZKUNTZA" euskal-orria. Astean bat atera izan du, —udaldian bizpairu aste utzita— oraintsu arte, gauza izan dan arte. Ain juxtu ere, jorraillaren 27'ko orria izan zan azkenekoa; eta bera, ardura ta arreata guztiz landua, azkenengoa zuala oartu izan ba'litz bezalatsu.

Buruz argia, oroimen sendokoa, ikasteko ta ikasiak azaltzekoan oso burutsua, ekintzaille aspergaitza, egiaren alde ta bere Naparroa'ren aldeko borrokari kementsua, abertzale ta euskaltzale gartsua, lotsarik eta bildur aundirik gabe bere apaiztasuna ta abertzaletasuna agerian erabilli zituana. "Egiak askatuko zaituzte" itzak artu zituan gaztetandik bere bizitzarako elburu. Oso gertutik naiz lekuko, zeñen iraunkor saiatu zan egiaren bidean, eragozpen eta etsaitasun guztien artean aurrera.

Beste garai batzuetako eliz-agintariek oso gogor eraso zioten aurka, bost aldiz nolerebaiteko zigorrorez toki-aldatzeko. Askatasun-garaietan ere ez dute ulertu izan eliz-agintariek Garde zanaren osoko zintzotasun garbia.

"Argia" astekarian ezkertiarrek biziki goraldu zuten Garde'ren euskalzaletasu-

na: "Iñor gutxi konturatu ba'da ere, garrantziko gizona izan da euskal-kulturan". "Franco'ren garaian lanean asko saiatutako gizona, PNV'ko azken-presoei laguntzen... publikazio ttiki batzu egiten... nor edo nor mugaz pasatzen ibilia..."

Astekari berean bestelako salaketa makur batzuk ere jalki zituzten, baiña ez goaz emen aipatzera, beste nunbait erantzun bai-diet. Salaketa makurregiak, argibiderik gabekoak ziralako, eta azkenik, ildako baten aurka zijoazelako.

Aspalditik zan Euskaltzaindia'ren laguntzaille, eta Euskerazaintza onek ere laguntzaille ta Napparroa'n ordezkari izendaturik zeukan sorreratik. Latina ta gerkera naikoa ongi zekizkianez, euskal-itzetako kutsu arrotza nabaritzekoan, sen zorrotza zuan. Aldi berean euskal-itzen jatorria ta aldaketak usmatzeko ere bazuan egokitasunik aski.

Egia esateko, bakarrik ibilli zan 1960'gn urtean apaiz napparren izenpeak tzen, arako 339 apaizen idazkia zala-ta. Ekintza uraxe bai, ez diotela barkatu Napparroa'n! Nork sinistu, Garde'k orduan burutu zuan ekintzaren zailla? Nai duanak nai duana esan dezake, baiña ekintza aren ondorioz baztertu dute agintariek ez-ezik, aurretikako adiskideek ere.

Ebanjelioan bai, baiña gizakiengan aurkitu ez zituan egia ta zuzentasuna, beren betean aurkitu ta goza ditzala betiko zorionean.

### **Gaztañaga'tar Jesus'ek**



**Garde'tar Martzelino zena,**  
euskeraren eta euskaldunen  
alde lan asko egiña Nappa-  
rroa'n.



# SABIN MUNIATEGI ASTORKIA

## 1912.1990

Arantza jakuz beti onelako nai arelako eriotzak. Niretzat batez be euskal idazleenak diranean. Eta, miñez diñot, izar gaiztoz gara aspaldian. Ikusi aurten bertonen zenbatek agur egin dauskuen: Garde'tar Markelin, naparra, Kargaztelu'ko semea; Itzain, Kanbo'ko idazkaria; Jean Hiriart-Urruti, Baiona'ko eleiz-barrutiko bikario ta HERRIA astekariaren zuzendari, eta orain, besteak beste, gure Muniategi olerkaria. Gizonak opa, Jainkoak erabagi.

Errenderi'n bizi zan azken urteotan eta an egin jakozan eleiz-illetak bagillaren 11'an, etxeko, adiskide, olerkari ta euskaltzalez inguraturik. Eguneroko, asteroko, irrati ta abar, etenbarik zabaldu ebezan aren bizitza, idazlanak eta gaiñerakoak. Adiskideai agur egiteko ez da modu txarra, gaurko gizartean alan be.

Pozarren joango nintzalarik be, ez neban izan illeta egunean Errenderira joaterik: eziña errez eldu oi jatzu adiskideai azken agurra esateko be. Urrengo egunean, alan be ainbat dei izan nituan andik eta emendik; ba-ekien oneik adiskide giñala, ta barri ta eritxi billa etozan irratis eta prentsz lau aizetara bialtzeko.

Len-deia Bilbotik izan zan, eta auxe jakin nai ebana, "Erri-irratirako": Gizaseme lez zelakoa zan, zure eritxiz, Sabin Muniategi? Itaun bitxia, ezta? Gizonak ba-ditu, eta euskal idazleak, eta olerkari batek, beste alderdi interesgarri batzuk be, baiña irratikoak auxe jakin nai eben. Au ezta erreza ta nik bat-batean telefonoz erantzun bear; gogarketa pizkat, eta or joan ari zan bizkorrez nire erantzuna, alik eta ondoan arildua.

Gaur astiroago nabil eta illaren doe bi jorratuko: Zintzotasuna eta lan-gogoia. Labur: gizona zanez, zintzoa genduan eta gorputz eta arima lanari ekin eutsen.

### Zintzoa zan Muniategi

Liburu Santuetan aspertu barik aitatzen da zintzotasuna, Jainkoak gizonari eskatzen dautson doe nagusia. Lantxo au osotzean edegi dot orrelako liburu bat, eta or bertatik begi aurrean Jakituria deritxon idaztia, eta norbait ilten danean poza dakarskun zatia, "Zintzoak baketan dagoz" deritxona. Onela diño: "Zintzoak baketan dagoz. Nekea beteten ebela zirudian, baiña arein itzaropena illezkortasuna zambete-betea; neke ariñen ondoren, sari aundia artuko dabe. Izan be, Jaungoikoak aztertu eta Beretzat on aurkitu ditu; urrea su-katilluan lez aztertu eta erre-oparizat artu ditu. Kaiñabera artean txinpartak zabaltzen diranez egingo dabe dizdiz kontu-emote aldian. Arein zainpean egongo dira atzerriak, errien nagusi izango dira, eta Jauna izango jake errege beti-betiko" (3,3-8).

Eta nik irakurtaldia amaitzean: "Naikoa dot". Muniategi gizaseme zintzo, artez eta leiala izan giza-bizitzan, eta orain espiritu bizitzan, aintza zoriontsuan murgil, baketan jatzu biziko gizaldien gizaldiz, betiraun osoan. Auxe opa dautsot, eta badakit olantxe dana. Jainko-itzak uts-eziñak dituzu, eta Ak diño orrela.



Sarri guk esan eta nai izanarren, ez dira gauzak guk esan eta nai doguzan legez. Gure errian ba-dira oraindik gizon eta emakume zintzoak. Nortzuk? Erriak ba'daki. Itandu zelakoa da urlia edo sandia, eta laster dator erantzuna muiña: zintzoa, exkasa ta abar. Eta zintzoak esan-nai asko ditu, baiña batez be osota-suna adierazo gura dau. Esanekoa, ixilla, langillea, maitekorra dala urlia nai sandia.

Ba, Muniategi olakoa zan, gizaseme zanez. Nik naikoa ondo ezagutu neban gerra aurretik eta ostean. Etzan eritxi arrokoa: 1936'an "Goiz-aize" olerki liburua argitaratu ebanean, gaztetxo zala, Lauaxeta'ren goralpenak ez eben luma-goi jarri-azo; gero, guda-bendabalak txibita gaiñean erabili ebalako, nik, Milla euskal olerki eder" liburua osotzean, ez nekian itxasotik, lurretik, nundik ebillan; alan be, ba-nekian Sabin olerkari ona zana ta beronen zazpi —Udako gaba, Atzipe-tuarena, Eta orain, Arrain saltzallia, Inguma bati, Ume itxastarrarena ta Edertasun galduak— sartu nebazan berton; geroago jakin neban "Cementos Rezola";n Donosti'ko portuan sartu-urtenen ardurea eukala, eta bertatik "Oleri"-n idazten asi jatan; arrezkero maitekorra izan da gure artu-emona. Larrea-zalea zan, eta emengo jai, omenaldi ta Olerki-Egunetan ez euskun iñoiz be utsik egi-ten. Sarri egona naz Errera'n, bere etxean.

Gizonak era askotara erakutsi daroa bere zintzotasuna; ona orren era ikusburu bat. Bost-sei urte dirala-bera Errera'n bizi zan oindiño-, nik Errenderi'ra joan be-rra izan neban, Fanderia auzunera, ain zuzen be, Kepa Garmendia ikusi ta urte bi edo lenago nik osoturiko "Aita Errenderi" bertako seme olerkariaren liburua zelan joian jakitera. Papelera aurrean alkar aurkituko genduan. Ni baiño lenago aratu zan eta nik an idoro neban pazientzi aundiz nire zain. Ordu bi lez bota genduzan autu samurrean. Alkarrekin ikusi genduan bere etxean —azkenengoz ikusi be— "Onintze", Aita Errenderi'ren arreba, olerkari berau be: zaartua, andik laster il zan.

Zintzoa zan, bai, Muniategi.

## Olerkari

Zintzotasunaren ondorena dozu lan-gogoa, edo-ta beste modu batera esanda: zintzotasunak dakar lan-gogoa, euskal saillerako lan-gogoa batez be. Noiz eta zelan Muniategi'ren buru muiñean olerkirako zaletasuna? Buruan eta biotzean konturatu barik sortzen jakuzan gauzak dozuz oneik; sarri lora bat dozu eragille, neskatiilla edo mutil bat, mendi bat, Ereñozar esaterako, jai bat, alkar izkera samur bat, itxas-zearko txango kutun bat; nok jakin orren errazoia?

Sabin gaztetxo zala itxasoratu zan, Filipinas Ugarteraiñoko ostera sotilla buru-turik. Itxas-gaiñ, ura ingurumari ta ortzi urdin-izartsua goian, edermin gertatu jakun; Ugartean etzan luzaro bizi izan, erri-miñak artu bai eban laster, eta euskal-dun asko bizi diran lurralde aberats ari agur egiñik, aberrirako bidean jarri zan. Kolonbo'tik dabil onuzkoan, eta belak an ugari egazean. Luma eskuratu ta eder-senez neurtitzak eunduten:

Oi, ene neure euzko-begi, begi urdiñak!  
Zeylan urartian, Kolombo'ko urijan,  
Zenbat bela ikus dozubez egazean,  
Aragi ustelez beterik erpiñak!

Amalauko bat da, polito egiña. Eta etxera eldu zanean, or zear ibilliz adimena arrotu ta biotza dardaratu eutsen gauza bikaiñez ondu zituan bertsoakaz "Goiz-Aize" eritxon liburua, 80 orrialdekoa eskiñi euskun, 33 olerkigaz. Arin politik dan-danak.

Arrezkero eunka ta eunka poesi idatzi ditu Muniategi'k. Itz-lauz edo prosaz, artikulu motz batzuk, "Agur"-en eta "Oleri"-n poesiari buruz izan ezik. Asi zane-tik, gaiñera, ez eskumara ez ezkerrera ikara barik, beti jarraitu izan dau erakus-

meneko bide bardiña, baita puntuaziñoan be. Orrekin erakusten dausku nortasun berezi-bereziz jokatzeko ebalua.

Ugaria izan jakun, ugarietia bear bada; gaur ba'leiteke oba izatea Lizardi ta gaurko olerkari fiñ J.M. Lekuona'ren antzera, gitxi ta aurak guri beroak, jator oso-tuak, lenengo mendukoak. Azken urteotan, zar-zarituia, oso-osoa poesia emona egoan, irakurri ta idatzi, zergin bikain bikaiña. Oreki-txorta aundiak itxi dauskuz; eguneroko, astekari ta aldizkingi askotan zabalduak, Aita Julen Urkitza dabil batu ta milla bat orrialdetako liburu mardul bat gertatzen aren olerki, uste danez, guztiakaz. Ainbat moltzo daukaz emengo "Karmel" artxibuan. Sailkatu ta aztertzen diardu gogo bizitan.

### **Zelako olerkari?**

Mota guztietako neurtitzak egin zituan Sabin Muniategi'k, luzeak eta laburrak, zaarrenak eta gazteenak, sozialak ta kalekoak, ariñak eta astunak, jainkotiak eta, berdeak? Ez, zentzun aundikoa izan jakun Gautegiztarra. Eleiztar eta Jainkozale errime agertu zan beti; lerro txikienik be ez eban zirri-borroto euskal oituren aurka, ez moral-legeen kontra, nainoz eta nun-nai jokatu eban garbi-alai ta gizonki. Eredu da ildo orretan.

Olerkari danak kanta dabe maitasuna; baita Muniategi'k be, idazten asi zanetik orretan jardun izan dau. Ona "Goiz-Aize"-tik artuta, "Inguma bati" deritxona, ta gaztetxo zala landua; amalauko giarra:

Liburu mardulan irin gozuak mizkatzen  
(zeure ego biguak, txorijen antzera, luma  
bat soñian euki ez arren) egaka ibiltzen  
zara, lorarik lora, Udabarriko inguma...

Maite-miñez, lilluraturik begira nagotzu  
zelan, ain laburra ixanik zeure bixija  
zabiltzazan ain bizkor eta ain gogotsu  
asetu eziñik bijotzan dozun egarrija.

Zeure irudi-zati bat naz... Goazen ba, aurrera  
idoro arte, lei bixiz maite dogun loria!  
Zarkitzen ba'dogu, nik, neuria ta, zuk zeuria.

Ez larritu! Eriogaitik ez ixan ikara!  
Geu, ilda, jausten ba'gara lenengo, lurrera,  
ori maitaliak jausiko dira geure ganera!

"Olerti" 1959'an kaleratu zan. Lenengotik asi zan berton, ugari, idazten. 1963'ko "Izar" zenbakian (1-11) lau datoz bereak: "Neguak aldeotzaz batera", "Gutxien uste zanian", "Udaberri goizean" eta "Eguzki goiztarraren gozotasunez". Emen doakizu irugarrena:

Udaberri goizean  
abar-arteko ego-ots bizi  
eta, lorerik lore,  
inguma eta, erleak,  
bideetan itxaropena  
begietara zekarren,  
zorionezko iturri,  
emai zerutsuz bete  
eta, ederraren ederrez,  
biotzak aberastuz.

Baita, nere atz bizirtan,  
ainbeste itz eder, sortu berri,  
ernemin, egaka zeuden,  
zure biotz maitean  
sustartzeko gosez,  
Eta, zu ziñan dana;  
nere itz, nere abesti,  
zu ziñan biziaren poz,  
eguzki goitiar, sutsu,  
eta, nere illargi;

zuri begira noiz neretako  
zuri biotz-begi eta, irriparre,  
gero nerea zuretz,  
pozik aundienarekin  
betiko jabetuz!

Olerkari guren bat daukagu emen. Olantxe ekin eutson bizitza guztian. II aurretxoan, datorren urtean Donibane Gurutz'en eun urteburua dala; ta ari buruz olerki bat atara-barri zan, "Karmel"-en laster argitara emona izango dana.

**Aita Onaindia**

## KIRIKIÑOIA

Kirikiñoia, trikua,  
igali zalea degu  
ta arantza zorrotzeko  
soñanzki baten bitartez  
babesten du bai bizia,  
bere larrupe barruan  
gordetzen duala burua.

Igali zalea denez,  
dakuskezu sagastietan  
baitere gaztañadietan.

Somatutzen badu, bere  
etsai, arerrioren bat,  
pelota lez borobildu,  
ixilik da geldituko,  
etsaia guztiz urrundu,  
bistatik aldendu a rre...

Txakur aundi edo txiki,  
iZein abere ausartuko  
koska egiten trikuari?  
Kirikiñoaren bizkarrak  
orraztoki bat dirudi  
ota gogorrezko larrak.

Aunitz arantzaz bildua  
orra or gure trikua!!  
Trikuaren begiak txiki  
nakar eta, ebanozko  
botoitxuak dirudite  
ain eder dizdiragarri!!!

**Muniategi-tar Sabin**



# IPUIN ABESTIKOR ARIÑAK

## 1990

**Muniategi-tar Sabin**

### USOA

Uso zuriak ba-daki bidea,  
gizon aundizki, gizon altsuak,  
bake ikurtzat gizon ospetsuak  
dabiltena eskatuz bakea.

Oi uso zuri azkar gurena,  
bakearen ikur, eder maitea,  
mezulari zintzo, egokiena...  
Zein da zure gaurko albistea?

Billatu nai du norabidea  
baña, gizonak ez dio uzten  
goibidetzen bere egadea  
ta, bere azkatasuna lortzen.

Ordun, gelarazitako usoa,  
egazti apal eta, zintzoa,  
itunik, tristuraz gelditu da  
noiz abiatuko goietan gora.

Etxalar'ko goi-alde askotan  
sareak jarri dituzte, maltzur,  
ta, eiztariak dagoz bazterretan  
usoak noiz etorriko, guztiz zur!!

### BOST ABOSKI (A.E.I.O.U.)

(A) Ama maitagarri, laztana,  
maitasunezko sugar, zama,  
biziaren oñarri zarana...  
subil, enbor, egur-zarama...

(E) Beti lirain ta, beti eme,  
apain jantzita, kalez-kale...  
(neska, andra, Oi, emakume!  
bizitzaren zuztra ta abe!).

(I) Maitetasun argi-iturri,  
ur atsegin ta edangarri,  
edari garden, asegarri,  
biotz ororen argigarri.

(O) Gure eguneroko opil,  
ogi zuri eder, borobil,  
ta, aurrerapenezko gurpil,  
igiarazten gaituna bipil.

(U) Izudurazko negar-oiu,  
negutar aize zirimoltsu...  
ezken ametsik ez birrindu,  
orriak lez ai, ez lurreratu!

## EGIA

Nire eskuak  
amar atz dituzte.  
Nire oñak  
beste ainbeste:  
amar beatz.  
Barru aldetik begiratu  
edo, bestetik begiratu  
amar zenbatuko dituzu,  
Bi begi ditut aurpegian,  
ago bat  
sudur bat  
eta, entzuteko balio duten  
bi belarri.

## TXAKURTXOA

Buztan luze-luzea  
dadukan txakurtxoak  
dagiz alegintxoak,  
agertuz asarrea...

Bira-biraka dabil  
koska nairik itzala,  
egiñik egiñala  
biraka, ain txoratil!

Mingaña aterata  
ta, izerdi patzetan  
or dabil bai, lur-jota,  
arrapatutzekotan.

Ai, mamuren batena  
isats ori ez ote?  
Ori isats igeste  
ta, txakurraren pena!

Biraka guztiz arin  
alegiñak alegin,  
ibiliarren, ai, ezin,  
Ezin ba, ezer egin!

Buztan orrek zer dauko  
ain azkar ibilteko?  
Ai, txakurño gixajo!  
Zeri begira ago?

Zure atze aldeko  
buztana dek bai ori  
ta, ez dek arrapako  
ibiliarren urduri!!

## MAITEMINDUAK

Eguzkiaren izpidurapeko  
loraburutxo baten ganean  
jarri zan, maitemindurik zegoan  
urretxindorra.

Bere maitasuna opa zion  
txoriño bati,  
zoragarrizko  
biotza dadukana.  
A zan goizaren zorakorra!  
Zenbat maitezko txipirripi!

Baña, larrosa ederrak,  
bera maitatua izatea  
nai zuanak,  
erreminduta, itunik dago,  
txoriñoaren ingurumari  
dabilen urretxindorrarekin,  
tamalduz, triste ta urduri.

Ori esanaz gero,  
eztago  
zer esanik geiago,  
ipuiña amaiturik  
bai dago.

## LEPOLUZA

Lepoluze baten jarrai  
ibilliz,  
oartu naiz  
bera,  
aundia dala  
eta, ni,  
oso txikia.

Ai!, al ba-nuke  
arek bezala,  
lepoa goian jarri,  
izarrak  
alai,  
begiratuko nituzke  
ainbat  
izarpil eder  
ikusiz.

## TXINGURRIAK

Emen ta an,  
Urduri  
Gauzatxoak billatuz,  
Janariak etxeratuz,  
Errenkadan doaz  
Banan-banan  
Azkarki  
Beren papurrakaz,  
Beti, arduratsu,  
(Zerbaiten zerbaitaz)  
Benetan gogotsu.

Negu beltz, gogorra  
Elduko danean  
Oso lasai,  
Etxean  
Dana gertu dutelako  
Jan eta lo  
Atsedan artu  
Lezateke,  
Zabal-zabal  
Neguaren bildur gabe.

## DORDOKA

Abereen erri baten  
dordoka bat  
aukeratu zuten  
erregiñatzat.

Ain zan lillurakor  
ain zan gozo,  
ain eder ta, polita,  
ain samur ta, eztikor,  
ez dadukana  
ere izur bat.

## PAPARGORRIA

Papargorria,  
txori txintari  
maitagarria.

Aintzin baten  
baserrietan  
uste zuten,  
norberaren  
eskubi aldera ba-dator  
berri ona emen dakar,  
jauzi-jauzika, alaikor;  
baña, alderantziz,  
txintada-ots tristuratiz  
ixilkiro eta baldar  
diñoanean eskerrera  
bai, adieraztera dator  
penagarrizko zoritxar.

Oi, txindortxo maitagarri,  
txoriño onesgarri,  
txoriño maitagarri,  
gure Euskalerrietan  
ain bedeinkatua  
eta, maitatua!!

## UNTXI BATEK

Lur azpian  
Jo ta ke,  
Lurra  
Kendu ta kendu  
Apergabe  
Lurra  
Aztarrikatu  
Ta Kanporatuz...  
Untxi batek  
Zuloa egin zuanean

Untxime bat  
Aurkitu zuan.  
Geroztik  
biak  
Zoriontsu  
Bizi izan ziran  
Untxia zaartu eta,  
Untximea  
Urtetsu izan arte.

## ANTXUMEA

Antxumea bazkatzen,  
jauzika dabil, arin,  
belardian jolasten  
goizeko euzkiarekin.

Nora oa arakin  
aizto zorrotz orrekin?  
Ai!, au aizearen otza!  
Arakin, nun dek biotza?

Ai, antxume, antxume!  
Alde emendik azkar,  
arkaitz-gora, urrune,  
igaroz zelei ta, lar!

Oa, korri ta korri  
ta, egon bada, ixil,  
arakiña etorri  
ez dedin koldar, ozkil.

Zuzentasunez beti  
bizitzaren pozgarri,  
gizonak joka bedi  
lagundurik alkarri.



KARDABERAZ BILDUMA - 42

Itz askoren bearrik ez dugu eguneroko gauzatxoak adierazteko. Orrela, itz ezagunenak erabilliz eta arin-ariñetik jota, umeek ere ulertzeko erako liburu erraz bat izan zitekean liburu au. Baiña ez. Euskera obeto ezagutzera eragin nai digu euskaldunoi, eta orregatik sartu du ainbesteko aberastasun aundia, euskal-itzen ugaritasun arrigarria.

Norentzat da, beraz? Euskeraz ba-dakiala-ta, beste gabe lasai gelditzeko orde, geiago ikasi nai duanarentzat, lagungarri aukerakoa izango da. Ezin ukatu, apaiz-bizitza barne-barnetik ezagutu nai duanarentzat ere izango du erakarpin-indarrak aski.

Dakian Euskera obetu, landu ta sakondu ta aberastu nai duanarentzat, ez dira liburu asko izango auxe baiño aberatsagoak.


Bejondeizula, Txomin jauna! Zure bizitza luze ta zabalean gertaera jakingarri ta bitxi ugari dituzula-ta, zeure bizitz-edestia idazteko eskatu nizun, aspalditxo, ezagutu-berrian, antxe 1980'gn. urtean.

Egin nizun eskariak ez naiz damu. Eta liburu mardul au argitaratua ikustean, besteak beste, nik ere bultzadatxo bat eman nizulako, poz aundia izango dut.

Zorionak ao-betean zuri, eta... on egin dezaiela euskaldun askori.

**Gaztañaga'tar Jesus'ek**





# AITA MOKOROA ETA AITA SANTI ONAINDIA

Urteak dira, Aita Justo Mokoroa gure esaldi eta agerpide jatorrak batzen asi zala.

Bere esanetan, zela ala deitzearren, ORTIK ETA EMENDIK deitura jartzen asi zan bere lenengo esku liburuei eta deitura ori geratu da oraintsu, azken Ekaini-lla'ren 30'n, Donosti'ko Maria Cristina otelean aurkeztutako liburu mardul baten-tzat.

Jaiari bere garrantzia emoteko, merezi eban ospe eta zabalkundea emoteko, an bertan batu zan Jaurlaritzako Kultura taldea, Joseba Arregi buru zala, bai eta Bizkaia eta Gipuzkoako Kultura sailleko arduradunak, Tomas Uribeetxebarria eta Luis Telleria, eta Labayru erakundekoak eta beste ainbat euskal talde ta erakun-detako ordezkari eta gonbidatuak.

Egia da egun berean, ordu batzuk aurrerago gure Kulturako sailburuak, Bil-bao'ko Eskolapioen ikastetxean agertu zirala eta an eskiñi Mokoroa egilleari — ibilli eziñez bai dago— berak ain gartsu itxaroten eban argitalpena.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailla, Labayru eta "Etor" artean eginda kalera-tzearen alegiña eta lana, eta Aita Justo Mari'k pozarren eskuratu eta eskartu zitun eskintzak, azken urte oneitan kezkatu egongo dalako eta ia etsipenak jota lanaren argitaltzeari buruz. Azkenez, bere zorionean, Jainkoari eskerrak emon bear, Berak deitu aurretik, bere eskuetan ikusi al izan daualako ainbeste urtetako lanaren emaitza.

Aita Mokoroaren sinistea izan da, erri bat izkuntzak egiten dauala geienbat, eta zenbat eta izkuntza jator eta errikoiago erabili, erri a bereziago eta kutsubakoago zaintzen dala.

Gogoratzen da bein Jacques Chancel'ek Gerard Vicent irakasleari egindako galderaz: Par quoi êtes vous francais? Eta maisu arek erantzun: Par la langue. Les mots et les structures d'une langue déterminent l'âme d'un peuple.

Orra bere bizitzan beregain artu izan daben ziria.

Mokoroa berberak autortua dauka, bere bizitzako 30 urte betetzean osotu ebalan lenengo "kuadernoa".

Aita Justo Mari langillea izan da. Geldi egon eziña. "Ortik eta emendik" lan onen kezkek askori jakin erazi eta aolkuak artzen be nekatu ez dana.

Bein Julio Casares, Real Academia de la Lengua'ko idazkariarengana joan ei zan, 1952 urtean. Eta areri bere esaldi, esaera eta abar erakutsiaz batera, argita-sun billa. Mokoroa'k "giros", "modismos" eta orrelako izenak buruan erabillazala-ko; Casares'ek beretzat "locuciones" egokiago, zeatzago zala.

Dana dala, orrelako esaldietako asko, Mokoroa berberak entzun eta jasoak dira. Beste batzuk bere adiskideak bialduak edo ta liburuetatik artuak.

Mokoroa eskolapioa izanarren, Karmeldarrekin adiskide andi zan Txile'n. Geienak euskaldunak bertan. Ba zitun fraile bi an egoala sarri ikusten zitunak, batez be euskal gaietaz jarduteko: Aita Eustasio Berakoetxea eta Aita Agustin Atutxa.

Ez eutsen oneik baketan lagaten, jarraitzeko eta ekiteko zirikatu eta adoretu baiño.

Baiña nundik atara denbora, irakaskintzari ordu guztiak emotera bearturik egotan batek?

Jainkoak ba ei daki tarteak eskintzen, esaten da. Beretzat Aita Tomek, eslobakiarra, aurrerago bere Ordenako nagusi orokorra izana, bete betean agertu zan gizon mesedegarri. Arek Mokoroa'ren nagusien aurrean itz egitean Mokoroa'ren lana txalotu ei eban eta nagusi orreitan kezka lakoa sortu lan orreri buruz.

Orrela, 1972 urtea eskero, denpora geiago loriu eban bere lan orren jarraipenerako. Lanerako ateak zabalik, ez beretzako bakarrik larogeitamar millatik gorako fitxak esku bat baiño geiago eskatzen dabe eurak erabili, zuzendu, egokitu, sailkatu eta abarretarako. Zeanuritarra dan Rosa Ipiñazar andreak artu eban bere gain fitxa —lan ardura au—.

Berari esker itxura artzen asi zan Mokoroa'ren lana. Gero fitxen sailkapena, neketsua au be, fitxa guztiak irakurri, zentzua artu ta banatzen.

Banaketa au Pinloche'ren sailtasun erara egin zan.

Gero ordena-gailluetan sartu bear.

Edozein konturatu leike 93.000 fitxaren eratze, eta erabiltzeak lan burutsu eta etengarria eskatzen dauala eta onetan be gaurko teknikaren bearra egon da eta Mokoroa'k jakin be bai zelan jokatu: Manu Uriarte, Informatikako inkiñerua ezin bere deiari gor egin eta orra bera, lanari bizitasun barria emoten.

Gero zelan argitaratu, zeinek eta abar, beste buruauste izan dira. Azken baten Mokoroa'ren esanetan Juan Mari Uriarte, Bizkaiko Gotzain laguntzaillea agertu jakon aingeru zaintzaille lez. Arek Labayru zaletu eragin eta ortik azken urtenbi-dea.

Esan bearreko da Donosti'ko jaiak ba eukala beste goragarri bat be: Aita Santi Onaindia, berari Eusko Jaurlaritzak eskiñi dautson Diruzko Saria bertan jasoteko ebalako. Esku onetan jausi da oraingotan "kilo" beteko sari ori, ba dakigulako berak gure Santi'ri atsedeen egunak atzeratu eragin dautsazala, eta betiko lan garrez Gurutzeko Yon deunaren lanak amaitu eta argitaratzeko aukera emon.

Orra gizon guren bi, euskal literaturako erraldoi bi, urteak-urte, euskal lanpetik urten ezinda, alako baten euren ekiñaren emaitza jasoten. Gure txalorik ezin eurei ukatu.

## A. Zubikarai





# ORTIK ETA EMENDIK

Orain denbora-puska bat. Aita Justo Mari Mokoroa'ren eskutitz bat artu nuan. Onela zion:

"Beste lanbide bat sortzen zait gaiñera. Nere esaera-bildumaren eginkizunari gauza bakar bat falta zaio *Itzaurrea*. Nik nerez ezer gutxi egin dezaket, begietatik nagon bezela egonik, eta atzo bertan adierazten nien Labayru'koai ez ote lidaken norbaitek egiteko ori bere gain artu naiko, esaera-pillen kopi garbia lasai ikusi ondoren. Izen bat edo beste aitatu zan, artarako aproposa izan zitekeanik; eta beste baten ametsa ere egin nuan nik... amets ederregia ezpalitz...: nere erritar jator batena! Aitortu bearrik al daukat zeñena? Zer nolakoa izango litzaken nere poza ta zoriona, ametsa egi gerta al baledi!"

Bereala erantzun nion:

"... Neretzat onra aundia litzake; baiña zuretzat eta zure lanarentzat lardaskeri bat. Liburuak, etxeak bezela, atari ederra bear dute. Zuk, itxura danez, sarrera kaxkarra opa diozu zure ainbeste urteko lanari. Sekulan etzidaidan burutik pasa ere egin, olakorik eskatuko zenidanik. Ala ere, zuk beste asmorik artzen ez badezu, egingo nizuke, lotsaz beteta bada ere".

Urrena alkar ikusi genduanean, izen-mordoska ere eman nion, itzaurre ori nik baiña obeto nortzuk egin zezaketen alegia, aietatik bat bereizteko. Baiña irriparez entzun zituan nik esandako izenak. Alperrik izan ziran, beraz, nere egiñalak.

Izan ere, ainbeste urtean, bere tema buruan duala, olako lan mardul, trinko ta sakona borobildu duana, alako kaska-gogorra alegia, asmoz nork alda-arazi?

Sakina besteko lana det, beraz. Baiña olakoak beren bentajaxoa ere badute. Nik nere al dedantxoa egingo det; Mokoroa'ren lanari buruz burutapen batzuk azaldu, alegia. Ta irakurleak, neurri eskaxeko lana irizten badio, ez du nere aurka zer esanik izango. Bestek sartu bai nau ni zer egin ontan, eta al dezakena egiten duanari geiago eskatzerik ez baitago.

\* \* \*

Ez dakit egingo duan. Baiña Aita Mokoroa'k ere eskeiñi bearko luke beste itzaurre-moduko bat, bere lana nola egin duan adieraziz.

Lan bat juzkatzea eta lan ori nola egin dan esatea bi gauza oso ezberdiñak baitira. Juzkatze ori, besteren eginkizuna da; lanaren gora-beerak, zailtasunak eta korapilloak agertzea, berriz, egilleari berari dagokio geienetan, liburuaz zer dan irakurlea len baino obeto jabetu dedin.

Ala ere, berak egingo ez balu, nik itz gutxitan zerbait esan nezake, Mokoroa'ren erritar eta adiskide izanik, beraren lanaren martxa, al nuan aiñean, urtetan urbil xamarretik segitu baitet.

Aita Mokoroa'k aspaldi ikusi zuan, esaldiak izkuntza batentzat duten balio ta garrantzia. Ta biltzeari ekin zion, bai erriaren aotik ta bai euskal idazle jatorren idatzietatik ere. Ta, gure mesederako, berealakoan bukatu bearrean, urteak eta urteak eman ditu zer egin ortan.

Ari-mutur batetik tiraka asi zan, beraz. Asiera artan ez jakin zer nolako mataza azalduko zitzaien. Ez det uste, olako aberastasunik eskuratu bear zuan, ametsetan ere pentsatuko zuanik. Inork esan balio, arri-arri eginda geldituko zan noski, gu orain, aren lana ikustean, gelditzen geran bezela.

\* \* \*

Biltze-lana egin du, beraz, Aita Mokoroa'k. Zer bildu ote du? Euskal esaerak. Esaera, ordea, esan-nai zabaleko itza da.

Esaera esaten diogu atsotitz, zehar-hitz, zuhur-hitz, errefrau ta abarri. Erderazko refrán, proverbio, adagio, sententia ta abar, alegia.

Esateko moduari ere esaera esaten diogu, ordea. Esateko modu oiei esaldi esaten zien Basarrik, orain denbora asko ez dala, bere idazlan batean (1):

"Izkuntza guztiak bezelaxe, gureak ere ba-du esaldi ederrik. Inolako moduz itzez-itze beste izkuntzetara alda ezin ditezken esakerak dira. Jakingo dezute, noski, "amaika ikusteko jaiok gaituk" esakera, euskaldun batek zer tankeretan erderatu zun: "*Para ver once hemos nacido*".

"Bost ajola zioz orri" esateko, bide berdiña artuko zun, artara beartu ba'lute. "Cinco le importa a ése" esanik, lasai geldituko zan".

Gasteleraz modismo, idiotismo ta abar esan oi zaie olakoai. Ta, oiek gaztelera-tik euskerara itzez-itze itzulita, astakeri berdintsuak entzungo genituzke.

Orregatik, esaera oiek itzultzaileen gurutz-bidea izan oi dira. Bestela ere, edozein idazki izkera batetik bestera aldatzea, naiko lan latza da. Gramatika ta iztegia ondo ta sakonki ezagutu bear baitira. Oiekikoa, ala ere, nola edo ala menderatu diteke. Esaerak, ordea, akerraren adarrak baiño biurriagoak dira. Geienetan, izkuntza batean azaltzen dira esaerai, beste esaera bana billatu bear zaie urrengo izkuntza orlan; ta orrek zer lanak ematen dituan, probatu duanak bakarrik daki.

Adibidez, Basarrik aitaturtako oiek, "nacer para ver" eta "le importa un bledo" erdal-esaerakin itzuli bearko lirake.

Esaera edo esaldi aukerak dira, esateko modu aukerak alegia, aita Mokoroak gure izkuntza zaararen altxorretik bildu ta Euskalerrinari eskeintzen dizkionak.

\*\* \*\*

Basarrik esan bezela, esaerak izkuntza guztiak, dituzte.

Nai ta nai-ekoak ditu gizonak, bere lagun urkoarekin itzaren bidez artu-emanik izango badu.

Ori nola diteken adierazi bearrez, ur aunditan sartuko ote geran bildur naiz. Ala ere, aurrera jarrai dezagun, gauzak al dan txukunena azalduz.

Izkuntza, ixpillu batekin konpara diteke. Ixpilluak, lenengo, aurrean dauzkan gauzak bereganatzen ditu. Ta, ondoren, gauza oien berri ixpillura begira jartzen danari ematen dio.

Gauzen berri artu eta eman egiten du, beraz, ixpilluak. Baita izkuntzak ere.

Izkuntzak, lenengo, munduaren berri bereganatzen du.

Ondoren, munduaren berri guri eman eta erakutsi.

Ortarako, lendabiziko, iztegia bear du izkuntzak.

Jaungoikoak Adani "abere guztiak aurrean ipiñi ziozkan, nori bere izena emateko, eta Adanek guziaz zegokienarekin deitu zien" (2). Ala esaten digu Bibliak, izkuntzaren sorrera nolatsu izan zan adierazteko. Izkuntzaren lendabiziko lana, gauza guztiak nor bere izenarekin ezagutzea dala, alegia.

(1) *El Diario Vasco*, 1985-V111-3.

(2) F. I. Lardizabal: "Testamentu zarreko eta berriko kondaira", Tolosa, 1855.

Bigarrena, itz oiek alkarrekin uztartu eta lotu. Ori dala-ta, itz-joko ta dantza arrigarriak egiten dituzte izkuntzak. Ortarako, ordea, lege ta arau batzuk bear. Lege oien bilduma, gramatika da.

**Bi alderdi oiekin, iztegia ta gramatikarekin alegia, izkuntza osatuta dagoala uste du zenbaitek. Ez da orrela. Bada besterik.**

Iztegia ta gramatika, atzerritar batek ere menderatu ditzazke. Ta, bearbada, bertako askok baiño obeto. Baiña beste zerbait falta du orrek oraindik, izkuntza-ren jabe osoa izateko.

Beste zerbait orrek, iztegiak eta gramatikak baiño lan geiago emango dio, ta bein ere ez du ikasiko bertakoak bezin ondo.

Beste zerbait ori, esaerak ditugu.

Iztegi eta gramatikak geldi-antza bat dute, esaeren aldean. Mundu "estatiko" baten berri ematen digute. Baiña mundua, bizitzaren eta bizidunen lekua ere bada. Ta bizitzaren berri ere eman bear digu izkuntzak... Egiteko ori, esaeren bidez egiten du geien-bat. Esaerak, munduko dinamikaren berri ematen digute.

Ortarako, irudi edo metaforaren batez baliatzen dira askotan. Adibidez: "pikuta-tara joan", "gorakada ederra eman du orrek", "lengo lepotik burua", "kukuak oker jo du", "babak eltzetik atera",... "mingaiñean erdoirik ez du"...

Erdoia, izan ere, ez da mingaiñean itsasten, burnian baizik. Baiñan burnizko erremintak, bear bezelako lana egingo bada, erdoirik gabe bear duten bezela, norbait iztun egokia dala adierazteko, mingaiñean erdoirik ez duala esan oi degu.

*Erdoia* itz ori bera, erretxindutako edo barren erreko norbaitentzat ere erabil-tzen degu. "Erdoituta dago ori" esan oi da.

Emen, oartu gabe, gogo-erdoi ori zer dan adierazteko, beste irudi bat sartu degu: Erre eta erretxindu. Ta, gogoa ez da erretzen. Zer egiten da, beraz? Ozpindu, gazitu, mindu, garraztu, mingostu, biotza laztu, ta abar ta abar esango genduke. Ta, irakurlea konturatuko zanez, itz berri bakoitzeko irudi berri bana erabili besterik ez degu egin.

**Izan ere, esaerak, arpegiko begiak ikusten ez dan zerbaiten berri ematen digute askotan. Ez da besterik esan bear, esaerak izketarako duten balioaz. Ortik dator, ain zuzen, esaerak duten bereiztasunik arrigarrienetako bat: bat esan eta bestea ulertu bear dala. Itzak adierazten duten baiño esan-nai zabalagoa dutela.**

Ori ala izanik, ez dago itzegiterik, irudirik eta esaerarik gabe. Ta ori, ez izkun-tza au dalako edo bestea dalako. Izkuntza guztiak bere-berea dute ori.

Batzutan, gauza bat adierazteko esaldia, izkuntza batek irudi batekin eratzen du, eta beste batek beste batekin. Esate baterako, Ernio mendira lagun bat Asteasu'tik igo dala eta beste Errezil'dik.

Ar zagun, adibidez, latinezko *superficies* itza. Bi itz uztartu dira or: *super* (gai-ña) eta *facies* (arpegi).

"Arpegi-gaiña", alegia. Ortik datoz erderazko *superficie*, *superficial*, *superficiali-dad* eta abar.

Euskerak, berriz, azala itza artu du. Azala zer dan danok dakigu: gorputzaren edo frutaren gaiñeko estalkia. Ta ortik datoz "gauza axaletik juzkatu", "azaldu". "bost azal baditu orren kopetak" eta abar. Azken esaldi onen esan-naia ere, erderak beste irudi batekin adierazten du: cara dura.

Gai ontaz bi adiskiderekin izketan ari nintzan batean, baserritar ezagun bate-kin topo egin genduan. Itz aspertu bat egin ere bai. Pago aundi baten aitamena egin zan. Ta baserritarrak, aren loditasunaren berri eman nairik, "gerrian" oinbes-te bazala esan zigun. Orra or beste irudia.

Gaztelarak, berriz, gauza bera esateko, *perímetro* itza erabiltzen du. Griegotik datorrena bera: *peri* (inguru) eta *metron* (neurria). "Inguru-neurria", beraz.

Buka eziñeko gaia genduke au, beraren itzuli-mitzuli guztiak aztertu nai bage-

nitu. Izkuntza guztiak irudiz eta esaldiz josita baitaude. Izketan ari gerala, ez gera konturatzen. Baiña ez da ausnarketa luzea bear ori ikusteko eta ortaz arri-arri eginda gelditzeko. Ta orra or beste irudi ta esaldi bat; iñori ez baitzaio bere aragizko gorputza arrizko biurtzen.

Olako esaera batzuk, gertaera baten frutu ta ondorena izan oi dira. Ikasi berria detan erdal esaldi batena esango det.

Naparroa'n, ni bizi naizen Xabier'ko gaztelutik urruti gabe, Galipentzu'ko (Gallipienzo) erria dago. Erri ortan ba ornen zan, garai batean, auntz-zai bat. Bere auntz-taldearekin goizean goiz etxetik irten eta eguzkia sartu ta gero etxeratzen ornen zan, egun guztia igarota. Mendian erriko iñor ikustean, onela galdetzen ornen zion:

Ta... errian iñork nitaz galdetzen al du?

Ez —erantzuten zioten.

Ta, ori entzutearekin, gure auntz-zaia oso goibel gelditzen zan.

Beti ere orixe galdetzen zuan arek, eta beraren erriarrak ere beti erantzun berdiña ematen.

Mindu ta asarretu egin zan azkenerako gure auntz-zaia. Zer egin zuan? Egun batez, bere auntzak artu la maastirk-maasti eraman zituan. Esan bearrik ez dago maastiak nola geratuko ziran.

**Errian, auntzaren azioaren berri ikasi zutenean, sutan jarri ziran danak eta auntz-zaiaren izena danen aotan ibilli zan noski.**

Geroztik, Naparroa'ko inguru ontan, esaera au noiznai entzuten da: Galipentzu'ko auntz-zaiak baiño zer esan geiago eman (Dar más que hablar que el cabrero de Gallipienzo). Era berean degu euskeraz ere. Pernando Amezketarren gertaera ta ataraldietan oiñarrituta daude, adibidez, gaur egunean ere entzuten ditugun esaera batzuk: "erretorearen amorraiak", "emaztea itzik gabe", "bost ume, lau titi", "erretorearen txerria", "illargira zenbat bide" ta abar.

\* \* \* \*

Oitura baten frutu izan daitezke esaerak. Adibidez, gure jokoetan txapelketak ere egin oi dira, eta txapela jazten du, joko oietan nagusi gelditzen danak. Ortik esaera artuta, edozein zeregiñetan gallen ateratzen danarengandik, txapela berak duala esan oi degu.

Garai bateko siniskeriak ere utzi zuten beren kutsua. Or ditugu, adibidez, egu-nero esaten ditugun zenbait esaera: "zori onean", "zori txarrean", "kukuak oker jo digu" ta abar.

Artarako danak, izkuntzalari batek alegia, esaerak sortzen diran beste iturri ta bide asko agertuko lituzke. Nik neure urritasunean aitatu ditudanak, naikoak izango dira, ala ere, esáeren sorrera nundik ea nola dan pixka bat bederen azaltzeko.

\* \* \* \*

**Esaldien sortze orrek, poesiarekin zer ikusi aundia du. Ta esaera-sortzalle jatorrena ta ugariena erria baita, esaerak ere erri-literatura dirala aitortu bear.**

Gure artean, ain zuzen, erri-literatura baztertuta egon oi zan luzaroan. Gauzak aldatu dira eta aintzakotzat artzen ikasi degu. Mokoroa'ren bilduma onekin, materiak berria eta ugaria datorkigu eskura, erri-literatura ori obeto ezagutu dezagun.

**Ontaz aurrera, Mokoroa'ren lana nai ta naiezkoa izango du, gure erri-literatura bere luze-zabalean eta bere sakontasunean ezagutu nai duanak.**

Idazle eskolatuak ere sortzen dituzte, noski, esaerak. Geienetan, ordea, ez ditu erriak ikasten. Banaka batzuk bai, ordea. Adibidez, Lizardi'ren "beera bear au", erriaren aotik ere entzuten da gaur.

**Baiña esaldirik geienak erriak sortzen ditu. Ez det uste au iñork ukatuko duanik. Ori edozeiñek dakiana baita.**

Ta kaletar jendeak baiño geiago baserritar jendeak. Gure artean orrela gertatzeak zer arriturik ez du, aspaldirik euskera mendi aldean sasoitsuago bizi dalako, kale aldean baiño. Beste izkuntzetan ere ala ornen da, ordea. Izakia erakusle jakintsua ta trebea izan nunbait.

\*~\*~\*

Izkuntza geienak aspalditik datozen ezkeru, eta izkuntza oien aberastasun aundienetako bat esaerak izanik, auek ere antziña batean asmatuak izango dirala pentastuko du bearbada norbaitek.

Ez da, nai ta nai ez, ala. Esaldi batzuk bai, noski, leengo idazle zaarretan ere azaltzen baitira. Beste batzuk ez, ordea. Izkuntza batek, urteen buruan, itz eta esaldi asko baztertu eta aaztu egiten baititu, eta beste batzuk sortu eta bereganatu.

Negozio bateko galdu-irabaziak bezela, beraz. Era ortan, izkuntza bat probetzen ari da, galtzen duana irabazten duana baiño geiago bada. Alderantziz bada, berriz, aberasten.

Esaera batzuk zergatik baztertzen ote diran? Bizitzaren aldakuntzak dakar ori geien-bat. Denborarekin, nik uste, "antzarrak perratzeru bialdu" ezin esango da, "perratzea" zer dan jendeak ez du jakingo-ta. "Zu izan zera gure golde-muturra" ere ez, goldea museotan izan ezik ikusiko ez dalako. Ta abar ta abar.

Baiña mundu berri onek esaldi berriak ere sortzen ditu.

Adibidez, langintza bat aurrera eramateko egokiera ona baldin bada, argi berdea eman bear zaiola esaten da erderaz: dar luz verde al asunto. Esaera berria degu orí, semaforoak azaldu ziraneke artan asmatua.

Era berean, azken urte auetan agertu zaizkigun aurrerapenak, esaldi-mordoa ekarri dute. Adibidez, batek entzumen fiña duala adierazteko, "antena" ona duala esan oi degu.

Fubolak berak ere sortu arazi ditu batzuk. Garai batean, "alakok alakori ziri ederra sartu dio" esaten genduan. Gaur egun ere bai, noski. Baiña ordaiña ere agertu da. Askotan beste onelatsu esaten baita: "olakoak olakori gol bikaiña sartu dio"

Aitatu ditugun azken esaldi auek, erderatik artuak ditugu.

**Izan ere, euskerak, gaur egunean, berak sortu bearrean, errexkerira jo eta erderatik artzen ditu, batere kupira gabe.**

**Bide ortatik gure izkuntza aberasten ari zaigunik ezin esan. Baiña gai ontaz gero ere mintzatuko gera.**

\*~\*~\*

Erri-literaturaren alor aundi bat betetzen dute, leen esan bezela, esaerak. Baiña gure erri-filosofiaren agergarri ere badirala esan genezake. Alderdi ortatik, nik uste, azterketa baliotsu bat egin diteke. Artarako, Aita Mokoroa'k berak legundu ditu bideak, bere bilduma oparoa sailkatu duan bezela sailkatuta.

Esaldien bearra, santuak ere ezagutu dute. Berak sentitu dutena agertu naiez, esaera berri asko sortu dizkigute. Ta esaera oiek gure eguneroko izketara pasa ere bai zenbait alditan. Adibidez, Santa Teresa'k iduripenari "etxeko eroa", "la loca de la casa" deitu zion. Geroztik, nunai eta noiznai entzuten dana degu esaldi ori. "Las moradas", "castillo interior" ta zenbat olako ez ote zituan santa orrek berak asmatu? San Juan de la Cruz ere ugaria degu ortan. San Inazioarenak dira, berriz, "las dos banderas". "binarios", "rey temporal y rey eternal" ta abar.

Santutasunaren eremuetan ere sartuta dauzkagu, beraz, esaerak. Gorago ezin igo ditekela ematen du. Baiña oraindik ez gera gallurrera iritxi.

Izan ere, Jesukristo bera, bere zerutar dotriña guri erakutsi bearrez, esaera-sortzaille izan zan. Berak sortutako esaldiak noiznai eta batere konturatu gabe esan oi ditugu gure eguneroko izketan. Baita erlijio-gaietaz kanpora ari gerala ere. Adibidez, "nork bere gurutzea eraman", "eguneroko ogia", "munduko gatza zerate", "nork bere burua ukatu", "biotzaren ugalmenetik gizona mintzo", "gizona ez da ogiz bakarrik bizi" ta abar ta abar.

\* \* \* \*

Gaur egunean euskal esaldiak nola ditugun galde ditekete. Ez guk nai bezin indartsu ta sasoiko. Oartu gabe, izan ere, erdal kutsua guregan oso zabalduta daukagu, ta gero ta geiago sartzen ari zaizkigu erdal esaerak gure eguneroko izketan. Erderak alderdi guztietatik erasotzen dio euskerari, ta gure izkuntza gai-xoa pobretzen eta baldartzen ari zaigu urtetik urtera.

"Eguraldia" esan bearrean, "denbora" entzungo degu; "ezin ditekena" baztertu eta "inposiblea" erabili; "zigarro erretzea" esan bearrean, "fumatzea" botako degu aotik; "lanean ari" zokoratu ta "lanean ibili" mingaiñeraturako zaigu; ta abar ta abar.

**Bein, ostatu batera sartu ta onela eskatu ornen zuan gazte batek:**

—**Kafe bakarra. Kafe utsa eskatu bearrean, alegia.**

Erdal sena, pentsamentu ta esaldiak, zirrikitu guztietatik billatzen dute bide. Ta gure euskerak, mamia erderazkoa du askotan, eta axala bakarrik euskerazkoa.

Euskaldun zaar baten aotik, batez ere mendikoa bada, eten gabe entzungo ditugu euskal esaerak, zein baiño zein jatorragoak. Olakorik oso gutxi somatuko degu euskaldun gazte askoren aotik, ta are gutxiago kaletarrak baldin badira.

Erdal esaerak guregana sartu alean, euskerazkoak galtzen ari zaizkigu. Euskerazkoak ustutako lekua, erderazkoak bete.

Erdera, gure izkuntza barrutik zulatzen eta jaten ari da, arrak sagarra bezela edo pipiak zura bezela. "Ujolde baten pare" esan oi da iparraldeko eliz-kanta batean. Erdal ugolde batean ito-zorian degu euskera...

Era berean, iñork erabiltzen duan izkuntzaren jatortasuna, jaulkitzen dituen esaldien ugalmenetik neurtu liteke. Esaldi asko, izkuntzaren jatortasunaren ezau-garri dira, noski.

**Esaeretan urri dana, berriz, alamoduzko izkuntza baten jabe izango da.**

Aita Mokoroa'ren iztegia une larri batean datorkigu, beraz. Euskera pobretzen eta murrizten ari zaigun ontan, olako aberastasuna danen eskuetara. Gure izkuntza gose-egarriak daukagun ordu ontan, olako jaki-edari goxo-ugaria aora. Etxea lur jo-zorian degun garaian, olako zutoi bikaiña leengo tellatu ta orma zaa-rrak eusteko...

Euskeraz idazten-da alegintzen geranok nor bagiña, Mokoroa'ren lana beti ere mai gaiñean eta eskuaren mende bear genduke, noiznai aren ugalmenetik eus-kerak gozoago ta jatorrago baten jabe egingo baigera.

**Aita Anton Zavala S.J.**





# ELBI RE ZIPITRIA VI - SARIKETAK

EUSKERAZAINTZA'k, Donosti'ko Getari kaleko 21'garrenean daukan idazge-lan, Agirre'tar M.<sup>a</sup> Dolores, Zubikarai'tar Augustin, Yurramendi'tar Felipe, Gazta-ñaga'tar Jesus, Zubiri'tar Iñaki eta Kortajarena'tar Andoni jaun-andreak, ELBI RE ANDEREÑO A VI Ipuin-Sariketara aurkeztutako lanak aztertzeko epai-maia osatu-rik, azterketa sakon bat egin ondoren, adostasun osoz, sariak era ontan bana-tzea erabaki dute

## **A maila:**

1.º saria	:	Eman gabe, utsa.	
2'gn. saria A)	:	"Itxurak ezkututzen duena", Ernani'ko David Etxeberria Aginaga'k idatzia .....	10.000 pezta.
3'gn. saria B)	:	"Benetako lagun baten aolkua", Ernani'ko Arkaitz Galarraga'k idatzia .....	10.000 pezta.
4'gn. saria	:	Eman gabe, utsa.	

## **B maila:**

1.º saria	:	"Errakuntza zuzendua", Maria Goreti ikaste- txeko, Naia Alzola'k idatzia, Durango'koa ...	10.000 pezta.
2'gn. saria	:	"Basoko animaliak, Deba'ko Ostolaza ikastetxeko, Mikel Karrillo'k idatzia .....	8.000 pezta.
3'gn. saria	:	"Toni txakurra", Ondarroa'ko Txomin Agirre ikastolako, Gurutze Zubikarai'k idatzia .....	6.000 pezta.
4'gn. saria	:	"Bidaia elurretako erreinura", Ernani'ko Urumea ikastolako, Joxe J. Etxeberria'k idatzia .....	4.000 pezta.
5'gn. saria A)	:	"Gaztearen aulezia", Ernani'ko Urumea ikastolako, Iñaki Lete'k idatzia .....	3.000 pezta.
5'gn. saria B)	:	"Peru", Ernani'ko Urumea ikastolako, Eider Mujika'k idatzia .....	3.000 pezta.
5'gn. saria D)	:	Non egongo dira Tripontzia eta ... Deba'ko Ostolaza Erri-eskolako, Ana Bastida'k .....	3.000 pezta.
5'gn. saria E)	:	"Aurrerakuntzarengatik", Ernani'ko Urumea ikastolako, Iñaki Arrieta'k idatzia ....	3.000 pezta.
5'gn. saria F)	:	"Instrumentoen alka izkata", Ondarroa'ko Txomin Agirre ikastolako, F.J. Arrieta .....	3.000 pezta.
5'gn. saria G)	:	"Denboraldia txarraren ...", Ernani'ko Urumea ikastolako, Idoia Cia'k idatzia .....	3.000 pezta.


D mailla:		
1.º saria	• "Kanpotar bat Donostia'n", Donosti'ko Orixe ikastolako, Ainara Urdapilleta'k idatzia .....	8.000 pezta.
2'gn. saria	• "Mendi edo ...", Donosti'ko Orixe ikastolako, Joseune Zabala'k idatzia .....	6.000 pezta.
3'gn. saria	"Bi anai desberdiñak", Donosti'ko Orixe ikastolako, Ibai Mendinueta'k idatzia .....	4.000 pezta.
4'gn. saria	"Zakur bati esker", Donosti'ko Orixe .....	2.000 pezta.
5'gn. saria A)	"Urbia mendiko otsoa", Donosti'ko Orixe ikastolako, Xabier Almandoz'ek idatzia .....	1.500 pezta.
5'gn. saria B)	• "Ilargiaren lenengo ...", Ondarroa'ko Txomin Agirre ikastolako, Lukene Arrizabalaga .....	1.500 pezta.
5'gn. saria D)	• "Pello artzaia", Ernani'ko Urumea ikastolako, Eneko Olano'k idatzia .....	1.500 pezta.
5'gn. sana E)	• "Poloetara ibilladia", Donosti'ko Orixe ikastolako, Maria Yeregi'k idatzia .....	1.500 pezta.
5'gn. saria F)	• "Orexa'ko artzaia", Ernani'ko Urumea ikastolako, Ohiana Zubillaga'k idatzia .....	1.500 pezta.

#### OLERTI SARIKETA

DEBA'n, 1990'ko orriliaren 26'an, Arrinda'tar Anes, Zubikarai tar Augustin, Olazar tar Martin, Onaindia'tar Jagoba eta Gaztañaga'tar Jesus, "ELBIRE ANDERE-ÑOA VII" Olerki sariketa aurkeztu ziran lanen epaille izentatuak izan ziranak eta Kortajarena'tar Andoni idazkari bezala, Deba'ko Parrokiko areto batean bildurik, alde aurrez eman zitzaizkien aipatutako leiaketara aurkeztu ziran olerki-lanak aztertu ondoren, eta adostasun asoz, sariak era ontan banatzea erabaki dute:

1'go sana, 40.000 pezetakin	saritua, Euskeraren besoetan izenez aurkeztua, Iturbe'tar Martin'ek idatzia.
2'gn. sana, 30.000 pezetakin	saritua, Matxin Kaxkagorri izenez aurkeztua, Ugarte'tar Martin'ek idatzia.
3'gn. saria 25.000 pezetakin	saritua, Euskal eresien lillura izenez aurkeztua, Egaña'tar Gotzon'ek idatzia.
4'gn. sana, 20.000 pezetakin	saritua, Izatzarri zaitez izenez aurkeztua, Beloki'tar Agustin'ek idatzia.

Eta gertatutakoen aitormen-agiri bezala aztertzaillak agiri au izenpetzen dute epaiketa bukatu ondoren.



# TOKI-IZENEN ATZIZKIAK:

## -ana -ena...

### ABOSTEGI-ARAZOA

Toki izenetan n abots ori galdu egiten da. Baiña ez toki izenetan bakarrik, beste izen askotan be bai. Gogoratu dagiguzan latinetik artutako catena, campana ta olakoak, euskeran katea ta kanpaia biurtu dira. Iñok ez leuke esango gaur kanpaneana edo katenea. Arau ori kontuan arturik, Lemoa esan bearco litzake, ez Lemoa, baiña euskereak ondo bereizten dauz antxiñatik galduak diran izkiak eta oraintsura arte galdu barik etorri diranak. Antxiñako izena Zestano izan ba'zan be, antza dagoanez, gaur ez daukagu orrelan esan bearrik, antxiña galdua eta iñon esaten edo irakurten ez dan gauzea dalako. Baiña Lemoa ez da ain antziñakoa, barruan daroan n ori oraintsu galdua da eta oraindiño galdu barik dagoana be bai.

Ez da aitzu bear beste arazo bat: n izki ori ez dala galtzen aurren i daukanean. Orduan ñ biurtzen da eta agogaiñeratze orregaz izkia oso sendo geratzen da, ez da galtzen.

### ADIERAZPEN ARAZOA

Gaurkoz argitu bagako arazoa da n barruan danoen atzizki onein adierazpena zein dan. Toki-atzizkiak díra eta tokia adierazten dabe, baiña geiago zeaztutea oso gauza gaitxa da.

Adibidez: Berberana, Legutiano, Llanteno, Intxiña, Oromiño, Estarrona, Urruzuno, ...Tokia adierazten dabela, argi dago, baiña asko geiago ezin jakin.

-ena atzizkia daben toki-izenik ez dogu aitatu eta ori zeozergaitik izan da: atzizki ori oso zabaldua dalako, eta toki batzutan adierazpen berezia dauana. -ena atzizkia dauken toki izenak Iberia osoan aurkitzen doguz: Aracena, Luzena, Leciñena, Marchena, Antoñana (?), Requena, Mairiena... eta olakoetan beti aurkitzen dogu latinezko izen bat: Lucius, Licinius, Martius, Antonius, Retius, Marius... eta gero latinetik etorria ez dan atzizkia -ena. Atziki au, antza dagoanez, Zeltak zabaldua da. Eta jakiña da zelten eta euskaldunen artean artu-emon aundiak izan zirala izkuntza-arloan: Gogoratu: Landa, praka, gona, alkondara... Orregaitik ez litzake arritzeko gauzea ena atzikia euskaldunak eta zeltak batera euken gauzea izatea, eta gaiñera adierazpena be bardiña izatea, Lukena/Lukiorena.

Antzeko jokerea ikusten da Naparroan sortuak diran abizenetan: Otxotorena, Garziarena, Perurena.

Izen batzutan ez da erreza izaten olako adierazpena aurkitzea, esaterako: Gerena.

**Olazar'tar Martin**

# "EUSKERAREN BESOETAN JAIO NINTZEN"

## IV

Garai batean nik ez nekien  
aundi izatea zer zan;  
ez bainekien nere barrua  
argi jatorrez aztertzen.  
Dena dakien gizakumerik  
ez da mundura jaiotzen;  
denek bezela, neke luzeaz,  
ikasi nuen bizitzen.

Amatxo batek aurtxo txikia  
artuz bere magalean,  
lartan goxotan muxukatzen du  
maitasun oiurixilean;  
nere biotzak ager lezaken  
indar sendo apalean,  
EUSKERA muxuz laztanduko dut  
itzjarior zabalean.

## II

Errugabeko zenbat umetxo  
geratuak diren lotan!!!  
Seaskatikan euskaldun, baiña,  
euskal itzik ez aotan.  
Jatorri-arnasa ukatu zaie,  
—maidade gabe askotan—;  
orrela ez da "irin" biurtzen  
gari atea errotan!!!

## V

Jaiotetxea maite ez duena  
al zer gizaki pobrea!!!  
Esan liteke lore bat dela  
udaberririk gabea.  
Nola ez gorde guraso onak  
suz piztu duen labea?!!!  
Zer edo zein da etxea baño  
arnas emaille ohea?!!!

## III

Nagikeria, joku iñozoz  
biurtu dute "aitzaki":  
"auzo izkuntzaz bizi ornen leike  
giza artean lasaiki".  
Edornork daki, bererik gabe  
beste ezer ez dela aski:  
"Euskera gabe, euskal etxea,  
euskaldun ezin izaki"!!!

## VI

Itz ematen dut, zin egiten dut  
—gorostia zait testigu—:  
"Nere burua ez dut salduko  
izkuntz arrotzen katigu!"  
Izkuntza zaindu bear dugunok  
argi ta garbi dakigu:  
"Gure zaiñetan bizi arnasa  
EUSKERA bakarrik zaigu"!!!